

**2008AN EUSKARAREN
SUSTAPENERAKO ERABILITAKO
AURREKONTU PUBLIKO,
DIRULAGUNTZA ETA GIZA
BALIABIDEEN IKERLANA**


Donostia, 2010eko urtarrila.

AURKIBIDEA

0.- <u>SARRERA</u>	5
1.- <u>ARGIBIDE METODOLOGIKOAK</u>	9
1.1.- AZTERKETAREN UNIBERTSOA.....	10
1.2.- LAN PROZEDURA ETA URRATS NAGUSIENAK	16
1.3.- DATUEN IRAKURKETA EGITERAKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK.....	18
2.- <u>EAEko ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN 2008ko EUSKARA AURREKONTUAK</u>	19
2.1.- AURREKONTU BATERATUAK ETA BILAKAERA	20
2.1.1.- EAEko erakunde publikoak orotara	20
2.1.2.- Eusko Jaurlaritza	21
2.1.3.- Foru aldundiak	30
2.1.4.- 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak.....	32
2.1.5.- Hiriburuak.....	34
2.2.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO SAIL ETA ERAKUNDE ARTEKO DIRU TRANSFERENTZIAK	37
2.3.- EUSKARA AURREKONTUAK BIZTANLEKO, ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI.....	40
2.4.- EUSKARA AURREKONTUAK BIZTANLEKO, UDALERRIEN TAMAINA ETA GUNE SOZIOLINGUISTIKOARI JARRAIKI.....	45
3.- <u>EUSKARA AURREKONTUEN KAPITULUKAKO AZTERKETA</u>	49
3.1.- EAEko ERAKUNDE PUBLIKOEN EUSKARA AURREKONTUAK, KAPITULUEI JARRAIKI.....	50
3.2.- AURREKONTUEN KAPITULUKAKO AZTERKETA, ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI.....	53
3.3.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO FINANTZAKETA PUBLIKOAREN BILAKAERA, KAPITULU EKONOMIKOEI JARRAIKI	56

4.- EUSKARA AURREKONTUAK HIZKUNTZA NORMALKUNTZAKO EREMUEI JARRAIKI	60
4.1.- 2008KO EUSKARA AURREKONTUEN BANAKETA	61
4.2.- EUSKARA AURREKONTUEN EREMUAKO BANAKETA BIZTANLEKO	77
4.3.- EUSKARA AURREKONTUEN EREMUAKO BANAKETA: 2006-2008 BILAKAERA	79
5.- EUSKARA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK EAEko ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN	91
5.1.- EAEko ERAKUNDE PUBLIKOAK OROTARA	92
5.2.- DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK ERAKUNDE MOTARI JARRAIKI	95
5.3.- DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK UDALERRIETAN BIZTANLERIA ETA GUNE SOZIOLINGUISTIKOARI JARRAIKI	97
5.4.- DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK EREMUARI ETA ERAKUNDE- MOTARI JARRAIKI	99
5.5.- DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK BIZTANLEKO, EREMUARI ETA ERAKUNDE- MOTARI JARRAIKI	114
5.6.- DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK EREMU ZEHATZARI ETA ERAKUNDE- MOTARI JARRAIKI	116
6.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EGITURAK ETA GIZA BALIABIDEAK	123
6.1.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EGITURAK	124
6.2.- AURREKONTUAK ONARTZEN DITUEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAK	128
6.3.- BESTE ARLOETAKO ZERBITZU EDO DEPARTAMENTUEKIKO ELKARLANA	131
6.4.- GIZA BALIABIDEAK LANPOSTU ETA KONTRATU MOTARI JARRAIKI	133
6.5.- GIZA BALIABIDEAK ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI	139
6.6.- GIZA BALIABIDEEN LAN KATEGORIA	146
6.7.- GIZA BALIABIDEEN LAN KATEGORIA, ERAKUNDE MOTARI JARRAIKI	147
7.- FINANTZAKETA MODUA	150
7.1.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO SAIL ETA ERAKUNDE ARTEKO DIRU-TRANSFERENTZIAK	151
7.2.- DIRU SARRERAK ERAKUNDE MOTARI JARRAIKI	152

8.- <u>ONDORIOAK</u>	157
9.- <u>ERANSKINAK</u>	181
• Euskararen sustapenerako EAE-ko aurrekontu publikoei uruzko azterketaren eranskinak	182
• EAE-ko administrazio publikoaren euskara sustatzeko dirulaguntza eta hitzarmenen azterketaren eranskinak	198
• Euskararen sustapenerako erakundearen egituraren eta giza baliabideen azterketaren eranskinak	234



SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak, hizkuntza normalkuntzarako eta euskararen sustapenerako kudeatzen dituen diru baliabide, dirulaguntza eta hitzarmenei, eta eginkizun honetarako erabiltzen dituen giza baliabideei buruzko ikerlana da hau. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz egin du Siadecok ikerlan hau, eta txosten honetan biltzen dira azterketa honen emaitza eta daturik nagusienak.

Azterlan honetako unibertsoa ondorengoek osatu dute: Euskal Autonomia Erkidegoko 5.000 biztanlez gorako udalerrri guztietako udalek, hiru lurraldeetako foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak berak (bere erakunde autonomiadunak barne).

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bi urtez behin egin ohi du EAEko administrazio publikoak euskararen sustapenerako erabilitako aurrekontu publiko eta giza baliabideen ikerlana, baina aurtengoan, horretaz gain, administrazio publikoak euskararen sustapenerako eskaintako dirulaguntza eta hitzarmenak ere zehaztasun handiz ikertu dira azterlan berean.

Bigarren berrikuntza edo aldaketa, ikerketaren lanerako unibertsoa bera da. Aurreko txostenetan, Eusko Jaurlaritzaren euskara aurrekontuak aztertzeke garaian, ikerketa hiru sailen euskara aurrekontuak aztertzeke mugatzen zen: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Kultura Saila (HABE barne) eta Ogasuna (HAEE/IVAP barne) ziren orain arte aztertutakoak. Aurten aldiz, eta lehendabizikoz, Eusko Jaurlaritza osoa eta bere erakunde autonomiadunak kontuan hartu eta aztertu dira egitasmo honetan.

Berrikuntza horiek egin izanak, badu eraginik azken azterlaneko datuak aurrekoetakoekin alderatu eta bilakaera aztertzerakoan (batik bat datu orokorrean edo Eusko Jaurlaritzako datuez ari garenean) eta hainbatetan oharrak eta xehetasunak behin eta berriz errepikatu behar izango ditugu, baina ikuspegi metodologikotik aurrera pausua izan delakoan gaude.

Bestelakoan, eta euskara aurrekontuen inguruko datuei dagokionez, metodologikoki orain bi urte erabilitako irizpide bertsuak erabili dira; izan ere erakundeen aurrekontu likidatuekin lan egin da (eta ez erakundeen onartutako aurrekontuekin, 2002 eta 2004. urtean bezala), eta euskararen sustapenerako baliabideak sailkatzeko, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak bereizten dituen eremuak hartu dira kontuan. Horrek orain bi urteko datuak oraingoekin alderatzeko aukera eskaini digu.

Laburki, azterlan honen helburu nagusiak ondorengoak izan dira:


- 1.- Hizkuntza normalkuntzaren datu ekonomikoak ezagutzea, alegia, EAEko administrazio publikoak euskararen sustapenerako urtean zenbat diru erabiltzen duen jakitea.
- 2.- 2002. urteaz geroztik, euskara aurrekontuek izan duten bilakaeraren azterketa egitea.
- 3.- Euskara sustatzeko diru baliabideak nola banatzen diren jakitea: bai kapitulu ekonomikoei jarraiki, baita gizarte eremu bakoitzean izan duten banaketari jarraiki (euskalduntze alfabetatzea, administrazioa, lan-arloa, ...).
- 4.- Euskararen sustapenean gastatutako diru kopuru honetatik, dirulaguntza eta hitzarmenetan zenbat erabiltzen den jakitea; eta zehazki zein alorretara zuzentzen diren laguntza hauek.
- 5.- Hizkuntza normalkuntza lanetan aritzeko administrazio publikoak erabiltzen dituen giza baliabide eta egitura-motei buruzko informazioa jasotzea.

Informazioaren antolaketa eta datuen ustiaketa moduri dagokionez, ondorengo atal nagusiak ditu txosten honek:

- 1.- Helburuak eta ikerketa-eremua.
- 2.- EAEko administrazio publikoaren 2008ko euskara aurrekontuak.
- 3.- Euskara aurrekontuen kapitulukako azterketa.
- 4.- Euskara aurrekontuak hizkuntza normalkuntzako eremuei jarraiki
- 5.- Euskara sustatzeko dirulaguntza eta hitzarmenak EAEko administrazio publikoan (2008)
- 6.- Euskararen sustapenerako egiturak eta giza baliabideak.
- 7.- Finantzaketa modua.
- 8.- Ondorio nagusiak.

Ikerlanaren txosten nagusi honez gain, azterketaren datu nagusienak biltzen dituen txosten exekutiboa, landa-lanaren intzidentzi txostena eta jasotako informazio osoaren datu-oinarria ere prestatu eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren esku ipini dira.

Berrikuntzarik ere izan da datuak betetzeko moduan; izan ere aurreko edizioetan posta bidez igorri eta jasotzen ziren galdekizunak; oraingoan, erantzuleek internet bidez bete eta bidaltzeko aukera ere izan dute.



1.
**ARGIBIDE
METODOLOGIKOAK**

I.1.- AZTERKETAREN UNIBERTSOA

Hizkuntza normalkuntza eta euskararen sustapenerako diru baliabide eta giza baliabideen ikerlanaren unibertsoa EAEko 5.000 biztanlez gorako udalerriek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak (erakunde autonomiadunak barne) osatu dute. Eusko Jaurlaritzari dagokionean, sarreran esan bezala, aurtan izan da berrikuntzarik, eta orain arte informazioa eskatzen zitzaien hiru sailei ez ezik, sail guztiei eskatu zaie euskararen sustapenerako erabilitako aurrekontu, eskainitako dirulaguntza eta giza baliabideen inguruko informazioa. Zehazki, alfabetikoki hauek dira ikerketan parte hartu duten Eusko Jaurlaritzako sailak eta erakunde autonomiadunak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - Garraio eta Herri Lan Saila
 - Herrizaingo Saila (Ertzaintza eta "laboralak" barne)
 - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
 - Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila
 - Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila
 - Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila
 - Kultura Saila
 - Lehendakaritza
 - Ogasun eta Herri Administrazio Saila
 - Osasun eta Kontsumo Saila

- Erakunde autonomiadunak:
 - EMAKUNDE
 - Euskal Herriko Polizia Ikastegia
 - EUSTAT
 - HABE
 - HAEE/IVAP
 - OSALAN

Erakunde guztietan, udal, foru aldundi nahiz Eusko Jaurlaritzako sailetan jaso den informazioa ondorengoa da:

- A.- Erakundearen datu orokorrak eta euskara sustatzeko departamentu, arlo edota zerbitzuaren datuak.
- B.- 2008ko aurrekontu likidatuaren datu orokorrak: aurrekontu kontsolidatua, aurrekontu propioa eta euskara sustatzeko aurrekontua (aurrekontu likidatuak).
- C.- Erakundearen 2008ko aurrekontu propioak eta euskararen sustapenerako aurrekontuak, kapitulu ekonomikoei jarraiki.
- D.- Euskara sustatzeko 2008ko aurrekontuak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eremuen arabera.
- E.- Erakundearen 2008ko dirulaguntza eta hitzarmen-motak eta zenbateko ekonomikoak, EBPnko eremuen arabera.
- F.- Euskara sustatzeko atalaren egitura eta euskarari eskainitako giza baliabideei buruzko informazioa: lanpostu-mota, kontratu-mota, lan kategoria...
- G.- Euskarari dagozkion erakundearen diru sarrerak: berezko sarrerak (tasak, matrikulak,...) eta beste erakundeetatik jasotakoak.

Hurrengo tauletan unibertsoa osatu duten erakundeen zerrenda ageri da, erakundea zein den identifikatzeaz gain, erakunde bakoitzaren eskumen eremuko biztanleria, herritar euskaldunen ehunekoa eta udalen kasuan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenerako dagokion eredia ere zehaztuz.

I. Taula: 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak (hiriburuak kanpo), biztanleria, herritar euskaldunen % eta EBPN eredua, lurraldeari jarraiki

Lurraldea	Erakunde kodea	ERAKUNDEA	BIZTANLERIA (2006)	EUSKALDUNEN % (2006)	EBPN eredua
Araba	1002	Amurrioko Udala	9.836	27,2	B1
	1036	Laudioko Udala	18.389	26,5	B2
Bizkaia	48001	Abadiñoako Udala	7.144	51	C1
	48002	Abanto-Zierbanako Udala	9.548	22,4	B1
	48003	Amorebieta-Etxanoko Udala	17.197	53,6	C2
	48011	Arrigorriagako Udala	12.206	31,5	B2
	48013	Barakaldoko Udala	96.446	18,3	A2
	48015	Basauriko Udala	43.282	23,4	B2
	48016	Berangoko Udala	6.266	34,8	B1
	48017	Bermeoko Udala	16.789	73,5	D
	48027	Durangoko Udala	27.925	48,4	B2
	48029	Etxebarriko Udala	8.109	22,5	A1
	48032	Elorrioko Udala	7.075	58,6	C1
	48034	Ermuko Udala	16.174	28,7	B2
	48036	Galdakaoko Udala	29.073	39,6	B2
	48043	Gorlizko Udala ¹	5.130	37,4	B1
	48044	Getxoko Udala	81.254	29,0	B2
	48045	Gueñesko Udala	6.223	20,9	A1
	48046	Gernika-Lumoko Udala	15.981	67,9	C2
48054	Leioako Udala	29.018	28,6	B2	

¹ Aurtun Gorlizko Udala lehen aldiz sartu da azterketan, eta ez da aztertu aldiz Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea.

Lurraldea	Erakunde kodea	ERAKUNDEA	BIZTANLERIA (2006)	EUSKALDUNEN % (2006)	EBPN eredu
Bizkaia	48057	Lekeitioko Udala	7.354	82,3	D
	48069	Mungiako Udala	15.275	55,9	C2
	48071	Muskizko Udala	6.936	23,2	B1
	48073	Ondarroako Udala	9.028	81,1	D
	48078	Portugaletako Udala	48.274	20,0	A2
	48080	Trapagarango Udala	12.389	20,8	A2
	48082	Santurtziko Udala	46.935	19,9	A2
	48083	Ortuellako Udala	8.563	20,3	A1
	48084	Sestaoko Udala	29.583	18,6	A2
	48085	Sopelanako Udala	12.031	38,8	B2
	48090	Balmasedako Udala	7.075	19,6	A1
	48096	Zallako Udala	8.017	21,7	A1
	48901	Derioko Udala	5.262	31,6	B1
	48902	Erandio Elizateko Udala	23.844	24,9	B2
	Gipuzkoa	20009	Andoaingo Udala	14.105	50,2
20013		Aretxabaletako Udala	6.524	62,5	C1
20017		Azkoitiko Udala	10.701	77,4	D
20018		Azpeitiko Udala	13.814	85,0	D
20019		Beasaingo Udala	12.755	57,2	C2
20029		Debako Udala	5.330	73,4	D
20030		Eibarko Udala	27.227	51,0	C2
20032		Elgoibarko Udala	10.767	59,8	C2
20036		Hondarribiko Udala	15.958	60,6	C2

Lurraldea	Erakunde kodea	ERAKUNDEA	BIZTANLERIA (2006)	EUSKALDUNEN % (2006)	EBPN eredu
Gipuzkoa	20040	Hernaniko Udala	18.866	55,8	C2
	20045	Irungo Udala	60.331	36,5	B2
	20049	Lazkaoko Udala	5.107	62,0	C1
	20051	Legazpiko Udala	8.544	57,0	C1
	20053	Lezoko Udala	5.922	55,3	C1
	20055	Arrasateko Udala	21.869	54,7	C2
	20059	Oñatiko Udala	10.647	76,7	D
	20063	Oiartzungo Udala	9.700	72,9	D
	20064	Pasaiaiko Udala	15.943	37,9	B2
	20067	Errenteriako Udala	37.748	36,4	B2
	20071	Tolosako Udala	17.666	64,5	C2
	20072	Urnietako Udala	5.927	53,9	C1
	20073	Usurbilgo Udala	5.641	69,9	D
	20074	Bergarako Udala	14.627	67,8	C2
	20075	Villabonako Udala	5.670	65,6	C1
	20076	Ordiziako Udala	9.141	58,2	C1
	20077	Urretxuko Udala	6.631	54,6	C1
	20079	Zarauzko Udala	22.095	70,1	D
	20080	Zumarragako Udala	9.807	46,3	B1
	20081	Zumaiako Udala	8.870	71,7	D
20902	Lasarte-Oriako Udala	17.432	39,4	B2	

Iturria: EUSTAT, 2009. Siadecok landua.

2. Taula: Hiriburuak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza, dagokien biztanleria eta herritar euskaldunen %

Lurraldea	Erakunde kodea	ERAKUNDEA	BIZTANLERIA (2006)	EUSKALDUNEN % (2006)
Hiriburuak	1059	Vitoria-Gasteizko Udala	229.668	24,6
	48020	Bilboko Udala	351.179	24,3
	20069	Donostiako Udala	180.657	40,4
Foru Aldundiak	1010200	Arabako Foru Aldundia	305.822	25,1
	48009200	Bizkaiko Foru Aldundia	1.136.852	31,3
	20004200	Gipuzkoako Foru Aldundia	686.665	52,9
Eusko Jaurlaritza	1010101	Kultura Saila	2.129.339	37,4
	1010102	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila		
	1010103	HAEE/IVAP		
	1010104	HABE		
	1010105	Lehendakaritza		
	1010106	Herrizaingo Saila		
	1010107	Herrizaingo saila. Laboralak		
	1010109	Ogasun eta Herri Administrazio Saila		
	1010110	Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila		
	1010111	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila		
	1010112	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila		
	1010113	Osasun eta Kontsumo Saila		
	1010114	Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila		
	1010115	Euskal Herriko Polizia Ikastegia		
	1010116	EUSTAT		
	1010117	EMAKUNDE		
1010118	OSALAN			
1010119	Ertzaintza			

Iturria: EUSTAT, 2009. Siadecok landua.

1.2.- LAN PROZEDURA ETA URRATS NAGUSIENAK

Erakundeetatik informazioa galdetegi egituratu bidez jaso da eta galdetegi eredu bera erabili da erakunde guztientzat.

Udal eta gainerako erakundeetan galdetegi bidez eskatutako informazioa biltzen lan egin dutenak, oro har euskara arlo edo zerbitzuetako teknikariak izan dira, kontu-hartzaile eta administrarien laguntzarekin. Landa-lanaren jarraipen estua eginez unibertso osoari dagokion informazioa lortu da horretarako hartutako neurriak ondorengoak izanik:

- Siadecotik telefonoz edo erakundeetara bisitak eginez egindako jarraipen lana.
- Informazioa eskuratzeko zailtasunak erakutsi dituzten udal eta erakundeekin, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik egindako lana.
- Galdetegjaren informazioa biltzeko eredura, udal eta erakundeetatik jasotako datuak egokitu eta ondoren erakundeekin egokitze lan hori kontrastatzeko Siadecotik egindako lana.
- Landa lanerako epea zabalik mantendu da erakunde guztietako informazioa eskuratu arte. Guztira 10 astetako iraupena izan du, 2009ko iraila eta azaroa bitartean.
- Informazioa eskuz edo ordenagailu bidez emateko eskaintako aukera, paper euskarrirako bertsioa eta euskarri digitalerako bertsioak ere landu baitira.

Ikerlana bere osotasunean aurrera eramateko jarraituko lan-urratsak ondorengoak izan dira:

- I. Jaso beharreko informazioaren zehaztapena egin eta galdetegiak prestatzea (euskarri digitalean eta paperean).
- II. Unibertsoa definitu eta ikerlanaren aurkezpen-gutunak bidali erakundeetara.
- III. Galdetegiaren posta eta ordenagailu bidezko bidalketa.
- IV. Azterlanari eta galdetegiari buruzko argibideak emateko harremanak (telefonoz edo aurrez aurre), erakundeetako ordezkari edota teknikariek.
- V. Landa-lanaren jarraipenerako urratsak burura eraman.
- VI. Jasotako informazioaren ikuskatze, kontraste eta osatze lanak.
- VII. Galdetegietako informazioaren arazketa.
- VIII. Informazioaren analisi modua zehaztu eta datuen ustiaketa estatistikoa egin.
- IX. Informazioaren irakurketa egin eta azterlanaren txosten nagusia, intzidentzi txostena eta datu-oinarria prestatu.

I.3.- DATUEN IRAKURKETA EGITERAKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Txosten honetan ageri diren taula eta grafikoetako datuen irakurketa egiterakoan kontuan hartu beharreko ohar eta faktoreak dira ondorengoak:

- 1.- Euskara aurrekontuen kopuru absolutu nahiz portzentaia erlatiboen bilakaeraren azterketa egiterakoan, aurrekontu likidatuko datuak (2008ko eta 2006ko ekitaldiari dagozkionak), aurrekontu onartuko datuekin alderatzen ari gara (2002 eta 2004 ekitaldietakoak).
- 2.- Euskaltegien izaera publikoa edo pribatuaren arabera, udalek euskaltegiarako ipintzen dituzten aurrekontuak kontabilizatzeko modua desberdina da kontabilitate publikoko kapitulu ekonomikoei jarraiki. Eragin hori ekidin eta analisirako irizpideak bateratze aldera, euskaltegi publikoa duten udalerrietako udaletako aurrekontu propioko kapituluetatik euskaltegiari dagozkion kopuruak kendu egin dira (pertsoneko gastuak, zerbitzu kontratazioa,...) eta udalak finantzatzeko duen zatia bakarrik kontuan hartu eta 4. kapitulu ekonomikoan erantsi da (udalak berak finantzatu eta euskaltegiari egiten dion transferentzia modura kontsideratuz). Ondorioz, euskaltegi publikoaren aurrekontuak udalaren aurrekontu propioan sartuak dauden kasuetan, aldeak daude azterlan honetarako kontsideratutako kopuruen eta udalek kontabilizatuak dituzten kopuruen artean. Ondorengoak dira kasu horiek: Arrasate, Barakaldo, Erandio, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Oñati, Portugalete, Sestao, Tolosa eta Trapagaran.
- 3.- Irizpideak bateratze aldera ere, udalaren euskara sustatzeko atala, erakunde autonomoa edo patronatua den kasuetan, azterlan honetan ez da erakunde horren aurrekontu osoa kontuan hartu, Udalak erakunde horri egiten dion ekarpena baizik.
- 4.- Ikerketaren unibertsoa aurkezteko garaian adierazi bezala, euskara aurrekontuen azterlan honetan lehendabiziko aldiz sartu dira aurten Eusko Jaurlaritzako hainbat sail eta erakunde autonomiadunak, eta Gorkizko udala.
- 5.- Pasaiaiko Udalaren kasu konkretuan, 2008 urteari dagozkion bi datu berri besterik ez dizkigute igorri: euskara aurrekontu orokorra eta Pasaiaiko Udalak udal euskaltegiari egindako diru-ekarpenaren kopurua. Udalaren aurrekontu kontsolidatua eta aurrekontu propioaren datuak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailetik eskuratu dira (iturria: Udalgida), baina aurrekontuen datuak dira horiek. Beraz, eskuratutako bi datu horiez aparte galde-sorta honetako gainerako kopuru guztiak, kopuru estimatuak dira. Estimaziorako, antzeko ezaugarriak dituen udalerrri baten datuak erabili dira. Kopuru estimatu horiek ikerlanaren datu orokorrak kalkulatzeko erabili badira ere, inondik inora ere ez dira Pasaiaiko Udalarri dagozkionak bezala erabili.

2.

**EAEko ADMINISTRAZIO
PUBLIKOAREN 2008ko
EUSKARA
AURREKONTUAK**

2.1.- AURREKONTU BATERATUAK ETA BILAKAERA

2.1.1.- EAEKO ERAKUNDE PUBLIKOAK OROTARA

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak orotara, 187,5 milioi euro erabili ditu 2008. urtean euskararen normalizaziorako, hots, "euskararen normalizazio eta sustapena helburu duten zuzeneko ekintza eta baliabideetarako". Kopuru horren ia %70 Eusko Jaurlaritzaren euskara aurrekontuari dagokio (130,4 milioi), %15,5 5.000 biztanlez gorako udalen aurrekontuari (29,1 milioi), %4,3 hiriburuen aurrekontuari (ia 8 milioi), eta %10,6 foru aldundien euskara aurrekontuari (20 milioi).

Kopuru hauek, erakunde arteko diru-transferentziak kenduta kalkulatu dira: hau da Eusko Jaurlaritzatik nahiz foru aldundietatik udaletara, euskararen normalizazioa sustatzeko transferitutako diru kopuruak kenduta. Hauxe da beraz erakunde-mota bakoitzaren euskara aurrekontu propioa, eta nolabait esatearren euskara aurrekontu neto edo garbi orokorra.

Baina bestalde, udalek euskararen sustapenerako erabilitako diru-kopuruak aztertzerakoan, transferentzia bidez jasotako diru-baliabide horiek ere aztertzea beste aukerarik ez dugu, era batera ala bestera euskara sustatzeko erabili baitute beraiek diru-kopuru hori. Horixe da hain zuzen ere, euskara aurrekontu likidatua deiturikoak eskaintzen digun informazioa; hots, 5.000 biztanlez gorako udallerrietako udalek (hiriburuak kanpo) beren aurrekontu propioetik euskara sustatzeko 29,1 milioi erabili dituztela esan dugu, baina beraiek euskara aurrekontuetan likidatutako kopurua guztira 33,6 milioi eurokoa da (beraien aurrekontu propioari zegokiona, gehi Eusko Jaurlaritzatik eta foru aldundietatik jasotako transferentziak). Hiriburuen kasuan, aurrekontu propio hori ia 8 milioi euro izatetik, likidatutako 8,5 milioi euro izatera pasatzen dira.


Honela bada, euskararen normalizaziorako erabilitako aurrekontu bateratuaz ari garenean 187 milioi euroz arituko garen bezala, datuak erakunde-motari jarraiki aztertzen ditugunean (bai kapitulukako azterketa egiterakoan nola EBPN eremuen arabera egiterakoan), aurrekontu likidatuekin egingo dugu lan.

3. Taula: EAEko 2008ko euskara aurrekontu bateratua, erakunde arteko diru-transferentziak eta guztirako aurrekontu likidatuak erakunde-motari jarraiki

	Erakundekako euskara aurrekontu PROPIOA eta EAEko aurrekontu BATERATUA		Erakunde arteko transferentziak	Euskara aurrekontu LIKIDATUA guztira	
	€	%		€	%
Eusko Jaurlaritza	130.417.217	69,6	-	130.417.217	67,8
Foru Aldundiak	19.926.465	10,6	-	19.926.465	10,4
5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak	29.149.944	15,5	4.494.533	33.644.477	17,5
Hiriburuak	7.996.037	4,3	497.647	8.493.684	4,4
GUZTIRA EAE	187.489.663	100,0	4.992.180	192.481.843	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

1. grafikoa: Euskara aurrekontu propio edo bateratuak eta erakunde arteko transferentziak, erakunde-motari jarraiki - 2008 (€)




Iturria: Siadeco, 2009

EAEko administrazio publikoaren aurrekontuen emaitza nagusiak ditugu hurrengo taulan, eta daturik azpimarragarrienak, ondorengoak:

- 2008an erakunde publikoen euskara aurrekontu bateratua, esan bezala, 187,5 milioi eurokoa da; erakunde horien aurrekontu publiko osoa aldiz, 15.175,8 milioi eurokoa. Euskarari eskainitako aurrekontua, beraz, aurrekontu osoaren %1,24.
- Kopuru absolutuetan, euskara aurrekontuak gora egin du aurreko urteekiko: 2002. urtean 128,5 milioi izatetik, 187,6 milioi izatera pasa da 6 urtetan.
- Erlatiboki edo ehunekoetan, aldiz, 2008ko euskara aurrekontuak aurrekontu osoekiko duen pisua (%1,24), 2006. urtean zuena baino zertxobait altuagoa izan arren, 2002 eta 2004. urteetan izan zuena baino baxuagoa da (%1,35 eta %1,44 hurrenez hurren)².
- Edonola ere, kopuru absolutuetan EAE mailako euskara aurrekontuek beti egin dute gora 2002tik 2008ra eta aurreko jaitsiera hori ez da euskararako baliabide gutxiago erabili delako, proportzionalki erakundearen aurrekontu osoek igoera handiagoa izan dutelako baizik.
- Erakunde-motari jarraiki, eta beti ere euskara aurrekontuak erakundearen aurrekontu osoarekiko duen pisuari erreparatuta, euskarari proportzionalki baliabide gehien eskaintzen diotenak, hiriburuak ez diren 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak dira: 2008. urtean bere aurrekontu publiko osoaren %2,06 euskara normalizatu eta sustatzeko ekintzetara bideratu zuten. Eusko Jaurlaritza dator ondoren, bere aurrekontu osoaren %1,40 eskainiz, eta nabarmen beherago hiriburuak eta foru aldundiak (%0,69 eta %0,66 hurrenez hurren).
- Aurtengo datuok 2006. urtekoekin alderatuz (ezin bazter baitaiteke 2002 eta 2004ko urteekiko bilakaera aztertzean, aurrekontu onartuak izateak izan lezakeen eragina), euskara sustatzeari eskainitako diru baliabideen aurrekontu osoarekiko ehunekoek gora egin dute zertxobait: 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan, foru aldundietan nahiz Eusko Jaurlaritzan. Bere horretan mantentzen dira aldiz hiriburuen kasuan.

² Bi urte horietako azterketak aurrekontu onartuekin egin ziren, eta ez likidatuekin; ezin baztertu beraz erabat, aldaketa metodologiko horrek izan dezakeen eragina.

2. Grafikoa: Erakundeen aurrekontu osoarekiko euskara aurrekontu likidatuaren pisu erlatiboaren bilakaera (2002-2008), erakunde-motari jarraiki



Iturria: Siadeco, 2009.

4. Taula: Erakundeen aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2008), erakunde-motari jarraiki

Erakunde-mota	Urtea	Erakundeen aurrekontu osoa		Euskara aurrekontua		[Euskara aurrekontua/Aurrekontu osoa] ratioa	
		€	% Δ	€	% Δ	Ratioa (%)	%Δ
Eusko Jaurlaritza (sail arteko diru transferentziak kenduta)	2002	5.971.406.505		94.018.669		1,57	
	2004	6.185.000.000	3,58	105.171.877	11,86	1,70	8,00
	2006	7.770.938.413	25,64	106.074.632	0,86	1,37	-19,73
	2008	9.317.300.321	19,90	130.417.217	22,95	1,40	2,54
Foru Aldundiak	2002	1.747.026.817		11.836.109		0,68	
	2004	2.064.699.668	18,18	15.645.334	32,18	0,76	11,85
	2006	2.505.421.545	21,35	15.961.175	2,02	0,64	-15,93
	2008	3.005.037.376	19,94	19.926.465	24,84	0,66	4,09
5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak	2002	1.032.231.095		19.816.294		1,92	
	2004	1.196.293.257	15,89	24.763.995	24,97	2,07	7,83
	2006	1.464.583.885	22,43	27.712.866	11,91	1,89	-8,59
	2008	1.630.816.711	11,35	33.644.477	21,40	2,06	9,03
Hiriburuak	2002	758.041.654		4.580.903		0,60	
	2004	885.081.402	16,76	5.826.286	27,19	0,66	8,93
	2006	1.023.269.625	15,61	7.060.244	21,18	0,69	4,81
	2008	1.222.722.235	19,49	8.493.684	20,30	0,69	0,68
EAEko aurrekontua GUZTIRA (erakunde arteko transferentziak kendu gabe)	2002	9.508.706.072		130.251.976		1,37	
	2004	10.331.074.327	8,65	158.843.677	21,95	1,54	12,24
	2006	12.764.213.468	23,55	170.134.973	7,11	1,33	-13,31
	2008	15.175.876.643	18,89	192.481.843	13,13	1,27	-4,84
EAEko aurrekontu BATERATUA (erakunde arteko transferentziak kenduta)	2002	9.508.706.072		128.466.970		1,35	
	2004	10.331.074.327	8,65	148.478.984	15,58	1,44	6,38
	2006	12.764.213.468	23,55	152.837.887	2,94	1,20	-16,69
	2008	15.175.876.643	18,89	187.489.663	22,67	1,24	3,23

Iturria: Siadeco, 2009 (2002 eta 2004 aurrekontu onartuak, 2006 eta 2008 aurrekontu likidatuak).

Esan bezala, aurtengo azterketaren berrikuntza garrantzitsuenetakoa, kontuan hartzen diren Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundetan eman den aldaketa izan da. Orain arte, Kultura Saila (eta ez osorik, HABE eta HPS soilik), Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saila eta Ogasun Saila (HAEE/IVAP barne) ziren aztertzen zirenak. Eta aurten sail eta erakunde autonomiadun guztiak ere aztertu dira. Kultura Sailari dagokionez gainera, aurten HABE eta HPSz gain, Kultura Saila bere osotasunean aztertu da. Honek bilakaera hurbilpen modura aurkeztera behartzen gaitu, eta ez konparaketa zorrotz modura.

Hori dela eta, ondorengo taulan, orain arte azterketa honetan kontuan hartzen ziren sailen bilakaera aurkezten dugu, aurten lehen aldiz aztertu diren sailen euskara aurrekontuetatik bereiztuz.

Eusko Jaurlaritzak, sail arteko transferentziak kenduta, 130,4 milioi likidatu ditu euskara sustatzeko; horietatik 126 milioi Kultura Sailari, Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Sailari eta HAEE/IVAPI dagozkio, eta gainerako 4,4 milioi gainerako sailei³.

2006tik 2008ra bitartean, Eusko Jaurlaritzaren euskara aurrekontuetan %22,95eko igoera izan da; baina aurreko urteetan aztertu diren sailen euskara aurrekontuaren bilakaerari mugatuz gero, igoera %18,8 litzateke.

³ Kultura Sailaz ari garenean, kontuan izan orain arte HABE eta HPSz ari ginela soilik, eta aurten Kultura Saila bere osotasunean hartu dugula kontuan.

5. Taula: Eusko Jaurlaritzako sailen euskara aurrekontuak izandako bilakaera, orain arte ikerketan kontuan hartu diren hiru sailak eta aurten lehendabizikoz aztertutakoak bereiztuz

Urtea	Kultura Sailari, HUISi eta HAEE/IVAPI soilik dagokien euskara aurrekontua		Gainerako sailei dagokiena	GUZTIRA Eusko Jaurlaritza	
	€	% Δ		€	€
2002	94.018.669			94.018.669	
2004	105.171.877	11,86	-	105.171.877	11,86
2006	106.074.632	0,86	-	106.074.632	0,86
2008	126.018.312	18,80	4.398.905	130.417.217	22,95

Iturria: Siadeco, 2009.

2.1.2.- EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzaren euskara aurrekontua aurkeztu eta aztertzerakoan oso kontuan hartu behar dugu orain arte aztertzen ziren sailei, aurten beste batzuk ere erantsi zaizkiela. Ikerketarentzat aberasgarria da aldaketa hori, baina zaildu egiten du erakunde osoko datuen konparaketa zuzena egitea.

Orain arte aztertzen ziren sailen datuei erreparatuta esan, Kultura Sailak (HABE barne hartuta), ia 70 milioi euro eskaini dizkiola euskararen sustapen eta normalizazioari 2008. urtean zehar, hau da, berre aurrekontu osoaren %28,15. Aurreko edizioko datuekin konparatuz, altuagoa da bai kopuru absolutuetan, bai proportzionalki sailaren aurrekontu osoarekiko, euskarari eskainitakoa (%22,2 izatetik, %28,15 izatera pasa da 4 urtetan).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 53,5 milioi euro eskaini dizkio euskarari, bere aurrekontu osoaren %2,20. Orain bi urte eskainitakoak baino 10 milioi euro gehiago zehazki.

HAEE/IVAP ek 14 milioi euro likidatu ditu euskararen sustapenerako, bere aurrekontuaren %7,02; 2006. urtean eskainitakoa baino gutxiago, bai kopuru absolutuetan, baita portzentualki aurrekontu osoarekiko.

Aurten lehen aldiz aztertu diren gainerako sailek, orotara 4,4 milioi euro likidatu dituzte euskararen sustapen eta normalizazioarako, beren aurrekontu osoaren %0,08 batez beste. Eusko Jaurlaritzaren igoera beraz, Hezkuntza Sailaren 10 milioi euroko igoerari eta Kultura Saileko 8 milioikoari zor zaio nagusiki.

Orotara, hortaz, Eusko Jaurlaritzak 130,4 milioi eskaini ditu euskara sustatu eta normalizatzeko, bere aurrekontu osoaren %1,40.

6. Taula: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2008)

Erakunde-mota	Urtea	Erakundearen aurrekontu osoa		Euskara aurrekontua		[Euskara aurrekontua/ Aurrekontu osoa] ratioa		
		€	% Δ	€	% Δ	Ratioa (%)	%Δ	
Eusko Jaurlaritza	Kultura+ HAEE/IVAP+Hezkuntza GUZTIRA (transferentziak kenduta) (Erakundearen aurrekontu osoa: Eusko Jaurlaritza)	2002	5.971.406.505		94.018.669		1,57	
		2004	6.185.000.000	3,58	105.171.877	11,86	1,70	8,00
		2006	7.770.938.413	25,64	106.074.632	0,86	1,37	-19,73
		2008	9.317.300.321	19,90	126.018.312	18,80	1,35	-0,92
	Gainerako sailak	2008			4.398.905			
	Eusko Jaurlaritza GUZTIRA (Aurrekontu bateratua)	2008	9.317.300.321	19,90	130.417.217		1,40	
	Kultura+ HAEE/IVAP+Hezkuntza GUZTIRA (transferentziak kendu gabe)(Erakundearen aurrekontu osoa: Sailen aurrekontuaren batura)	2002	-		101.413.619			
		2004	2.114.936.560		112.608.060	11,04	5,32	
		2006	2.493.239.686	17,89	119.400.688	6,03	4,79	-10,06
		2008	2.884.487.253	15,69	137.305.318	15,00	4,76	-0,60
	Kultura (HABE barne)	2002			39.720.863			
		2004	200.674.000		44.553.511	12,17	22,20	
		2006	248.370.804	23,77	61.627.063	38,32	24,81	11,76
		2008	247.694.754	-0,27	69.730.495	13,15	28,15	13,46
	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	2002			51.860.503			
		2004	1.767.860.560		58.516.129	12,83	3,31	
2006		2.063.487.882	16,72	42.633.719	-27,14	2,07	-37,58	
2008		2.435.667.000	18,04	53.464.053	25,40	2,20	6,24	
IVAP-HAEE	2002			9.832.253				
	2004	146.402.000		9.538.420	-2,99	6,52		
	2006	181.381.000	23,89	15.139.906	58,73	8,35	28,12	
	2008	201.125.499	10,89	14.110.770	-6,80	7,02	-15,95	

Iturria: Siadeco, 2009.

7. Taula: Eusko Jaurlaritzako gainerako sailen aurrekontu osoa eta euskara aurrekontua (2008)

ERAKUNDEA	Erakundearen aurrekontu osoa	Euskara aurrekontua	Ratioa (%)
EMAKUNDE	7.479.000	146.003	1,95
Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila	567.700.134	3.369.393	0,59
Garraio eta Herri Lan Saila	312.373.040	150.187	0,05
Euskal Herriko Polizia Ikastegia	13.183.789	771.839	5,85
EUSTAT	12.213.359	68.182	0,56
Herrizaingo saila, (Ertzaintza eta "laboralak" barne)	669.641.076	830.055	0,12
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	398.206.147	162.183	0,04
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila	130.468.000	107.550	0,08
Lehendakaritza	72.413.000	99.770	0,14
OSALAN	12.892.000	55.600	0,43
Osasun eta Kontsumo Saila	3.162.575.000	235.466	0,01
GUZTIRA (Sailen arteko euskara transferentziak kenduta)	5.359.144.545	4.398.905	0,08

Iturria: Siadeco, 2009.

2.1.3.- FORU ALDUNDIAK

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu osoa ia 475 milioi eurokoa izan da, eta euskararen sustapenari eskainitakoa 2 milioi euro inguru, hau da aurrekontu osoaren %0,43. Orain bi urteko datuekin alderatuta, igo egin da euskarari eskainitako aurrekontua, kopuru absolutuetan nabarmen (%67,29), eta hain nabarmena ez bada ere, baita proportzionalki aurrekontu osoarekiko euskarari eskainitakoa (%0,32tik, %0,43ra). 2006ko ikerketa egin zenean ez bezala, bi zerbitzu desberdinetan antolatuta dago orain hizkuntza normalizazioa Arabako Foru Aldundiaren kasuan, Euskara Zerbitzua batetik eta Euskararen Foru Zerbitzua bestetik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontu osoa 1.731 milioi eurokoa izan da 2008. urtean, eta euskararen normalizazioari eskainitakoa 10,8 milioi euro inguru, hots, aurrekontu osoaren %0,62. Aurreko azterketarekiko, igo egin da kopuru absolutuetan euskarari eskainitakoa (%15,1 2006ko datuekiko), baina proportzionalki euskarak pisua galtzen jarraitzen du aldundiko aurrekontu osoarekiko (%0,79 izatetik %0,62 izatera pasa da 4 urtetan).

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu osoa ia 800 milioi eurokoa izan da, eta euskararen sustapenari eskainitakoa 7,1 milioi euro, hau da aurrekontu osoaren %0,89. Aurreko urteekiko igo egin da kopuru absolutuetan euskarari eskainitakoa (%32.31 igo da 2006koarekiko); eta proportzionalki ere aurreko edizioarekiko zuen pisua igo egin da, orain 4 urte zuena ia berreskuratuz (%0,89 da egun, 2006ean %0,71 eta 2004ean aldiz %0,90). Gipuzkoako Foru Aldundia da beraz, hiru foru aldundietatik, euskarari proportzionalki diru-baliabide gehien eskaintzen diena.

Beraz, hiru foru aldundien aurrekontu osoa, orotara, 3.005 milioi eurokoa izan da 2008. urtean; eta euskararen normalizatzeko eta sustapenari eskainitako aurrekontua, ia 20 milioi euro. Euskarari beraz, aurrekontu osoaren %0,66 eskaini diote batez beste. Esan bezala, ehuneko hau baxuagoa da Bizkaiko nahiz Arabako Foru Aldundien kasuan (%0,62 eta %0,43 hurrenez hurren), eta altuagoa aldiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan (%0,89).

Kopuru absolutuetan, orotara, %24,84ko igoera izan dute euskara aurrekontuek 2006ko aurrekontuekiko; proportzionalki, aldiz euskararen likidatutakoak aurrekontu osoarekiko duen pisua igo egin da 2006koekiko, baina ez da iristen 2004. urtean zuen balorerara (%0,76). Gogoratu, dena den, 2002 eta 2004 urteetako ikerketetan aurreikusitako kopuruekin egin zela lan eta horiek alde nabarmenak izaten dituztela, sarri, likidatuekiko.

8. Taula: EAEko Foru Aldundien aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2008)

Erakunde-mota		Urtea	Erakundearen aurrekontu osoa		Euskara aurrekontua		[Euskara aurrekontua/Aurrekontu osoa] ratioa	
			€	% Δ	€	% Δ	Ratioa (%)	%Δ
Foru Aldundiak	GUZTIRA	2002	1.747.026.817		11.836.109		0,68	
		2004	2.064.699.668	18,18	15.645.334	32,18	0,76	11,85
		2006	2.505.421.545	21,35	15.961.175	2,02	0,64	-15,93
		2008	3.005.037.376	19,94	19.926.465	24,84	0,66	4,09
	Arabako Foru Aldundia	2002	304.649.600		1.018.359		0,33	
		2004	334.859.983	9,92	1.324.224	30,04	0,40	18,30
		2006	376.235.130	12,36	1.219.385	-7,92	0,32	-18,04
		2008	474.858.316	26,21	2.039.854	67,29	0,43	32,54
	Bizkaiko Foru Aldundia	2002	911.487.727		6.925.997		0,76	
		2004	1.143.696.162	25,48	9.026.691	30,33	0,79	3,87
		2006	1.368.591.426	19,66	9.374.277	3,85	0,68	-13,21
		2008	1.730.768.708	26,46	10.785.052	15,05	0,62	-9,03
	Gipuzkoako Foru Aldundia	2002	530.889.490		3.891.753		0,73	
		2004	586.143.523	10,41	5.294.419	36,04	0,90	23,22
		2006	760.594.989	29,76	5.367.513	1,38	0,71	-21,87
		2008	799.410.352	5,10	7.101.559	32,31	0,89	25,88

Iturria: Siadeco, 2009.

2.1.4.- 5.000 BIZTANLEZ GORAKO UDALERRIETAKO UDALAK

Euskal Autonomia Erkidegoan 5.000 biztanlez gora dituzten udalerrietako udalen aurrekontuak dira atal honetan jasotakoak. Guztira 64 udal: 2 Araban, 32 Bizkaian eta 30 Gipuzkoan. Hiru hiriburuetakoko datuak aparte landu dira, hiriburuetan euskara aurrekontuek euskara aurrekontu osoarekiko duten pisu erlatiboa oso desberdina izan ohi delako.

Arabian bi dira (Gasteiz alde batera utzita) 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak. Beren aurrekontu osoa 44,4 milioi eurokoa izan da, eta euskararen normalizazio eta sustapenera eskainitakoa, 614 mila euro eskas; hots, aurrekontu osoaren %1,38. Orain bi urteko datuekin alderatuta, jaitsi egin da, bai kopuru absolutuetan (%13,3 gutxiago), bai proportzionalki aurrekontu osoarekiko (%1,47tik, %1,38ra pasa baita) euskarari eskainitako aurrekontua.

Bizkaian 32 dira (Bilboz aparte), 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak. Udalerrri horien aurrekontu osoa 934,8 milioi eurokoa da, eta euskararen normalizazio eta sustapenera eskainitakoa 15,2 milioi euro; hau da, aurrekontu osoaren %1,63. Orain bi urteko datuekiko, igo egin da kopuru absolutuetan euskarari eskainitako aurrekontua (%14,4), baina aldiz mantendu egin da aurrekontu osoarekiko proportzionalki euskarari eskainitakoa (%1,63 bi kasuetan).

Gipuzkoan 30 dira (Donostia alde batera utzita) 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak. Horien aurrekontu osoa 651,6 milioi euro, eta euskarari eskainitakoa 17,8 milioi euro; hau da, aurrekontu osoaren %2,73. 2006ko datuekiko, igo egin da, bai kopuru absolutuetan (ia %30) bai proportzionalki aurrekontu osoarekiko Gipuzkoako udalerrri hauek euskarari eskainitako aurrekontua (aurrekontuaren %2,29 eskaintzetik %2,73 eskaintzera pasa dira).

Beraz, EAEko 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalen aurrekontu osoa, orotara, 1.630,8 milioi eurokoa izan da 2008. urtean; eta euskara normalizatu eta sustatzeko likidatutakoa, 33,6 milioi euro. Euskarari beraz, aurrekontu osoaren %2,06 eskaini diote. Ikusi berri dugun bezala, ehuneko hau baxuagoa da Bizkaiko eta Arabako udaletan (%1,63 eta %1,38 hurrenez hurren, eta aldiz altuagoa Gipuzkoakoetan (%2,73).

Kopuru absolutuetan, ia 6 milioi euroko igoera izan du 2006tik 2008ra bitartean euskara aurrekontuak (%21,4ean handitu da); eta proportzionalki ere pisua irabazi du aurrekontu osoarekiko (%1,89tik %2,06ra pasa da).

Taulan ikusi bezala halere, euskara aurrekontuaren pisuak egun 2004. urtean zuena baino baxuagoa izaten jarraitzen du ia kasu guztietan (Bizkaiko udalak dira salbuespen bakarrak). Gogoan izan behar dugu halere, lehen bi edizioetarako aurrekontu onartuak erabili zirela, eta azken bietarako likidatuak, eta ezin dugu baztertu aldaketa metodologiko horrek eragin dezakeen sesgoa.

9. Taula: EAEko 5.000 biztanletik gorako herrietako udalen aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2008) lurraldeari jarraiki (hiriburuak salbu)

Erakunde-mota		Urtea	Erakundearen aurrekontu osoa		Euskara aurrekontua		[Euskara aurrekontua/ Aurrekontu osoa] ratioa	
			€	% Δ	€	% Δ	Ratioa (%)	%Δ
< 5.000 biztanletik gorako udalak	GUZTIRA	2002	1.032.231.095		19.816.294		1,92	
		2004	1.196.293.257	15,89	24.763.995	24,97	2,07	7,83
		2006	1.464.583.885	22,43	27.712.886	11,91	1,89	-8,59
		2008	1.630.816.711	11,35	33.644.477	21,40	2,06	9,03
	Arabako Udalak	2002	38.886.741		420.149		1,08	
		2004	37.224.394	-4,27	570.756	35,85	1,53	41,91
		2006	48.263.127	29,65	707.613	23,98	1,47	-4,38
		2008	44.410.346	-7,98	613.699	-13,27	1,38	-5,75
	Bizkaiko Udalak	2002	567.349.325		8.566.012		1,51	
		2004	662.093.080	16,70	10.366.521	21,02	1,57	3,70
		2006	819.205.219	23,73	13.316.110	28,45	1,63	3,82
		2008	934.776.064	14,11	15.237.992	14,43	1,63	0,28
	Gipuzkoako Udalak	2002	425.995.029		10.830.133		2,54	
		2004	496.975.783	16,66	13.826.719	27,67	2,78	9,43
		2006	597.115.540	20,15	13.689.142	-1,00	2,29	-17,60
		2008	651.630.301	9,13	17.792.786	29,98	2,73	19,10

Iturria: Siadeco, 2009.

2.1.5.- HIRIBURUAK

Gasteizko Udalaren 2008. urteko aurrekontu osoa 405 milioi eurokoa izan da, eta euskararen normalizazio eta sustapenera likidatutakoa, 2,9 milioi euro inguru, hau da aurrekontu osoaren %0,73. Orain bi urteko datuekin alderatuta, igo egin da kopuru absolutuetan euskarari eskainitako aurrekontua (%13,22), baina jaitsi egin da aurrekontu osoarekiko proportzionalki euskarari eskainitakoa (%0,81etik, %0,73ra).

Bilboko aurrekontu osoa 543 milioi eurokoa izan da 2008. urtean, eta euskararen normalizazioari eskainitakoa 2,8 milioi euro inguru, hots, aurrekontu osoaren %0,52. Orain bi urteko datuekiko, igo egin da euskarari eskainitakoa, bai kopuru absolutuetan (%28,0 igo da), bai proportzionalki aurrekontu osoarekiko (%0,47tik %0,52ra pasa da).

Donostiako aurrekontu osoa 274 milioi eurokoa izan da 2008. urtean, eta euskararen normalizazio eta sustapenera likidatutakoa ia 2,7 milioi euro inguru, hau da aurrekontu osoaren %0,98. 2006ko datuekiko igo egin da euskarari eskainitakoa, bai kopuru absolutuetan (%20,88 igo da), baita proportzionalki ere zertxobait (%0,97tik %0,98ra pasa da). Honela, hiru hiriburuetatik, Donostia, kopuru absolutuetan euskarari diru gutxien eskaintzen dioena bada ere, proportzionalki aurrekonturik altuena eskaintzen dio.

Beraz, EAEko hiriburuen aurrekontu osoa, orotara, 1.222,7 milioi eurokoa izan da 2008. urtean; eta euskara normalizatu eta sustatzeari eskainitakoa aldiz, 8,5 milioi euro. Euskarari beraz, aurrekontu osoaren %0,69 eskaini diote batez beste. Esan bezala, ehuneko hau baxuagoa da Bilboren kasuan (%0,52), eta altuagoa aldiz Gasteizen eta Donostian (%0,73 eta %0,98 hurrenez hurren).


Kopuru absolutuetan, orotara, %20,30eko igoera izan dute euskara aurrekontuek 2006ko aurrekontuekiko; proportzionalki, euskararen likidatutakoak aurrekontu osoarekiko duen pisua alegia, mantendu egin da (%0,69).

10. Taula: EAEko hiriburuetakoko udalen aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2008)

Erakunde-mota		Urtea	Erakundearen aurrekontu osoa		Euskara aurrekontua		[Euskara aurrekontua/ Aurrekontu osoa] ratioa	
			€	% Δ	€	% Δ	Ratioa (%)	%Δ
Hiriburuak	GUZTIRA	2002	758.041.654		4.580.903		0,60	
		2004	885.081.402	16,76	5.826.286	27,19	0,66	8,93
		2006	1.023.269.625	15,61	7.060.244	21,18	0,69	4,81
		2008	1.222.722.235	19,49	8.493.684	20,30	0,69	0,68
	Gasteiz	2002	244.264.236		1.109.306		0,45	
		2004	250.451.259	2,53	1.882.753	69,72	0,75	65,53
		2006	319.668.270	27,64	2.602.848	38,25	0,81	8,31
		2008	405.128.870	26,73	2.946.925	13,22	0,73	-10,66
	Bilbo	2002	303.872.648		1.184.198		0,39	
		2004	393.709.250	29,56	1.440.765	21,67	0,37	-6,10
		2006	474.718.244	20,58	2.228.239	54,66	0,47	28,27
		2008	543.300.000	14,45	2.852.119	28,00	0,52	11,84
	Donostia	2002	209.904.770		2.287.399		1,09	
		2004	240.920.893	14,78	2.502.768	9,42	1,04	-4,67
		2006	228.883.110	-5,00	2.229.156	-10,93	0,97	-6,25
		2008	274.293.365	19,84	2.694.640	20,88	0,98	0,87

Iturria: Siadeco, 2009.

3. grafikoa: Euskara aurrekontu likidatuen bilakaera (2002-2008), erakunde-motari jarraiki (milioi €)



Iturria: Siadeco, 2009.

2.2.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO SAIL ETA ERAKUNDE ARTEKO DIRU TRANSFERENTZIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko guztien artean euskararako 2008ko aurrekontua kalkulatzeko, (187,5 milioi euro) sail eta erakunde arteko diru-transferentziak kontuan hartu eta gastuen bikoizketa ekiditeko neurriak hartu dira.

Ondorengo taulan, erakunde bakoitzak 2008an euskararen sustapenerako bideratutako aurrekontua batetik, eta aipatu sail eta erakunde arteko diru-transferentziak ageri dira.

Txostenean zehar, datuak erakunde-motaren arabera lantzen direnean, erakunde horiek likidatutako guztirako euskara aurrekontua da azaldu eta aztertzen dena. Hau da, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen euskara aurrekontua kapitulu ekonomikoen arabera, edo EBPN eremuen arabera aztertzerakoan, adibidez, barne hartzen ditugu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, HAEE/IVAPek nahiz foru aldundiek udal hauei egindako diru transferentziak (4,5 milioi euroko diru-transferentziak). Hiriburuen euskara aurrekontua aztertzerakoan ere, beraiek beste erakundeetatik jasotako ia 500 mila euroak ere barne hartzen dira. Eta foru aldundiena aztertzerakoan, beraiek udalei egindako diru-transferentzia horiek ere beraien euskara aurrekontuaren barne aztertzen dira.

Datu globalak edo orokorrak ematerakoan baina, kopuru horiek bikoiztu ez daitezzen (diru-transferentzia egiten duenaren eta jasotzen duenaren diru kopurua bikoiztu ez dadin), hartzaileari nolabait ere "kendu" egiten diogu jasotako transferentziaren kopurua. Honela, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen euskara aurrekontua lantzen dugunean 33,6 milioi euroz ari gara; baina datu orokorretan "euskara aurrekontu bateratuz" ari garenean, udal horiei dagokien euskara aurrekontua 29,1 milioi eurokoa da (beste erakundeetatik jasotzen dituzten 4,5 milioi horiek kenduta, alegia).

Eusko Jaurlaritzako sailen kasuan ere planteamendu bera egin da: sailkako azterketan, sail bakoitzaren euskara aurrekontua da aztertzen dena; baina Eusko Jaurlaritzaren azterketa orokorra egiterakoan, sailen artean dauden diru-transferentzia horiek hartzaileari kendu zaizkio bikoizketak saihesteko.

11. Taula: Eusko Jaurlaritzako sailen artean eta EAEko erakundeen artean, euskara aurrekontuetan izandako diru-transferentziak (2008 urtea) (I)

		Euskara aurrekontua	Jasotako diru transferentzia				
Eusko Jaurlaritza	Kultura.....	56.598.909	-				
	HABE	41.170.686	Kultura	IVAP/ HAEE	Hezkuntza	E.J.ko gainerako sailak	GUZTIRA
			28.039.100	9.817.857	1.469.149	1.701.048	41.027.154
	Ogasuna	16.251.565	-				
	HAEE/IVAP	14.110.770	Ogasun Saila		GUZTIRA		
			16.147.840		16.147.840		
	Hezkuntza.....	53.464.053	-				
	Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza.....	3.369.393	-				
	Lehendakaritza.....	99.770	-				
	Herrizaingo Saila.....	106.837	-				
	Herrizaingo Saila-Laboralak	266.245	-				
	Garraio eta Herri-Lan saila	150.187	-				
	Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	162.183	-				
	Osasun eta Kontsumo Saila.....	235.466	-				
	Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.....	107.550	-				
	Euskal Herriko Polizia Ikastegia	771.839	-				
	ERTZAINZA	456.973	-				
	EUSTAT	68.182	-				
	EMAKUNDE	146.003	-				
OSALAN.....	55.600	-					

12. Taula: Eusko Jaurlaritzako sailen artean eta EAEko erakundeen artean, euskara aurrekontuetan izandako diru-transferentziak (2008 urtea) (II)

		Euskara aurrekontua	Jasotako diru transferentzia					
Foru Aldundiak	Arabako Foru Aldundia	2.039.854	-					
	Bizkaiko Foru Aldundia	10.785.052	-					
	Gipuzkoako Foru Aldundia	7.101.559	-					
> 5.000 biztanlez gorako udalak		33.644.477	Kultura Saila	HAE/IVAP	Arabako F.A.	Bizkaiko F.A.	Gipuzkoako F.A.	GUZTIRA
Foru Aldundiek berriz 3,74 euro biztanleko erabili dituzte elikadurarako, 3,61 egitasmo edota gastu orokorretarako, 1,78 erabilerarako eta 0,22 ondorengoetaratzerako.

5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalek biztanleko euskarari eskainitako 29,54 eurotatik, ia 11 euskalduntze-alfabetatzeari eskainitakoak dira, 8,1 erabilerari eta 4,6 elikadurari. Egitasmo edo gastu orokorretan erabiltzen dira gainerako 5,81 euro biztanleko.

Hiru hiriburuek, biztanleko eskainitako 11,15 eurotatik, 3,15 egitasmo edota gastu orokorretan erabiltzen dira, 3,08 erabileraren ildora zuzendutako ekimenetan, 2,83 ondorengoetaratzean eta 2,10 elikaduran.

26. Taula: Euskara aurrekontuak biztanleko, eremuari eta erakunde-motari jarraiki

	Eusko Jaurlaritza (transferentzia k kenduta)	Foru Aldundiak	5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak	Hiriburuak	GUZTIRA (transferentziak kenduta; aurrekontu bateratua)
	€/biztanleko	€/biztanleko	€/biztanleko	€/biztanleko	€/biztanleko
Irakaskuntza	18,63	0,05	1,88	1,29	20,15
Euskalduntze-alfabetatzea	18,07	0,16	8,40	1,38	23,22
Familia bidezko jarraipena	-	0,01	0,69	0,15	0,43
I.- ONDORENGOETARATZEA	36,7	0,22	10,98	2,83	43,8
Administrazioa	2,62	1,09	2,46	0,9	4,47
Teknologia berriak	1,37	0,15	0,23	0,16	1,7
Lan-arloa	1,35	0,41	0,93	0,34	2,38
Aisia, kirola eta erlijioa	0,07	0,13	4,53	1,68	3,22
II. - ERABILERA	5,41	1,78	8,14	3,08	11,77
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	1,49	1,58	0,49	0,25	3,42
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,..)	2,92	0,97	2,07	0,35	5,12
Liburugintza	0,52	0,41	0,39	0,26	1,23
Publizitatea	0,02	0,14	0,07	-	0,19
Kulturgintza	0,27	0,63	1,59	1,25	2,2
III.- ELIKADURA	5,21	3,74	4,60	2,1	12,16
GUZTIRA I+II+III	47,32	5,75	23,72	8	67,74
Euskara atalaren zuzendaritza, koordinazioa, administrazio eta bestelako kudeaketa lanak ...	11,14	1,26	4,29	2,76	15,69
EBPNren kudeaketa	0,38	1,48	0,60	-	0,75
Azterketa soziolinguistikoak edota ikerketa orokorrak	0,58	0,02	0,10	-	0,65
Informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak	0,86	0,14	0,19	0,39	1,24
Bestelako dirulaguntza, egitasmo eta gastu orokorrak	0,97	0,7	0,63	-	1,98
EGITASMO EDOTA GASTU OROKORRETAN GUZTIRA	13,93	3,61	5,81	3,15	20,31
GUZTIRA	61,25	9,36	29,54	11,15	88,05

Iturria: Siadeco, 2009.


4.3.- EUSKARA AURREKONTUEN EREMUKAKO BANAKETA: 2006-2008 BILAKAERA

EAEko erakunde publiko guztien euskara aurrekontuaren bilakaera aztertuko dugu jarraian, hizkuntza normalkuntzako eremuari jarraiki (2006 eta 2008koak konparatuko ditugu, 2002 eta 2004. urtekoek bestelako sailkapen bat zerabiltelako).

Hasteko esan kopuru absolutuetan, eremu guztietan 2008. urtean likidatutakoa gehiago izan dela orain 2 urte baino, bi salbuespenekin: familia bidezko jarraipena eta bestelako dirulaguntza, egitasmo eta gastu orokorrak. Bi eremu hauei orain bi urte diru-baliabide gehiago eskaini zitzaizkien 2008. urtean baino.

Eremuen araberrako banaketa portzentualean, 2 eremutan ageri zaizkigu alderik handienak: euskalduntze-alfabetatzean eta euskara atalaren zuzendaritza, koordinazioa eta kudeaketan. Honela, euskalduntze alfabetatzeari eskainitakoa 5 puntuz jaitsi da (%31,5etik %26,4ra-diru kopuru absolutuetan zertxobait gora egin duen arren); eta aldiz euskara atalaren zuzendaritza, koordinazioa eta kudeaketari eskainitakoa igo egin da %15,4tik %17,8ra. Igoera honen atzean dauden arrazoiak aipatuz, batetik, ikerketa honetan lehen aldiz aztertu den Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza sailaren euskara plana daukagu (3.090.000 euro); bestetik, Kultura Sailari dagokionez, 2006 urteko ikerketan bestelako gastu bezala sailkatutako pertsonal gastuak, oraingo honetan euskara atalaren zuzendaritza, koordinazio eta kudeaketan kokatu dira (sailkapen orokorra ez da aldatzen, bi kasuetan egitasmo edota gastu orokor modura kontsideratzen baita, baina azpisailkapena, nolabait esatearren, aldatu egin da); azkenik, HAEEK atal honetara bideratutako kopurua 1,8 milioi eurokoa izatetik 2,4 milioi euro izatera pasa da.

16. Grafikoa: Euskararen sustapenerako biztanle bakoitzeko Eusko Jaurlaritzak eta EAEko erakunde guztiek likidatutako aurrekontua, hizkuntza-normalkuntzako eremua eta lurraldeari jarraiki (2006-2008) (€ biztanleko)



27. Taula: EAEko erakunde publiko guztien euskara aurrekontuaren bilakaera (2006-2008), EBPnko eremuei jarraiki (aurrekontu bateratua)

	2006		2008	
	Guztira (aurrekontu bateratua)		Guztira (aurrekontu bateratua)	
	euroak	%	euroak	%
Irakaskuntza	35.333.928	23,1	42.898.081	22,9
Euskalduntze-alfabetatzea	48.115.118	31,5	49.448.964	26,4
Familia bidezko jarraipena	1.209.166	0,8	919.425	0,5
I .- ONDORENGOETARATZEA	84.658.212	55,4	93.266.470	49,7
Administrazioa	7.909.938	5,2	9.527.881	5,1
Teknologia berriak	1.675.138	1,1	3.613.789	1,9
Lan-arloa	3.828.967	2,5	5.071.123	2,7
Aisia, kirola eta erlijioa.....	3.831.267	2,5	6.857.561	3,7
II. - ERABILERA	17.245.310	11,3	25.070.354	13,4
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	6.798.267	4,4	7.283.276	3,9
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,..)	8.396.534	5,5	10.905.680	5,8
Liburugintza	1.440.548	0,9	2.625.904	1,4
Publizitatea	212.763	0,1	405.282	0,2
Kulturgintza	4.241.994	2,8	4.675.316	2,5
III .- ELIKADURA	21.090.106	13,8	25.895.458	13,8
GUZTIRA I+II+III	122.993.628	80,5	144.232.282	76,9
Euskara atalaren zuzendaritza, koordinazioa, administrazio eta bestelako kudeaketa lanak.....	23.511.416	15,4	33.410.904	17,8
EBPNren kudeaketa.....	674.099	0,4	1.594.672	0,9
Azterketa soziolinguistikoak edota ikerketa orokorrak	543.848	0,4	1.393.881	0,7
Informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak.....	630.061	0,4	2.646.570	1,4
Bestelako dirulaguntza, egitasmo eta gastu orokorrak	4.484.835	2,9	4.211.354	2,2
EGITASMO EDOTA GASTU OROKORRETAN GUZTIRA	29.844.259	19,5	43.257.381	23,1
GUZTIRA	152.837.887	100,0	187.489.663	100,0

Iturria: Siadeco 2009.

Erakunde-motari jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, eta hurbilpen modura (unibertsoa ez baita bera):

- Ondorengoetaratzera zuzendutako ehunekoak behera egin badu ere (%69,1etik %59,9ra jaitsi da), kopuru absolutuetan gora egin du lan ildo honetara zuzendutako diru kopuruak (zehazki, 5 milioi euro inguru gehiago eskaini zaizkio irakaskuntzari).
- Proporzionalki igo da euskara atalaren zuzendaritza eta koordinazioari eskainitakoa (%18,2), eta baita administrazioari eskainitakoa ere (%4,3).

Foru Aldundien kasuan aipatu:

- Nabarmen igo da EBPNren kudeaketari eskainitako portzentajea (%2tik %15,9ra, alegia), eta maila apalagoan bada ere, baita bestelako dirulaguntza, egitasmo eta gastu orokorretan likidatutakoa (%7,5).
- Jaitsi egin da aldiz, administrazioari eskainitakoa %22,8tik %11,7ra, eta corpus-plangintza eta euskararen kalitateari eskainitakoa %20,7tik %16,9ra.


5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen kasuan aipatu:

- Proporzionalki, altuagoa da 2008. urteko euskara aurrekontuetan erabileraren helburu duten ildoei eskainitako aurrekontua: administrazioaren eta aisia, kirola eta erlijioaren eremuan izandako igoerek eraginda.
- Zertxobait baxuagoa da aldiz proporzionalki, bai elikadurari eta baita egitasmo edota gastu orokorrei eskainitakoa: kultur gintzaren eremuan izandako beherakadak eta euskara atalaren zuzendaritza, koordinazioa eta kudeaketan gertatutakoak eragin dute jaitsiera.

Eta azkenik, hiriburuen kasuan:


- Nabarmen igo da erabileraren eremuari eskainitako aurrekontuaren portzentajea, eta horrek gainerako 3 eremuetan portzentajeak jaitea eragin du: izan ere aisia, kirola eta erlijioaren eremuan %3,7tik %15,1era pasa gara, batez ere Gasteizko Udalak eremu horretan izandako igoerarengatik.
- Bestalde, altuagoa izan da ere informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrei eskainitakoa (%3,5).
- Baxuagoa da aldiz, portzentualki eremu zehatz hauei eskainitako diru-baliabideak: familia bidezko jarraipena, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, EBPNren kudeaketa eta bestelako dirulaguntza, egitasmo eta gastu orokorrak.

17. Grafikoa: euskararen sustapenerako biztanle bakoitzeko foru aldundiek likidatutako aurrekontua, hizkuntza-normalkuntzako eremua eta lurraldeari jarraiki (2006-2008) (€ biztanleko)




Iturria: Siadeco, 2009.

18. Grafikoa: Euskararen sustapenerako biztanle bakoitzeko udalek batez beste likidatutako aurrekontua, hizkuntza-normalkuntzako eremua eta lurraldeari jarraiki (2006-2008) (€ biztanleko)



Iturria: Siadeco, 2009.

19. Grafikoa: Euskararen sustapenerako biztanle bakoitzeko hiriburuek likidatutako aurrekontua, hizkuntza-normalkuntzako eremua eta lurraldeari jarraiki (2006-2008)(€ biztanleko)



Iturria: Siadeco, 2009.

28. Taula: Euskara aurrekontuaren bilakaera (2006-2008), erakunde mota eta hizkuntza normalkuntzako eremuei jarraiki

	Eusko Jaurlaritzza (bateratua)		Foru Aldundiak		Udalak		Hiriburuak		Guztira (aurrekontu bateratuak)	
	2006	2008	2006	2008	2006	2008	2006	2008	2006	2008
Irakaskuntza.....	32,5	30,4	1,3	0,5	5,4	6,4	11,7	11,6	23,1	22,9
Euskalduntze-alfabetatzea.....	36,6	29,5	0,6	1,7	29,5	28,4	11	12,4	31,5	26,4
Familia bidezko jarraipena.....	0,1	-	-	0,1	2,8	2,3	6,5	1,4	0,8	0,5
I. - ONDORENGOETARATZEA	69,1	59,9	1,9	2,4	37,7	37,2	29,2	25,3	55,4	49,7
Administrazioa	2,6	4,3	22,8	11,7	4,6	8,3	7,8	8,1	5,2	5,1
Teknologia berriak.....	0,8	2,2	3	1,6	0,9	0,8	1,7	1,4	1,1	1,9
Lan-arloa	2,2	2,2	3,1	4,3	3,7	3,2	1,6	3,1	2,5	2,7
Aisia, kirola eta erlijioa	0,4	0,1	0,8	1,4	13	15,3	3,7	15,1	2,5	3,7
II. - ERABILERA	6	8,8	29,8	19	22,2	27,6	14,9	27,6	11,3	13,4
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea.....	2,7	2,4	20,7	16,9	1,4	1,6	4,8	2,2	4,4	3,9
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,..).....	4,6	4,8	10,3	10,4	7,3	7	3	3,1	5,5	5,8
Liburugintza.....	0,3	0,8	4,8	4,4	1,4	1,3	2,4	2,3	0,9	1,4
Publizitatea	-	-	0,7	1,5	0,5	0,2	-	-	0,1	0,2
Kulturgintza	0,9	0,4	4,9	6,8	7,1	5,4	12,5	11,2	2,8	2,5
III. - ELIKADURA	8,4	8,5	41,5	40	17,7	15,6	22,7	18,8	13,8	13,8
GUZTIRA I+II+III	83,5	77,3	73,2	61,4	77,6	80,3	66,8	71,8	80,5	76,9
Euskara atalaren zuzendaritza, koordinazioa, administrazio eta bestelako kudeaketa lanak ..	13	18,2	17,7	13,5	18,3	14,5	26,6	24,8	15,4	17,8
EBPNren kudeaketa	0,1	0,6	2	15,9	1,3	2	4,2	-	0,4	0,9
Azterketa soziolinguistikoak edota ikerketa orokorrak.....	0,4	0,9	0,5	0,2	0,2	0,3	0,1	-	0,4	0,7
Informazio, sensibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak	0,1	1,4	1,3	1,5	1	0,6	0,5	3,5	0,4	1,4
Bestelako dirulaguntza, egitasmo eta gastu orokorrak.....	2,9	1,6	5,2	7,5	1,6	2,1	1,8	-	2,9	2,2
EGITASMO EDOTA GASTU OROKORRETAN GUZTIRA	16,4	22,7	26,8	38,6	22,4	19,7	33,2	28,2	19,5	23,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100	100

Iturria: Siadeco, 2009.

Udalerrian EBPn garatzeko ereduaren arabera, aurrekontuen bilakaera eremuari jarraiki aztertuz, aipatu, A1 udalerrietan:

- Altuagoa da 2008. urtean egitasmo edota gastu orokorretarako erabilitako aurrekontuaren portzentajea, eta baxuagoa aldiz ondorengoetaraztea, erabilera nahiz elikadura helburu duten ildoetara zuzendutakoa.
- Igoera izan duten eremuak EBPnren kudeaketa (%4,9), eta batik bat bestelako dirulaguntza, egitasmo eta gastu orokorrak izan dira (%13).

A2 udalerrietan:

- Igo egin da bai ondorengoetaraztea bai erabilera helburu duten ildoei eskainitakoa: horien atzean, euskalduntze alfabetatzeak (%70,1) eta administrazioak (%15,8) izandako igoerak agertzen dira.
- Jaitsi egin da aldiz, bai elikadurara eskainitakoa (kulturgintza %8,4tik %2,7ra pasa da), bai egitasmo orokorrei eskainitakoa (atalaren zuzendaritza eta koordinazioa %19,6tik %6,2ra pasa da).

B1 udalerrietan:

- Aisia, kirola eta erlijioak aurrekontuetan izandako igoerari esker (%16,5etik %23,9ra pasa da), igo egin da erabilerari eskainitakoa.
- Altuagoa da ere euskalduntze alfabetatzeari eskainitakoa (%19,6ik %22,9ra pasa da), baina irakaskuntzari eskainitakoa jaitsi denez, mantendu egiten da ondorengoetaratzeari zuzendutakoa.
- Jaitsi egiten da ere EBPnren kudeaketari eskainitakoa (%5,9tik %0,9ra), eta honekin, egitasmo edota gastu orokorrei eskainitakoa.

C1 udalerrietan:

- Igo egiten da erabilerari eskainitakoa, administrazioaren eremuan eta aisia, kirola eta erlijioaren eremuan izandako igoerak eraginda.
- Egitasmo edota gastu orokorretan behera egiten dute portzentajeek, euskararen atalaren zuzendaritza, koordinazioa eta kudeaketari eskainitako ehunekoa %18,0tik %13,5era jaitsi baita.


C2 udalerrietan:

- Igoera txikia ematen da ondorengoetaratzean, irakaskuntzak izan duen gorakadak eraginda (%4,4tik %7,8ra pasaz).
- Gainerako eremuetan, portzentajeak ia egonkor mantentzen dira.

D udalerrietan:

- Gora egiten du erabileraren eremuari eskainitakoak, batik bat administrazioari (%3,8tik %8,6ra) eta aisia, kirola eta erlijioari esker (%4,3tik %7,5ra).
- Bestalde, jaitsi egiten da egitasmo edota gastu orokorrei eskainitakoa, batik bat euskara atalaren zuzendaritza, koordinazioa eta kudeaketa %25,2tik %20,5era pasa delako, baina baita bestelako dirulaguntza, egitasmo eta gastu orokorrak %3,1etik %0,9ra pasa direlako.

20. Grafikoa: Biztanle bakoitzeko udalek erabilitako aurrekontu likidatua, udalerrien tamaina eta gune soziolinguistikoari jarraiki (€ biztanleko)



Iturria: Siadeco, 2009.

29. Taula: Aurrekontuen bilakaera, eremuari jarraiki, EBPN udalerrietan garatzeko ereduaren arabera (2006-2008) (%)

	A1		A2		B1		B2		C1		C2		D		GUZTIRA	
	2006	2008	2006	2008	2006	2008	2006	2008	2006	2008	2006	2008	2006	2008	2006	2008
Irakaskuntza	9,1	8,8	1,6	0,6	11,9	6,6	5,6	5,7	4,3	7,6	4,4	7,8	4,8	6,6	5,4	6,4
Euskalduntze-alfabetatzea	22,4	22,9	60,5	70,1	19,6	22,9	38,7	34,1	16,9	12,1	24,3	23,4	17,5	17,7	29,5	28,4
Familia bidezko jarraipena	9,0	3,0	-	0,3	3,2	4,7	2,9	2,5	2,3	1,8	2,2	1,9	3,5	3,3	2,8	2,3
I .- ONDORENGOETARATZEA	40,5	34,7	62,1	70,9	34,7	34,2	47,2	42,3	23,5	21,5	31,0	33,0	25,8	27,7	37,7	37,2
Administrazioa	8,6	7,6	5,9	15,8	2,5	3,1	3,5	9,4	6,9	10,9	5,5	5,6	3,8	8,6	4,6	8,3
Teknologia berriak	0,4	-	-	-	0,9	-	0,4	0,5	1,5	1,6	1,9	0,9	0,4	1,5	0,9	0,8
Lan-arloa	1,6	-	-	0,1	0,2	2,0	4,1	2,9	5,3	4,7	2,0	2,2	9,5	7,9	3,7	3,2
Aisia, kirola eta erlijioa	11,3	11,5	3,8	1,0	16,5	23,9	12,2	15,6	17,0	22,2	18,0	18,1	4,3	7,5	13,0	15,3
II. - ERABILERA	21,9	19,2	9,7	16,9	20,1	29,0	20,2	28,5	30,6	39,5	27,4	26,9	18,0	25,5	22,3	27,6
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	0,2	0,6	-	-	1,7	0,2	0,7	1,8	2,6	2,2	2,2	1,7	1,8	2,5	1,4	1,6
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,..)	1,1	1,2	-	-	2,5	4,1	3,0	2,9	12,9	9,6	11,2	10,8	14,2	13,5	7,3	7,0
Liburugintza	-	1,7	0,1	-	1,3	1,8	0,8	1,0	0,3	1,4	2,8	1,9	1,7	1,2	1,4	1,3
Publizitatea	2,0	0,1	-	-	0,2	0,5	0,4	0,2	1,1	0,5	0,4	0,2	0,1	0,2	0,5	0,2
Kulturgintza	16,2	11,6	8,4	2,7	8,6	5,7	7,7	4,6	5,1	6,1	4,9	6,1	7,7	5,1	7,1	5,4
III .- ELIKADURA	19,5	15,2	8,5	2,7	14,3	12,3	12,6	10,6	21,9	19,7	21,5	20,7	25,6	22,5	17,6	15,6
GUZTIRA I+II+III	81,9	69,1	80,3	90,5	69,1	75,4	80,0	81,3	76,0	80,7	79,8	80,6	69,5	75,7	77,6	80,3
Euskara atalaren zuzendaritza, koordinazioa, administrazio eta bestelako kudeaketa lanak	15,9	11,4	19,6	6,2	21,9	19,7	17,5	14,6	18,0	13,5	15,3	13,5	25,2	20,5	18,3	14,5
EBPNren kudeaketa	-	4,9	-	-	5,9	0,9	-	2,3	3,2	2,3	1,5	2,2	1,8	2,0	1,3	2,0
Azterketa soziolinguistikoak edota ikerketa orokorrak	-	-	-	2,1	0,1	0,1	0,2	0,1	0,3	0,3	0,4	0,5	0,1	0,1	0,2	0,3
Informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak	0,2	1,6	-	-	-	0,6	0,2	0,2	1,7	0,1	2,6	1,3	0,3	0,8	1,0	0,6
Bestelako dirulaguntza, egitasmo eta gastu orokorrak	1,9	13,0	-	1,2	3,0	3,3	2,1	1,6	0,9	3,1	0,4	1,9	3,1	0,9	1,6	2,1
EGITASMO EDOTA GASTU OROKORRETAN GUZTIRA	18,0	30,9	19,6	9,5	30,9	24,6	20,0	18,7	24,1	19,3	20,2	19,4	30,5	24,3	22,4	19,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

5.

EUSKARA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK EAEko ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

5.1.- EAEko ERAKUNDE PUBLIKOAK OROTARA

Txostenaren bosgarren atal honetan Euskal Autonomia Erkidegoko toki, lurralde eta herri-erakunde desberdinek, euskararen sustapenerako bideratzen dituzten dirulaguntza eta hitzarmenen azterketa egin da.

2008. urtean zehar orokorrean euskararen sustapenerako administrazio publikoak jarritako 187,5 milioi eurotatik, 98,5 milioi euro pasatxo dirulaguntza edota hitzarmenen bitartez banatu dira, beraz, aurrekontu osoaren erdia baino zerbait gehiago (%52,6).

Dirulaguntza eta hitzarmenentarako administrazio publikoak erabilitako aurrekontu osoaren hiru laurden baino gehixeago (%77,1) Eusko Jaurlaritzak jartzen du (hau da 76,1 milioi euro), %13,2 foru aldundiek (13 milioi), %2,1 hiriburuek (2 milioi) eta %7,6 5.000 biztanlez gorako udalerriek (7,5 milioi).


Dirulaguntza eta hitzarmenek erakunde bakoitzaren euskararen aurrekontu osoarekiko duten pisua nabarmen aldatzen da administrazio maila desberdinen artean:

- Udalerri gairik handiena, hau da, Eusko Jaurlaritzan eta oraindik modu nabarmenagoan foru aldundietan, euskara aurrekontuen erdia baino gehiago helburu honetarako erabiltzen da: %58,4 eta %65,5 hurrenez hurren.
- Aldiz, udalerrietan pisu hori askoz txikiagoa da, (%22-%24 ingurukoa hain zuzen ere), bai hiriburuetan bai 5.000 biztanlez gorako udalerrietan.

Dirulaguntza eta hitzarmenen bitartez euskararen sustapenerako 2008. urtean administrazio publiko desberdinek bideratutako baliabideak biztanleriaren artean zatituz gero 46,3 €/biztanleko ratio orokorra ateratzen da.

Kopuru horren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzak berak jartzen du; hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzak 35,74 €/biztanleko jartzen ditu, eta gainerako erakunde publikoak ez dira 7 €/biztanleko ratoria iristen: 6 € pasatxo foru aldundien eta 5.000 biztanlez gorako udalerrien kasuan eta 2,67€ hiriburuaren kasuan.

21. grafikoa: Euskararen sustapenerako 2008ko EAEko administrazio publikoen dirulaguntza eta hitzarmenen aurrekontuen banaketa, erakunde-motari jarraiki (%)



Iturria: Siadeco, 2009.

30. Taula: Dirulaguntza eta hitzarmenen aurrekontu orokorra (2008)

	Dirulaguntza eta hitzarmenak			
	Guztira		Euskara aurre- kontuarekiko %	Aurrekontua biztanleko (€)
	€	%		
Eusko Jaurlaritza	76.111.690	77,1	58,36	35,74
Foru Aldundiak	13.052.156	13,2	65,50	6,13
Hiriburuak	2.035.483	2,1	23,96	2,67
5.000 biztanlez gorako udalerriak	7.474.858	7,6	22,22	6,56
GUZTIRA	98.674.187	100,0	51,26	46,34

Iturria: Siadeco, 2009.

Oharra: aurrekontua/biztanleko ratioa, EAE mailan kalkulatzekoan hurbilpena da (ez baititugu kontuan hartzen 5.000 biztanlez beherako herriak), eta EAEko biztanleria osoarekiko kalkulaturik dago.

5.2.- DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK ERAKUNDE MOTARI JARRAIKI

Dirulaguntza eta hitzarmenen aurrekontuak administrazioaren maila desberdinetan gehiago desglosatu eta zehaztuz gero honako alderdiak azpimarra daitezke:

- Erakundearen arabera, dirulaguntza eta hitzarmenek oso pisu desberdina dute euskara aurrekontu osoarekiko: Kasu batzuetan, euskara aurrekontuaren zatirik handiena (erdia baino gehiago behintzat) dirulaguntza eta hitzarmenetan erabiltzen da. Adibidez: Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan %83,4, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren kasuan %60,0 inguru.
- Beste batzuetan %25-%30 inguru erabiltzen da dirulaguntza eta hitzarmenatarako. Hala nola: Gipuzkoako udalak, Arabako Foru Aldundia, Bilbo eta Gasteiz.
- Eta aldiz, badira bere euskara aurrekontuaren %20 edo gutxiago eskaintzen dituztenak dirulaguntza eta hitzarmenetan. Adibidez: Donostia eta Bizkaiko eta Arabako udalak.
- Datuok erakunde-mota baten barnean aztertuz ere ondorioak bertsuak dira: Dirulaguntza eta hitzarmenek oso pisu desberdina dute foru aldundien euskara aurrekontuetan: Gipuzkoako Foru Aldundian %83,4 (beraz gehiago oso nabarmena), Bizkaikoan %60,2 eta Arabakoan aldiz %31,4. €/biztanleko ratioetan ere antzeko joera antzematen da.
- 5.000 biztanlez gorako udalerri dagokienean, Gipuzkoakoetan dirulaguntza eta hitzarmenek beste lurraldetako udalerrietan baino garrantzia nabarmenagoa dute, beren euskara aurrekontu osoaren %30,8 honetara bideratzen baitute. Araba eta Bizkaiko udalerrietan aldiz, proportzio hori %12 ingurukoa da. €/biztanleko ratioetan aldeak ere oso nabarmenak dira: Gipuzkoako udaletan askoz altuagoa ateratzen da (12,5€) Bizkaia eta Arabakoetan baino (ia 3€).
- Hiriburuen kasuan, Bilbo da dirulaguntza eta hitzarmenei proportzionalki gehien eskaintzen diona (bere euskara aurrekontu osoaren %28,2), ondoren Gasteiz (%23,5) eta gero Donostia (%20,0). Hala ere, aurrekontu/biztanleko ratioari dagokionean aldeak ez dira hain nabarmenak eta posizioak ere aldatu egiten dira: horrela ratioirik handienak Gasteizen eta Donostian ateratzen dira (3€ inguru) eta ondoren Bilbon (2,3€).

3 I. Taula: Euskararen sustapenerako dirulaguntza eta hitzarmenen aurrekontua, erakunde motari jarraiki (2008)

	Dirulaguntza eta hitzarmenak			
	Guztira		Euskara aurrekontuarekiko % (transferentziak kendu gabe) 192 m	Aurrekontua biztanleko (€)
	€	%		
Eusko Jaurlaritza	76.111.690	77,1	58,36	35,74
Foru Aldundiak	13.052.156	13,2	65,50	6,13
Arabako Foru Aldundia	640.978	0,6	31,42	2,10
Bizkaiko Foru Aldundia	6.487.894	6,6	60,16	5,71
Gipuzkoako Foru Aldundia	5.923.284	6,0	83,41	8,63
Hiriburuak	2.035.483	2,1	23,96	2,67
Bilbo	804.236	0,8	28,20	2,29
Donostia	537.950	0,5	19,96	2,98
Gasteiz	693.297	0,7	23,53	3,02
5.000 biztanlez gorako udalerriak	7.474.858	7,6	22,22	6,56
Araba (2 udal)	74.711	0,1	12,17	2,65
Bizkaia (32 udal)	1.919.634	1,9	12,60	2,84
Gipuzkoa (30 udal)	5.480.513	5,6	30,80	12,59
GUZTIRA	98.674.187	100,0	51,26	46,34

Iturria: Siadeco, 2009.

5.3.- DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK UDALERRIETAN BIZTANLERIA ETA GUNE SOZIOLINGUISTIKOARI JARRAIKI

5.000 biztanlez gorako udalerriek dirulaguntza eta hitzarmenen bitartez bideratutako aurrekontuak (7,5 milioi €), herrien tamaina eta biztanleria euskaldunaren arabera multzokatzea eginda, emaitza nagusienak ondokoak dira:

- C2 multzoa da (udalerrri handi nahiko euskaldunak eta gehienak Gipuzkoakoak) euskara aurrekontu osoaren proportzio adierazgarriena dirulaguntza eta hitzarmenetara bideratzen duena: herena hain zuzen ere (%33,3)
- Euskara aurrekontu osoaren %22-%24 inguru dirulaguntza eta hitzarmenetarako erabiltzen dutenak ondokoak dira: B1, C1 eta D multzoak.
- A1 eta B2 multzoetan dirulaguntza eta hitzarmenek euskara aurrekontu osoarekiko duten pisua %13-%16 ingurukoa da.
- A2 multzoan (Nerbioi ezkeraldeko udalerrri handi ez euskaldunak) dirulaguntza eta hitzarmenen pisua ez da aurrekontu osoaren %4 izatera iristen.

Aurrekontu/biztanleko ratioak ere, antzeko joerak erakusten ditu ereduaren arabera.

32. Taula: Euskararen sustapenerako dirulaguntza eta hitzarmenen aurrekontua, udalerrien tamaina eta gune soziolinguistikoari jarraiki (2008)

EBPNko ereduak	Udalerriaren tamaina eta biztanleria euskaldunaren %	Dirulaguntza eta hitzarmenak			Udalerri-multzoa
		Guztira (€)	Euskara aurrekontuarekiko % (transferentziak kendu gabe)	Aurrekontua biztanleko (€)	
A1 (ertain ez euskaldunak)	5.000-10.000 biztanle; euskaldunak <%15	122.568	13,37	3,23	Etxebarri, Gueñes, Ortuella, Balmaseda eta Zalla
A2 (handi ez euskaldunak)	> 10.000 biztanle; euskaldunak <%15	87.623	3,76	0,38	Barakaldo, Portugalete, Trapagaran, Santurtzi eta Sestao
B1 (ertain erdi-euskaldunak)	5.000-10.000 biztanle; euskaldunak %15-%50	473.969	23,84	8,98	Amurrio, Abanto-Zierbena, Berango, Gorliz, Muskiz, Derio eta Zumarraga
B2 (handi erdi-euskaldunak)	> 10.000 biztanle; euskaldunak %15-%50	1.783.193	16,04	4,20	Laudio, Arrigorriaga, Basauri, Durango, Ermua, Galdakao, Getxo, Leioa, Sopelana, Erandio, Irun, Pasaia, Errenteria eta Lasarte-Oria
C1 (ertain nahikoa euskaldunak)	5.000-10.000 biztanle; euskaldunak %50-%70	702.680	23,80	10,38	Abadiño, Elorrio, Aretxabaleta, Lazkao, Legazpi, Lezo, Urnieta, Villabona, Ordizia eta Urretxu
C2 (handi nahikoa euskaldunak)	> 10.000 biztanle; euskaldunak %50-%70	3.402.304	33,31	16,82	Amorebieta-Etxano, Gernika-Lumo, Mungia, Andoain, Beasain, Eibar, Elgoibar, Hondarribia, Hernani, Arrasate, Tolosa eta Bergara
D (oso euskaldunak)	Euskaldunak >%70	902.521	21,89	7,52	Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Azkoitia, Azpeitia, Deba, Oñate, Oiartzun, Usurbil, Zarautz eta Zumaia
GUZTIRA		7.474.858	22,22	6,56	

Iturria: Siadeco, 2009

5.4.- DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK EREMUARI ETA ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI

EBPNren lan-ildo nagusiei erreparatuz, ondorengoetaratzera 50,3 milioi euro zuzendu dira, beraz aurrekontu osoaren erdia pasatxo (%51,0), euskararen elikadurara 18,6 milioi (%18,9) eta erabileraren sustapenera 13,6 milioi (%13,8).

EBPNren eremu jakin batean sailkatzeko oso zailak edo ezinezkoak diren dirulaguntza eta hitzarmenak (ildo bati baino gehiagori eragiten dielako) "dirulaguntza eta hitzarmen orokorrak" izeneko atal batean sartu dira (adibidez: toki entitateetan EBPN garatzeko laguntzak, euskararen sustapenerako elkarte eta erakundeentzako laguntzak, hizkuntza sentsibilizaziorako komunikazio ekintza orokorretarako laguntzak...). Atal honetara guztira 16 milioi euro bideratu dira (aurrekontu osoaren %16,3).

Dirulaguntza eta hitzarmenetako aurrekontua EBPNren eremuen eta erakunde-motaren arabera nola banatu den aztertuz gero, honakoak azpimarra daitezke:

- Oso nabarmena da euskalduntze-alfabetatzearekin zerikusia duten dirulaguntza eta hitzarmenen garrantzia ekonomikoa: 42,1 milioi horretara bideratu baitira, hau da aurrekontu osoaren %42,7.
 - Erakundeen arabeko banaketa: euskalduntze-alfabetatzeari dagokion aurrekontu osoaren %72 (hau da, 30,3 milioi €) HABEri dagokio eta %23,3 IVAP-HAEEri (9,8 milioi). Azken honen kasuan, HABE-IVAP herri administrazioetako langileak euskalduntzeko hitzarmenez ari gara. Beraz, dirulaguntza eta hitzarmenen bidez eremu honetara bideratutako baliabide ekonomiko ia guztiak Eusko Jaurlaritzatik eratorriak dira.
 - Dirulaguntza deialdi nagusienak: HABEren bitartez euskaltegi pribatuei emandakoak (19 milioi), euskaltegi publikoei (10 milioi), IVAP-HAEEk HABErekin duen hitzarmena administrazio publikoko langileen euskalduntzeari aurre egiteko (10 milioi), HABEren euskara ikasleentzako dirulaguntzak (1,3 milioi) eta euskara ikastegatik euskara ikasleei zuzendutako bestelako diru partida nagusienak: Bilboko Udala (322 mila), Donostiako Euskara Patronatua (214 mila) eta Vitoria-Gasteizko Udala (76 mila).

- “Bestelako dirulaguntza eta hitzarmen orokor” gisa sailkatu direnen guztirakoa 16,1 milioi eurokoa da, aurrekontu osoaren %16,3.
 - Erakundeen araberako banaketa eginda:
 - 9,8 milioi Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarenak dira (%61,1). Pisurik handiena duten partidak zehaztearren: EHIK, NIE, Seaska eta Baigorri dirulaguntzak (3,3 milioi euro), hizkuntza sentsibilizazio eta komunikazioarako ekintza orokorretarako laguntzak (1,7 milioi euro), “euskara gizarte bizitzan” dirulaguntza programa (1,3 milioi euro).
 - 5,7 milioi foru aldundienak (%35,7): Bizkaiko Foru Aldundiaren “toki-entitateetan EBPN garatzeko dirulaguntzak” (2,4 milioi euro) eta “euskara elkarteentzako dirulaguntzak” (2,2 milioi euro).
 - EBPNren eremu zehatzen arabera, partida nagusien banaketa:
 - 4,4 milioi euro (aurrekontu osoaren %4,5) euskara elkarte eta bestelako elkarte pribatuentzako (Bizkaiko Foru Aldundiak 2,2 milioi, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 1,3 milioi, Gipuzkoako Foru Aldundiak 397 mila eta Arabako Foru Aldundiak 100 mila).
 - 3,7 milioi euro (%3,8) toki-entitateetan EBPN aurrera eramateko dirulaguntza gisa (Bizkaiko Foru Aldundiak 2,4 milioi, Eusko Jaurlaritzak 800 mila, Gipuzkoako Foru Aldundiak 400 mila eta Arabako Foru Aldundiak 100 mila).
 - 3,4 milioi euro (%3,4), euskara sustatu eta zabaltzeko egiten diren jardueretarako kontsideratua; ia guztia Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarena (EHIK, NIE, SEASKA eta abarrei emandako dirulaguntzak leudeke hor).
- 9,9 milioi euro hedabideen eremura zuzendu dira (aurrekontu osoaren %10,0).
 - Erakundeen araberako banaketa: hedabideetara bideratu den aurrekontu horren %62,8 Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak jartzen du, ia %20 5.000 biztanlez gorako Udalek eta %15,3 Foru Aldundiek.
 - 6 milioi euro (%6,1) euskarazko hedabideak sustatu eta sendotzeko laguntza orokorrak izan dira.
 - 2,3 milioi euro (%2,3) euskarazko idatzizko hedabideetara zuzendu dira.
 - Dirulaguntza nagusienak ondorengoak izango lirake: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 5,5 milioi euskarazko hedabideak sustatu eta sendotzeko, Kultura Sailak baita ere 553 mila euro euskarara bikoiztutako edota azpidatzitako ikus-entzunezkoen estreinaldiak sustatzeko, idatzizko euskarazko hedabideetarako 873 mila euro Gipuzkoako Foru Aldundiak eta 365 mila Bizkaiko Foru Aldundiak; toki telebistetarako Gipuzkoako Foru Aldundiak duen dirulaguntza berriz 260 mila eurokoa da.

- Irakaskuntzaren eremura 7,5 milioi € bideratu dira (aurrekontuaren %7,6).
 - Gehiengo oso nabarmena (ia %85) Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren dirulaguntzei dagokie: irakaskuntza alorreko ikasmaterialgintzarako 2,9 milioi, ikastetxe pribatuetako hizkuntza normalkuntza planetarako (Ulibarri programa) 2,2 milioi, ikastetxeetako euskal girotze, barnetegi edo ikastetxe arteko trukeetarako 1 milioi, eta ikastetxeek antolatutako eskola-orduz kanpoko ekintzetarako 205 mila euro.
- Corpus plangintza eta euskararen kalitatea:
 - Guztira 4,3 milioi eta horietatik 3 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarenak eta beste 1 foru aldundienak.
 - Eremu honetako Eusko Jaurlaritzaren partida nagusienak ondorengoak:
 - Euskararen corpora eta kalitatea hobetzeko egitasmoetarako guztira 2,7 milioi (hainbat erabilera eremutako terminologia normalizatzeko dirulaguntzak, Euskaltzaindiari eskainitako dirulaguntza, Labayruri eskainitakoa, itzulpen automatikoko tresna erostea, Euskalterm...).
 - Toponimien berrikuspena eta eguneratzea: 134 mila euro.
 - Hizkuntza paisaia euskalduntzeko plana: 200 mila euro.
 - Foru Aldundien kasuan: Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza Euskaltzaindiari (485 mila), Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza Euskaltzaindiari (303 mila) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza Elhuyar Fundazioari (150 mila euro).
- Lan-arloan euskararen erabilera indartzeko dirulaguntza eta hitzarmenen kasuan:
 - Guztira 4,3 milioi euro; horietatik ia 3 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarenak, 865 mila foru aldundienak eta 530 mila 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udal eta hiriburuenak.
 - Diru partida nagusienak:
 - Lantokietako euskara planetarako 2,7 milioi, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak emanak.
 - Enpresa eta entitate pribatuetako euskara planetarako 515 mila euro Bizkaiko Foru Aldundiarenak.
 - Alor sozioekonomikoan euskara planak diseinatu eta garatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza deialdia, 350 mila eurokoa.
 - Entitate pribatuetan euskara planak zabaltzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntza, 195 mila eurokoa.
 - 173 mila euro Azpeitiko Udalarenak (Azpeitiko Euskara Patronatuaren bitartez).

- Administrazio publikoa euskalduntzera, guztira 4 milioi inguru zuzendu dira dirulaguntza eta hitzarmenetan 2008an. Nagusienak ondorengoak:
 - Eusko Jaurlaritzarenak, 1,7 milioi Kultura Saitetik toki-entitateetako erabilera planetarako eta IVAP-HAEEtik 1,5 milioi ALET eta euskara ikastaroetara joaten direnen ordezkapenetarako.
 - Gipuzkoako Foru Aldunditik, ALET zerbitzurako 336 mila eta itzulpenetarako 289 mila. Zalantzazko kasuak dira edonola ere, dirulaguntza edo hitzarmen gisa egindako diru transferentzia arruntak ez baino zerbitzu kontratazioari dagozkionak ere izan baitaitezke.

- Teknologia berrietarako dirulaguntzak:
 - Guztira 3,4 milioi eta horietatik 2,7 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarenak (IKT dirulaguntza eta teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntza), 307 mila euro Gipuzkoako Foru Aldundiak eta 267 mila euro Bizkaiko Foru Aldundiak. Gainerakoak udaletatik ematen diren diru partida baxuagoak dira.

- Kulturgintzarako guztira 2,5 milioi bideratu dira (%2,5) eta liburugintzarako 1,6 milioi euro (%1,65):
 - Eusko Jaurlaritzaren kulturgintzarako dirulaguntzak: euskal kultura sendotu eta hedatzeko (Lektore programa...) 293 mila euro eta bertsolaritza sustatu eta hedatzeko laguntzak 275 mila euro (dirulaguntza bertsozaleen elkarteari).
 - Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak zine munduan euskararen presentzia indartzeko 300 mila eurokoa (Zinema euskaraz), bertsolaritzara zuzenduak 336 mila euro eta euskal kulturaren alorreko elkarteekin dituen hitzarmenetarako 500 mila euro.
 - Gainerako dirulaguntza edo hitzarmenpeko kopuruen artean kulturgintza alorrean 100 mila eurotik gorako bakarra Bilboko Udalarena da, zehatz esateko 102 mila eurokoa.
 - Euskarazko liburugintzarako dirulaguntza deialdi nagusienak lau dira, 3 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarenak eta bat Gipuzkoako Foru Aldundiarenak. Kultura Sailarenak: euskaraz argitaratutako liburuentzat 704 mila, euskal liburuen itzulpenekin zerikusia duten ekintzetarako 107 mila eta beste bi dirulaguntza (Espainiako Itsuen Elkarte Nazionalari eta Euskal Itzultzaile eta Zuzentzaileen Elkarteari) guztira 173 mila euro izanik.
 - Publizitatearen alorrean Gipuzkoako Foru Aldundiaren “euskararen erabilera esparrua sustapena ekintzak” programa, 290 mila euroekin.

- Aisia, kirola eta erlijio alorretara zabalduko 2008ko dirulaguntzen zenbatekoa guztira 2 milioi euro inguru da:
 - Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntza 140 mila eurokoa, eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzeko, aisialdian euskararen erabilera zabaltzeko ekintzetarako nahiz elkarteei emandakoak.
 - Udalek ematen dituztenen artean, nagusienak:
 - Arrasateko Udalarena, 191 mila eurokoa, ludoteka eta gaztetxokoetarako.
 - Eibarko Udalarena, 192 mila eurokoa, aisialdiko ekimen desberdinetarako (udalekuak, tailerrak, gaztelekua...).
 - Hondarribiko Udalarena, 162 mila eurokoa (eskola kirola euskalduntzeko eta bestelako aisialdi ekintzetarako ere).
 - Lasarte-Oriako Udalarena, 117 mila eurokoa.

33. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko dirulaguntza eta hitzarmen-motak eta zenbateko ekonomikoak eremuari jarraiki (datu orokorrak) (I)

	Erakunde-mota								
	Eusko Jaurlaritzaren				Foru Aldundiak	5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak	Hiriburuak	GUZTIRA	
	Kultura Saila	Hezkuntza Saila (HUIS)	IVAP-HAEE	HABE				€	%
	€	€	€	€	€	€	€	€	%
Irakaskuntza	-	6.365.588	-	-	108.026	858.458	165.061	7.497.133	7,6
<i>% hor</i>	-	84,9	-	-	1,4	11,5	2,2	100	-
Euskalduntze-alfabetatzea	-	-	9.811.800	30.346.742	225.000	1.060.318	700.512	42.144.372	42,71
<i>% hor</i>	-	-	23,3	72	0,5	2,5	1,7	100	-
Familia bidezko jarraipena	-	-	-	-	-	404.149	308.274	712.423	0,72
<i>% hor</i>	-	-	-	-	-	56,7	43,3	100	-
ONDORENGOETARATZEA	-	6.365.588	9.811.800	30.346.742	333.026	2.322.925	1.173.847	50.353.928	51
<i>% hor</i>	-	12,6	19,5	60,3	0,7	4,6	2,3	100	-
Administrazioa.....	1.732.000	-	1.479.213	-	625.000	99.332	18.206	3.953.751	4,01
<i>% hor</i>	43,8	-	37,4	-	15,8	2,5	0,5	100	-
Teknologia berriak.....	2.754.531	-	-	-	575.333	48.914	35.758	3.414.536	3,46
<i>% hor</i>	80,7	-	-	-	16,8	1,4	1	100	-
Lan-arloa.....	2.885.000	-	-	-	865.000	503.745	28.378	4.282.123	4,34
<i>% hor</i>	67,4	-	-	-	20,2	11,8	0,7	100	-
Aisia, kirola eta erlijioa.....	140.000	-	-	-	258.898	1.445.336	154.055	1.998.289	2,03
<i>% hor</i>	7	-	-	-	13	72,3	7,7	100	-
ERABILERA	7.511.531	-	1.479.213	-	2.324.231	2.097.327	236.397	13.648.699	13,8
<i>% hor</i>	55,0	-	10,8	-	17,0	15,4	1,7	100,0	-

33. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko dirulaguntza eta hitzarmen-motak eta zenbateko ekonomikoak eremuari jarraiki (datu orokorrak) (II)

	Erakunde-mota								
	Eusko Jaurlaritzaren				Foru Aldundiak	5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak	Hiriburuak	GUZTIRA	
	Kultura Saila	Hezkuntza Saila (HUIS)	IVAP-HAEE	HABE				€	%
	€	€	€	€	€	€	€	€	%
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	3.021.510	-	-	-	974.938	190.849	124.015	4.311.312	4,37
% hor	70,1	-	-	-	22,6	4,4	2,9	100	-
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,..)	6.212.158	-	-	-	1.515.970	1.970.759	192.802	9.891.689	10,02
% hor	62,8	-	-	-	15,3	19,9	1,9	100	-
Liburugintza	984.501	-	-	-	535.377	110.791	-	1.630.669	1,65
% hor	60,4	-	-	-	32,8	6,8	-	100	-
Publizitatea.....	-	-	-	-	290.000	8.212	-	298.212	0,3
% hor	-	-	-	-	97,2	2,8	-	100	-
Kulturgintza.....	568.008	-	-	-	1.343.798	323.745	234.862	2.470.413	2,5
% hor	23	-	-	-	54,4	13,1	9,5	100	-
ELIKADURA	10.786.177	-	-	-	4.660.083	2.604.356	551.679	18.602.295	18,9
% hor	58	-	-	-	25,1	14,0	3,0	100,0	-
DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK	9.810.639	-	-	-	5.734.816	450.250	73.560	16.069.265	16,29
% hor	61,1	-	-	-	35,7	2,8	0,5	100,0	-
GUZTIRA	28.108.347	6.365.588	11.291.013	30.346.742	13.052.156	7.474.858	2.035.483	98.674.187	100,00
% hor	28,5	6,5	11,4	30,8	13,2	7,6	2,1	100,0	-

Iturria: Siadeco, 2009.

Erakunde bakoitzak bere dirulaguntza eta hitzarmenetako aurrekontua EBPnren eremuen arabera nola banatu duen aztertuz gero, ondoko hauek aipa daitezke:

- Eusko Jaurlaritza:
 - Eusko Jaurlaritzaren euskara sustatzeko dirulaguntza eta hitzarmenetako aurrekontuaren ia %40 HABEk jartzen du (30,3 milioi €) eta %36,9 Kultura Sailak (28,1 milioi). Beraz, bi erakunde edo administrazio atal hauen artean aurrekontu osoaren hiru laurden finantzatzen dira. IVAP-HAEEk 11,3 milioi jartzen ditu (aurrekontuaren %14,8) eta Hezkuntza Sailak 6,3 milioi (%8,4).
 - Eusko Jaurlaritzaren hiru erakunde edo atalek dirulaguntza eta hitzarmenarako erabili duten aurrekontu osoa edo ia osoa EBPnren eremu jakin batera bideratu dute, euskararen ondorengoetaratzea bermatzeko helburuarekin:
 - HABEren aurrekontu osoa (30,3 milioi €) euskalduntze-alfabetatzera bideratuta dago.
 - IVAP-HAEEk 9,8 milioi € bideratu ditu euskalduntze-alfabetatzearen alorrera, hau da, bere euskara aurrekontuaren ia %87 (eta hain zuzen ere HABErekin duen hitzarmena da kontzeptu honen atzean agertzen dena).
 - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabili dituen 6,3 milioi euroak irakaskuntzaren eremura bideratu ditu oso osorik.
 - Kultura Sailaren aurrekontua ordea, ondorengoetaratzearekin zerikusirik ez duten eremu guztietara iritsi da ehuneko oso desberdinetan bada ere. Hona hemen kopururik adierazgarrienak:
 - 9,8 milioi euro, hau da, bere aurrekontuaren heren bat baino gehixeago (ia %35), bestelako dirulaguntza eta hitzarmen orokorretara bideratu da.
 - 6,2 milioi, hau da, %22,1 hedabideentzat izan da.
 - teknologia berrietan eta lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko hamarna milioi euro inguru erabili dira (%9,8 eta %10,3 hurrenez hurren)
 - HABE eta HAEE/IVAPen eskutik, euskalduntze-alfabetatzera bideratu dituen 40,2 milioi euro horien zatirik adierazgarriena, 18,9 milioi € hain zuzen ere (aurrekontu osoaren ia %25) euskaltegi pribatuei euskara ikastaroengatik emandako dirulaguntzetara zuzendu da. Bestalde 9,8na milioi euro bideratzen dira batetik, udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegi publikoentzako dirulaguntzetarako eta bestetik, toki administrazioetako langileen euskalduntzerako (HAEE/IVAPek HABErekin duen hitzarmena medio).
 - 9,8 milioi € (%13) bestelako dirulaguntza eta hitzarmenen bitartez bideratu du. Eremu honetan, partidarik nagusienak, honakoak: 3,3 milioi € (%4,4) euskara elkarte eta bestelako elkarte pribatuentzat (EHIK, NIE, Seaska eta Baigorri-ri); 1,7 milioi € hizkuntza sentsibilizaziorako komunikazio ekintza orokorretarako laguntzak eta 1,3 milioi € “euskara gizarte bizitzan” programarako laguntzak.

- Irakaskuntzara 6,3 milioi € zuzendu dira (%8,4). Horietatik 2,9 milioi (%3,8) irakaskuntzarekin zerikusia duten bestelako jardueretara.
 - Hedabideetara 6,2 milioi € bideratu dira (%8,2). Horietatik 5,6 milioi (%7,3), euskarazko hedabideak sustatu eta sendotzeko laguntza orokorrak izan dira.
 - Eusko Jaurlaritzak ez du aurrekonturik bideratu ez familia bidezko jarraipenerako ezta publizitaterako ere.
- Foru aldundiak:
- 5,7 milioi € (beren aurrekontu osoaren ia %44) bestelako dirulaguntza eta hitzarmen orokorretara bideratu dituzte. Horietatik 2,9 milioi (%22,5) toki-entitateetako EBPN garatzeko erabili dituzte eta 2,7 milioi (%20,7) euskara elkarte eta bestelako elkarte pribatuentzat izan dira.
 - 1,5 milioi € dira hedabideetara bideratu dituztenak (%11,6) eta horietatik 1,3 milioi (%9,6) euskarazko idatzizko hedabideetarako izan dira.
 - Kulturgintzarako 1,3 milioi € erabili dituzte (%10,3).
 - Foru Aldundiek ez dute aurrekonturik bideratu familia bidezko jarraipenerako.
- Foru aldundi bakoitzaren datuei erreparatuz gero, azpimarratzekoa da:
- Bizkaiko Foru Aldundian oso nabarmena da bestelako dirulaguntza eta hitzarmenetara zuzendu diren baliabide ekonomikoek duten pisua: bere aurrekontu osoaren %71,7, hain zuzen ere (toki entitateetan EBPN garatzeko 2,4 milioi eta euskara elkarte eta bestelako elkarte pribatuak diruz-laguntzeko 2,2 milioi euro). Aurrekontuaren ia %8 lan-arloan euskararen erabilera sustatzera bideratu du eta ia beste horrenbeste corpus-plangintza eta euskararen kalitatea hobetzera.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuaren ehuneko adierazgarrienak kulturgintzara eta hedabideetara bideratu dira (%19 inguru eremu bakoitzera). Ondoren ia %15 bestelako dirulaguntza eta hitzarmenetara zuzendu da eta %10 administrazioan euskararen erabilera sustatzera (beste foru aldundietan ez da zuzenean baliabiderik bideratu eremu honetara).
 - Arabako Foru Aldundiaren aurrekontua nagusiki ondorengo hiru eremuetara bideratu da: bestelako dirulaguntza eta hitzarmen orokorrak (%31,2), kulturgintza (%29,2) eta euskalduntze-alfabetatzea (%28,1)

- 5.000 biztanlez gorako udalerriak:
 - Hedabideetan euskararen erabilera sustatzera ia 2 milioi euro (beren aurrekontu osoaren %26,4) bideratu dituzte eta horietatik milioi bat euro (%13,7) euskarazko idatzizko hedabideentzat izan da.
 - Aisia, kirola eta erlijioan euskararen erabilera sustatzeko 1,4 milioi € erabili dira (udalerrien aurrekontu osoaren %19,3) eta euskalduntze-alfabetatzearen alorrera milioi bat € bideratu da (%14,2).
- 5.000 biztanlez gorako udalerrien aurrekontuak lurraldearen arabera aztertuz gero, zera aipa daiteke:
 - Gipuzkoan aurrekontuaren ehuneko adierazgarrienak hedabideetara (%30,3) eta aisia, kirola eta erlijioan euskararen erabilera sustatzera (%22) bideratzen dira.
 - Bizkaiko udalerrien aurrekontuaren ia laurdena (%24,5) euskalduntze-alfabetatzearen eremura bideratzen da eta %19,3 irakaskuntzara.
 - Arabako udalerrietan aurrekontuaren erdia euskalduntze-alfabetatzea sustatzera bideratzen da eta %36,1 lan-arloan euskararen erabilera sustatzera. Beste lurraldeetako udalerrietan ez bezala, Arabakoetan ez da dirulaguntza edo hitzarmen bidezko aurrekonturik zuzendu euskararen elikadurarekin zerikusia duten eremuetara.
- Hiriburuak:
 - 700.000 € euskalduntze-alfabetatzearen eremura bideratzen dira (aurrekontu osoaren %34,4). Hain zuzen ere, aurrekontu osoaren %30,1 euskara ikasleentzako dirulaguntza orokorretarako izan da.
 - %15,1 familia bidezko jarraipenerako da eta %11,5 kulturgintzarako.
 - Hiriburuek ez dute aurrekonturik bideratu ez liburugintzarako ezta publizitaterako ere.
- Bilbon eta Donostian, dirulaguntza eta hitzarmenetako aurrekontuaren zatirik adierazgarriena euskalduntze-alfabetatzera bideratzen da (%42,5 eta %45,1 hurrenez hurren) eta Gasteizen familia bidezko transmisioa sustatzera (%44,3).

34. Taula: Dirulaguntza edota hitzarmenetako euskara aurrekontuak eremuei jarraiki eta erakunde-motaren arabera

	Eusko Jaurlaritzza		Foru Aldundiak		5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak		Hiriburuak		GUZTIRA	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	6.365.588	8,4	108.026	0,8	858.458	11,5	165.061	8,1	7.497.133	7,6
Euskalduntze-alfabetatzea	40.158.542	52,8	225.000	1,7	1.060.318	14,2	700.512	34,4	42.144.372	42,7
Familia bidezko jarraipena	-	-	-	-	404.149	5,4	308.274	15,1	712.423	0,7
ONDORENGOETARATZEA	46.524.130	61,1	333.026	2,6	2.322.925	31,1	1.173.847	57,7	50.353.928	51
Administrazioa.....	3.211.213	4,2	625.000	4,8	99.332	1,3	18.206	0,9	3.953.751	4
Teknologia berriak.....	2.754.531	3,6	575.333	4,4	48.914	0,7	35.758	1,8	3.414.536	3,5
Lan-arloa.....	2.885.000	3,8	865.000	6,6	503.745	6,7	28.378	1,4	4.282.123	4,3
Aisia, kirola eta erlijioa.....	140.000	0,2	258.898	2	1.445.336	19,3	154.055	7,6	1.998.289	2
ERABILERA	8.990.744	11,8	2.324.231	17,8	2.097.327	28,1	236.397	11,6	13.648.699	13,8
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	3.021.510	4	974.938	7,5	190.849	2,6	124.015	6,1	4.311.312	4,4
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,...)	6.212.158	8,2	1.515.970	11,6	1.970.759	26,4	192.802	9,5	9.891.689	10
Liburugintza	984.501	1,3	535.377	4,1	110.791	1,5	-	-	1.630.669	1,7
Publizitatea	-	-	290.000	2,2	8.212	0,1	-	-	298.212	0,3
Kulturgintza.....	568.008	0,7	1.343.798	10,3	323.745	4,3	234.862	11,5	2.470.413	2,5
ELIKADURA	10.786.177	14,2	4.660.083	35,7	2.604.356	34,8	551.679	27,1	18.602.295	18,9
BESTELAKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK	9.810.639	12,9	5.734.816	43,9	450.250	6,0	73.560	3,6	16.069.265	16,3
GUZTIRA	76.111.690	100,0	13.052.156	100,0	7.474.858	100,0	2.035.483	100,0	98.674.187	100,0

Iturria: Siadeco , 2009.

35. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko dirulaguntza eta hitzarmenen aurrekontuak eremuari jarraiki, Eusko Jaurlaritzan

	Kultura Saila		Hezkuntza Saila (HUIS)		IVAP-HAEE		HABE		GUZTIRA	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	-	-	6.365.588	100,0	-	-	-	-	6.365.588	8,4
Euskalduntze-alfabetatzea	-	-	-	-	9.811.800	86,9	30.346.742	100,0	40.158.542	52,8
Familia bidezko jarraipena	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
ONDORENGOETARATZEA	-	-	6.365.588	100,0	9.811.800	86,9	30.346.742	100,0	46.524.130	61,1
Administrazioa.....	1.732.000	6,2	-	-	1.479.213	13,1	-	-	3.211.213	4,2
Teknologia berriak.....	2.754.531	9,8	-	-	-	-	-	-	2.754.531	3,6
Lan-arloa.....	2.885.000	10,3	-	-	-	-	-	-	2.885.000	3,8
Aisia, kirola eta erlijioa.....	140.000	0,5	-	-	-	-	-	-	140.000	0,2
ERABILERA	7.511.531	26,8	-	-	-	-	-	-	7.511.531	11,8
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	3.021.510	10,7	-	-	-	-	-	-	3.021.510	4,0
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,...)	6.212.158	22,1	-	-	-	-	-	-	6.212.158	8,2
Liburugintza	984.501	3,5	-	-	-	-	-	-	984.501	1,3
Publizitatea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kulturgintza.....	568.008	2,0	-	-	-	-	-	-	568.008	0,7
ELIKADURA	10.786.177	38,3	-	-	-	-	-	-	10.786.177	14,2
BESTELAKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK	9.810.639	34,9	-	-	-	-	-	-	9.810.639	12,9
GUZTIRA	28.108.347	100,0	6.365.588	100,0	11.291.013	100,0	30.346.742	100,0	76.111.690	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

36. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko dirulaguntza eta hitzarmenen aurrekontuak eremuari jarraiki, foru aldundietan

	Arabako Foru Aldundia		Bizkaiko Foru Aldundia		Gipuzkoako Foru Aldundia		Foru Aldundiak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	37.000	5,8	71.026	1,1	-	-	108.026	0,8
Euskalduntze-alfabetatzea	180.000	28,1	-	-	45.000	0,8	225.000	1,7
Familia bidezko jarraipena	-	-	-	-	-	-	-	-
ONDORENGOETARATZEA	217.000	33,9	71.026	1,1	45.000	0,8	333.026	2,6
Administrazioa	-	-	-	-	625.000	10,6	625.000	4,8
Teknologia berriak	-	-	267.707	4,1	307.626	5,2	575.333	4,4
Lan-arloa	-	-	515.000	7,9	350.000	5,9	865.000	6,6
Aisia, kirola eta erlijioa	18.898	2,9	-	0,0	240.000	4,1	258.898	2,0
ERABILERA	18.898	2,9	782.707	12,1	1.522.626	25,7	2.324.231	17,8
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	-	-	485.000	7,5	489.938	8,3	974.938	7,5
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,..)	18.000	2,8	364.950	5,6	1.133.020	19,1	1.515.970	11,6
Liburugintza	-	-	111.877	1,7	423.500	7,1	535.377	4,1
Publizitatea	-	-	-	-	290.000	4,9	290.000	2,2
Kulturgintza	187.080	29,2	21.218	0,3	1.135.500	19,2	1.343.798	10,3
ELIKADURA	205.080	32,0	983.045	15,2	3.471.958	58,6	4.660.083	35,7
BESTELAKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK	200.000	31,2	4.651.116	71,7	883.700	14,9	5.734.816	43,9
GUZTIRA	640.978	100,0	6.487.894	100,0	5.923.284	100,0	13.052.156	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

37. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko dirulaguntza eta hitzarmenen aurrekontuak eremuari jarraiki 5.000 biztanlez gorako udalerrietan

	Arabako Udalerriak		Bizkaiko Udalerriak		Gipuzkoako Udalerriak		5.000 biztanlez gorako udalerriak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	3.451	4,6	369.645	19,3	485.362	8,9	858.458	11,5
Euskalduntze-alfabetatzea	37.832	50,6	470.206	24,5	552.280	10,1	1.060.318	14,2
Familia bidezko jarraipena	-	-	135.034	7,0	269.115	4,9	404.149	5,4
ONDORENGOETARATZEA	41.283	55,3	974.885	50,8	1.306.757	23,8	2.322.925	31,1
Administrazioa	-	-	33.272	1,7	66.060	1,2	99.332	1,3
Teknologia berriak	-	-	7.573	0,4	41.341	0,8	48.914	0,7
Lan-arloa	27.000	36,1	107.437	5,6	369.308	6,7	503.745	6,7
Aisia, kirola eta erlijioa	-	-	241.235	12,6	1.204.101	22,0	1.445.336	19,3
ERABILERA	27.000	36,1	389.517	20,3	1.680.810	30,7	2.097.327	28,1
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	-	-	39.595	2,1	151.254	2,8	190.849	2,6
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,..)	-	-	310.698	16,2	1.660.061	30,3	1.970.759	26,4
Liburugintza	-	-	36.020	1,9	74.771	1,4	110.791	1,5
Publizitatea	-	-	3.000	0,2	5.212	0,1	8.212	0,1
Kulturgintza	-	-	87.620	4,6	236.125	4,3	323.745	4,3
ELIKADURA	-	-	476.933	24,8	2.127.423	38,8	2.604.356	34,8
BESTELAKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK	6.428	8,6	78.299	4,1	365.523	6,7	450.250	6,0
GUZTIRA	74.711	100,0	1.919.634	100,0	5.480.513	100,0	7.474.858	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

38. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko dirulaguntza eta hitzarmenen aurrekontuak eremuari jarraiki, hiriburuetan

	Gasteiz		Bilbo		Donostia		Hiriburuak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	22.084	3,2	101.087	12,6	41.890	7,8	165.061	8,1
Euskalduntze-alfabetatzea	116.651	16,8	341.410	42,5	242.451	45,1	700.512	34,4
Familia bidezko jarraipena	307.465	44,3	-	0,0	809	0,2	308.274	15,1
ONDORENGOETARATZEA	446.200	64,4	442.497	55,0	285.150	53,0	1.173.847	57,7
Administrazioa	18.206	2,6	-	-	-	-	18.206	0,9
Teknologia berriak	-	-	35.758	4,4	-	-	35.758	1,8
Lan-arloa	-	-	14.600	1,8	13.778	2,6	28.378	1,4
Aisia, kirola eta erlijioa	86.236	12,4	61.084	7,6	6.735	1,3	154.055	7,6
ERABILERA	104.442	15,1	111.442	13,9	20.513	3,8	236.397	11,6
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	66.755	9,6	43.760	5,4	13.500	2,5	124.015	6,1
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,..)	-	-	18.400	2,3	174.402	32,4	192.802	9,5
Liburugintza	-	-	-	-	-	-	-	-
Publizitatea	-	-	-	-	-	-	-	-
Kulturgintza	63.900	9,2	126.577	15,7	44.385	8,3	234.862	11,5
ELIKADURA	130.655	18,8	188.737	23,5	232.287	43,2	551.679	27,1
BESTELAKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK	12.000	1,7	61.560	7,7	0,0	0,0	73.560	3,6
GUZTIRA	693.297	100,0	804.236	100,0	537.950	100,0	2.035.483	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

5.5.- DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK BIZTANLEKO, EREMUARI ETA ERAKUNDE- MOTARI JARRAIKI

Dirulaguntza eta hitzarmenen bitartez euskararen sustapenerako 2008. urtean administrazio publiko desberdinek bideratutako diru-baliabideen/biztanleko ratio orokorra 46,3 €koa da.

EBPNren eremu desberdinetako aurrekontu (€)/biztanleko ratio orokorrei begira (hau da, erakunde publiko desberdinek dirulaguntza eta hitzarmenen bitartez bideratzen dituzten aurrekontuen batura EAEko biztanlego osoarekiko kalkulatuta) kopururik handiena euskalduntze-alfabetatzearen alorrean aurkitzen da: 19,79 €/biztanleko hain zuzen ere. Ondorengo ratorik adierazgarrienak askoz txikiagoak dira:

- bestelako dirulaguntza eta hitzarmen orokorrei dagokiena: 7,55 €/biztanleko.
- hedabideena: 4,65 €/biztanleko.
- irakaskuntzarena: 3,52 €/biztanleko.

Aldiz, aurrekontu/biztanleko ratorik txikiak (1 euro/biztanleko baino txikiagoak alegia) ondorengo eremuetakoak dira: publizitatea (0,14€); familia bidezko jarraipena (0,33€); liburugintza (0,77€) eta aisia kirola eta erlijioan euskararen erabileraren sustapena (0,94€).

Ratioak administrazioaren erakunde desberdinen eta eremuen arabera aztertuz gero, ondoko hauek dira adierazgarrienak:

- Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza eta hitzarmenen bidez 18,86 €/biztanleko bideratu ditu euskalduntze-alfabetatzearen alorrera.
- Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 4,61 eta 4,09 €/biztanleko bideratu dituzte hurrenez hurren bestelako dirulaguntza eta hitzarmen orokorren bitartez. 3 Foru Aldundiak batera hartuta eremu honetarako ateratzen den ratioa ere adierazgarria da: 2,7 €/biztanleko.
- Gipuzkoako 5.000 biztanlez gorako udalerriek eta Eusko Jaurlaritzak 3,8 eta 2,9 €/biztanleko bideratu dituzte hurrenez hurren, hedabideetara.
- Gipuzkoako 5.000 biztanlez gorako udalerrietan 2,8€/biztanleko ratioa ateratzen da aisian, kirolean eta erlijioan euskararen erabilera sustatzeko.

39. Taula: EBPN eremuaren arabera; erakunde desberdinek dirulaguntza edota hitzarmenatarako bideratutako euskara aurrekontu likidatuaren ratioa biztanleko

	Eusko Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia	Foru Aldundiak	Arabako Udalerriak	Bizkaiko Udalerriak	Gipuzkoako Udalerriak	5.000 biztanlez gorako udalerriak	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Hiriburuak	GUZTIRA
Irakaskuntza	2,99	0,12	0,06	-	0,05	0,12	0,55	1,11	0,75	0,1	0,29	0,23	0,22	3,52
Euskalduntze-alfabetatzea	18,86	0,59	-	0,07	0,11	1,34	0,7	1,27	0,93	0,51	0,97	1,34	0,92	19,79
Familia bidezko jarraipena	-	-	-	-	-	-	0,2	0,62	0,35	1,34	-	-	0,4	0,33
I.- ONDORENGOETARATZEA	21,85	0,71	0,06	0,07	0,16	1,46	1,44	3	2,04	1,94	1,26	1,58	1,54	23,65
Administrazioa.....	1,51	-	-	0,91	0,29	-	0,05	0,15	0,09	0,08	-	-	0,02	1,86
Teknologia berriak	1,29	-	0,24	0,45	0,27	-	0,01	0,09	0,04	-	0,1	-	0,05	1,6
Lan-arloa	1,35	-	0,45	0,51	0,41	0,96	0,16	0,85	0,44	-	0,04	0,08	0,04	2,01
Aisia, kirola eta erlijioa.....	0,07	0,06	-	0,35	0,12	-	0,36	2,77	1,27	0,38	0,17	0,04	0,2	0,94
II. – ERABILERA	4,22	0,06	0,69	2,22	1,09	0,96	0,58	3,86	1,84	0,45	0,32	0,11	0,31	6,41
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	1,42	-	0,43	0,71	0,46	-	0,06	0,35	0,17	0,29	0,12	0,07	0,16	2,02
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,...)	2,92	0,06	0,32	1,65	0,71	-	0,46	3,81	1,73	-	0,05	0,97	0,25	4,65
Liburugintza	0,46	-	0,1	0,62	0,25	-	0,05	0,17	0,1	-	-	-	-	0,77
Publizitatea	-	-	-	0,42	0,14	-	-	0,01	0,01	-	-	-	-	0,14
Kulturgintza	0,27	0,61	0,02	1,65	0,63	-	0,13	0,54	0,28	0,28	0,36	0,25	0,31	1,16
III.- ELIKADURA	5,07	0,67	0,86	5,06	2,19	-	0,71	4,89	2,29	0,57	0,54	1,29	0,72	8,74
BESTELAKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK	4,61	0,65	4,09	1,29	2,69	0,23	0,12	0,84	0,4	0,05	0,18	-	0,1	7,55
GUZTIRA	35,74	2,1	5,71	8,63	6,13	2,65	2,84	12,59	6,56	3,02	2,29	2,98	2,67	46,34

Iturria: Siadeco, 2009 .

5.6.- DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK EREMU ZEHATZARI ETA ERAKUNDE- MOTARI JARRAIKI

2008. urtean, dirulaguntza eta hitzarmenetan erabilitako aurrekontu osoaren hiru laurden baino gehixeago (ia %77), hau da, 75,9 milioi euro, dirulaguntzetarako izan da eta %21 (21,1 milioi euro) hitzarmenetarako. Aurrekontuaren %1,7 zehaztu ezina izan da.

40. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko zenbateko ekonomikoak, gastu motari jarraiki (dirulaguntza ala hitzarmena)

	Euro	%
Dirulaguntza	75.866.175	76,9
Hitzarmena	21.105.284	21,4
Zehaztu gabe	1.702.728	1,7
GUZTIRA	98.674.187	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

Dirulaguntzetan nahiz hitzarmenetan erabilitako diru-baliabideen gehiengo nabarmena, Eusko Jaurlaritzak jarri du: 60 milioi euro dirulaguntzetan (dirulaguntzen aurrekontu osoaren %79,2) eta 15 milioi hitzarmenetan (hitzarmenen aurrekontu osoaren %71,4). Aldundiek dirulaguntzen aurrekontu osoaren %14,1 jarri dute eta 5.000 biztanlez gorako udalerriek hitzarmenen aurrekontu osoaren %15,8.

Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundietan nahiz hiriburuetan garbi ikusten da dirulaguntzetara bideratutako zenbatekoek duten garrantzia, bakoitzak likidatu duen aurrekontuaren gehiengo oso nabarmena osatzen baitute: ia %79, ia %82 eta %70 hurrenez hurren.

5.000 biztanlez gorako udalerrietan, dirulaguntzetarako aurrekontua hitzarmenetarako erabilitakoa baino handiagoa izan bada ere, bien arteko banaketa beste erakundeetan baino askoz orekatuagoa izan da: %49,5 eta %44,5 hain zuzen ere. Beraz, hitzarmenen bitartez bideratutako baliabide ekonomikoek garrantzia hartzen dute hiriburuak ez diren udalerrien euskara aurrekontuetan.

41. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko zenbateko ekonomikoak erakunde-motaren arabera, gastu motari jarraiki (dirulaguntza ala hitzarmena)

Erakunde-mota	Dirulaguntza		Hitzarmena		Zehaztu gabe		GUZTIRA	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Eusko Jaurlaritzza	60.062.389	79,2	15.064.963	71,4	984.338	57,8	76.111.690	77,1
<i>% hor</i>	<i>78,9</i>		<i>19,8</i>		<i>1,3</i>		<i>100</i>	
Foru Aldundiak	10.675.040	14,1	2.377.116	11,3	0	0,0	13.052.156	13,2
<i>% hor</i>	<i>81,8</i>		<i>18,2</i>		<i>0</i>		<i>100</i>	
5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak	3.703.058	4,9	3.329.079	15,8	442.721	26,0	7.474.858	7,6
<i>% hor</i>	<i>49,5</i>		<i>44,5</i>		<i>5,9</i>		<i>100</i>	
Hiriburuak	1.425.688	1,9	334.126	1,6	275.669	16,2	2.035.483	2,1
<i>% hor</i>	<i>70</i>		<i>16,4</i>		<i>13,5</i>		<i>100</i>	
GUZTIRA	75.866.175	100,0	21.105.363	100,0	1.702.747	100,0	98.674.286	100,0
<i>% hor</i>	<i>76,9</i>		<i>21,4</i>		<i>1,7</i>		<i>100,0</i>	

Iturria: Siadeco, 2009.

EBPNren eremu desberdinetara dirulaguntzen bitartez bideratutako baliabide ekonomikoak beti izan dira aurrekontu osoaren erdia baino gehiago bi salbuespenekin: batetik administrazioan eta bestetik aisia, kirola eta erlijioan euskararen erabilera sustatzeko ekimenak. Bi eremu hauetara iritsitako baliabideen erdia pasatxo (%53,4 eta %51,3 hurrenez hurren) hitzarmenen bitartez bideratu direlako, ez dirulaguntzen bidez.

Adierazgarria da zenbateko ekonomiko nagusiak bildu dituzten eremuetan (hots, euskalduntze-alfabetatzea, bestelako dirulaguntza eta hitzarmen orokorrak, hedabideak eta irakaskuntza) dirulaguntzen pisua %70aren gaineratik dagoela.

42. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko zenbateko ekonomikoak eremuaren arabera, gastu motari jarraiki (dirulaguntza ala hitzarmena)

Eremua	Dirulaguntza		Hitzarmena		Zehaztu gabe		GUZTIRA	
	Euro	% hor	Euro	% hor	Euro	% hor	Euro	% hor
Irakaskuntza	7.157.029	95,5	202.261	2,7	137.843	1,8	7.497.133	100,0
Euskalduntze-alfabetatzea	31.954.627	75,8	10.132.972	24,0	56.773	0,1	42.144.372	100,0
Euskararen familia bidezko jarraipena	539.641	75,7	168.056	23,6	4.726	0,7	712.423	100,0
ONDORENGOETARATZEA	39.651.297	78,7	10.503.289	20,9	199.342	0,4	50.353.928	100,0
Administrazioa	1.843.034	46,6	2.110.717	53,4	-	-	3.953.751	100,0
Teknologia berriak	3.363.705	98,5	15.073	0,4	35.758	1,0	3.414.536	100,0
Lan arloa	3.590.489	83,8	689.802	16,1	1.832	0,0	4.282.123	100,0
Aisia, kirola eta erlijioa	778.385	39,0	1.024.637	51,3	195.267	9,8	1.998.289	100,0
ERABILERA	9.575.613	70,2	3.840.229	28,1	232.857	1,7	13.648.699	100,0
Euskararen corpus eta kalitatea	3.230.204	74,9	1.039.508	24,1	41.600	1,0	4.311.312	100,0
Hedabideak	8.651.868	87,5	986.976	10,0	252.845	2,6	9.891.689	100,0
Euskarazko liburugintza	1.574.094	96,5	52.693	3,2	3.882	0,2	1.630.669	100,0
Publizitatea	294.108	98,6	4.104	1,4	-	-	298.212	100,0
Kulturgintza	1.598.552	64,7	800.536	32,4	71.325	2,9	2.470.413	100,0
ELIKADURA	15.348.826	82,5	2.883.817	15,5	369.652	2,0	18.602.295	100,0
BESTELAKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK	11.290.439	70,3	3.877.949	24,1	900.877	5,6	16.069.265	100,0
GUZTIRA	75.866.175	76,9	21.105.284	21,4	1.702.728	1,7	98.674.187	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

Oro har, dirulaguntzetarako erabilitako diru-baliabideen %42,1, hau da, ia 32 milioi euro, euskalduntze-alfabetatzearen alorrera bideratu dira. Ondoren dirulaguntzen bitartez banatutako 11,3 milioi euro (ia %15) bestelako dirulaguntzetarako (EBPN garatzeko, euskararen sustapenerako elkarte eta erakundeentzako, sentsibilizaziorako komunikazio ekintzak...) erabili dira eta beste 8,6 milioi (%11,4) hedabideetara zuzendu dira.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, bere dirulaguntzetarako aurrekontuaren erdia (%50,5), hau da, 30,3 milioi euro, euskalduntze-alfabetatzearen eremura bideratu da.

Foru Aldundiek dirulaguntzen bitartez bideratu duten aurrekontu osoaren erdia pasatxo (ia %53) hau da, 5,6 milioi euro, bestelako dirulaguntzak emateko erabili dituzte.

Hiriburuetan dirulaguntzen bitartez bideratutako ehunekorik adierazgarriena (%46,3) euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko erabili da.

5.000 biztanlez gorako udalerrietan, dirulaguntzen ehuneko adierazgarrienak ondoko eremutara bideratu dira: hedabideak (%22,5), euskalduntze-alfabetatzea (%21,5) eta irakaskuntza (ia %18).

43. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko dirulaguntzen zenbateko ekonomikoak, eremuaren arabera eta erakunde-motari jarraiki

Eremua	Eusko Jaurlaritzza		5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak		Foru Aldundia		Hiriburua		GUZTIRA	
	Euro	%	Euro	%	Euro	%	Euro	%	Euro	%
Irakaskuntza	6.365.588	10,6	661.423	17,9	96.026	0,9	33.992	2,4	7.157.029	9,4
Euskalduntze-alfabetatzea	30.346.742	50,5	797.597	21,5	150.000	1,4	660.288	46,3	31.954.627	42,1
Euskararen familia bidezko jarraipena	-	-	232.176	6,3	-	-	307.465	21,6	539.641	0,7
ONDORENGOETARATZEA	36.712.330	61,1	1.691.196	45,7	246.026	2,3	1.001.745	70,3	39.651.297	52,3
Administrazioa	1.732.000	2,9	92.828	2,5	-	-	18.206	1,3	1.843.034	2,4
Teknologia berriak	2.754.531	4,6	33.841	0,9	575.333	5,4	-	0,0	3.363.705	4,4
Lan arloa	2.885.000	4,8	186.711	5	515.000	4,8	3.778	0,3	3.590.489	4,7
Aisia, kirola eta erlijioa	140.000	0,2	412.172	11,1	165.000	1,5	61.213	4,3	778.385	1,0
ERABILERA	7.511.531	12,5	725.552	19,6	1.255.333	11,8	83.197	5,8	9.575.613	12,6
Euskararen corpus eta kalitatea	2.687.510	4,5	55.534	1,5	485.000	4,5	2.160	0,2	3.230.204	4,3
Hedabideak	6.127.820	10,2	833.276	22,5	1.497.970	14	192.802	13,5	8.651.868	11,4
Euskarazko liburugintza	984.501	1,6	54.216	1,5	535.377	5	-	0,0	1.574.094	2,1
Publizitatea	-	-	4.108	0,1	290.000	2,7	-	0,0	294.108	0,4
Kulturgintza	568.008	0,9	167.542	4,5	717.218	6,7	145.784	10,2	1.598.552	2,1
ELIKADURA	10.367.839	17,3	1.114.676	30,1	3.525.565	33	340.746	23,9	15.348.826	20,2
BESTELAKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK	5.470.689	9,1	171.634	4,6	5.648.116	52,9	-	0,0	11.290.439	14,9
GUZTIRA	60.062.389	100,0	3.703.058	100,0	10.675.040	100,0	1.425.688	100,0	75.866.175	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

Oro har, hitzarmenen bitartez banatutako aurrekontuaren ia erdia (%48), hau da, 10,1 milioi euro, euskalduntze-alfabetatzearen alorrera zuzendu da.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, hitzarmen bidezko aurrekontuaren ia bi heren (%65,1), hau da 9,8 milioi euro, euskalduntze-alfabetatzea sustatzera bideratu dira.

Foru Aldundiek hitzarmenen bidez bideratutako aurrekontu osoaren laurden bat pasatxo (%26,4) kulturgintzarako izan da eta beste horrenbeste (%26,3) administrazioan euskararen erabilera sustatzeko.

Hiriburuetako hitzarmen bidezko aurrekontu bateratuaren laurdena inguru (%26,7) kultugintzara bideratu da eta antzeko ehunekoa (%24) euskararen korpus eta kalitatea sustatzera.

5.000 biztanlez gorako udalerrietan hitzarmenen bitartez banatutako diru-baliabideen %29,1 hedabideentzat izan da eta %28 aisia, kirola eta erlijioan euskararen erabilera sustatzeko ekintzetarako.

44. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko HITZARMENEN zenbateko ekonomikoak, eremuaren arabera eta erakunde-motari jarraiki

Eremua	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundia		5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak		Hiriburua		GUZTIRA	
	Euro	%	Euro	%	Euro	%	Euro	%	Euro	%
Irakaskuntza	-	-	12.000	0,5	164.661	4,9	25.600	7,7	202.261	1,0
Euskalduntze-alfabetatzea	9.811.800	65,1	75.000	3,2	205.948	6,2	40.224	12,0	10.132.972	48,0
Euskararen familia bidezko jarraipena	-	-	-	-	167.247	5,0	809	0,2	168.056	0,8
ONDORENGOETARATZEA	9.811.800	65,1	87.000	3,7	537.856	16,2	66.633	19,9	10.503.289	49,8
Administrazioa	1.479.213	9,8	625.000	26,3	6.504	0,2	-	-	2.110.717	10,0
Teknologia berriak	-	-	-	-	15.073	0,5	-	-	15.073	0,1
Lan arloa	-	-	350.000	14,7	315.202	9,5	24.600	7,4	689.802	3,3
Aisia, kirola eta erlijioa	-	-	93.898	4,0	930.739	28,0	-	-	1.024.637	4,9
ERABILERA	1.479.213	9,8	1.068.898	45,0	1.267.518	38,1	24.600	7,4	3.840.229	18,2
Euskararen corpus eta kalitatea	334.000	2,2	489.938	20,6	135.315	4,1	80.255	24,0	1.039.508	4,9
Hedabideak	-	-	18.000	0,8	968.976	29,1	-	-	986.976	4,7
Euskarazko liburugintza	-	-	-	-	52.693	1,6	-	-	52.693	0,2
Publizitatea	-	-	-	-	4.104	0,1	-	-	4.104	-
Kulturgintza	-	-	626.580	26,4	84.878	2,5	89.078	26,7	800.536	3,8
ELIKADURA	334.000	2,2	1.134.518	47,7	1.245.966	37,4	169.333	50,7	2.883.817	13,7
BESTELAKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK	3.439.950	22,8	86.700	3,6	277.739	8,3	73.560	22,0	3.877.949	18,4
GUZTIRA	15.064.963	100,0	2.377.116	100,0	3.329.079	100,0	334.126	100,0	21.105.284	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

6.

**EUSKARAREN
SUSTAPENERAKO
EGITURAK
ETA
GIZA BALIABIDEAK**

6.1.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EGITURAK

Euskal Autonomi erkidegoko administrazio publikoaren erakunde desberdinetan euskararen normalizaziorako sortuak dauden atal, zerbitzu eta egiturei buruzko informazioa biltzen du atal honek.

5.000 biztanlez gorako EAEko herrietako udalen kasuan (hiriburuak kanpo), eta aztertutako 64 udalerrietatik, 59 dira euskara sustatzeko egitura propioa dutenak (%92,2); 5ek beraz ez dute bere egitura propioaren barnean euskararen sustapenerako atal berezirik.

Egiturarik ohikoena Zerbitzua da; izan ere, 31 dira Euskara Zerbitzua duten udalak (%48,4); eta bigarren ohikoena Saila edo Arloa, 19 baitira Euskara Saila edo Arloa duten udalak (%29,7). Beste udal batek bi egiturak batzen ditu, Zerbitzua eta Arloa/Saila baitu (%1,6).

Hiru udalek dute Departamentua euskararen sustapenerako atal gisa, eta beste hiruk Patronatu edo udalaren menpeko erakunde autonomoa.

Euskara sustatzeko egitura berezirik ez dutela dioten udalen kasuan, aipatu bi kasutan beste udal sail baten barnean dagoela eginkizun hau (idazkaritza edo kultur arloaren barnean), beste kasu batean, egiturarik ez egon arren, euskara teknikari bat dagoela; Udal Euskaltegia arduratzen da eginkizun horretaz laugarren udalerrri batean eta bosgarrenean zuzen-zuzenean "euskara sustatzeko egiturarik ez dagoela" adierazten dute.

45. Taula: Euskararen sustapenerako atalaren egitura 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan (2008)

	Kop.	%
Zerbitzua	31	48,4
Saila edo arloa	19	29,7
Departamentua	3	4,7
Udalaren menpeko erakunde autonomoa (Patronatua)	3	4,7
Saila edo arloa / Zerbitzua	1	1,6
Departamentua / Zerbitzua	1	1,6
Atala	1	1,6
Ez dute euskara sustatzeko egitura berezirik	5	7,8
GUZTIRA	64	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

Hiru hiriburuek egitura desberdina dute: Gasteizko Udalak euskara Zerbitzua du, Bilbokoak Saila edo Arloa eta Donostiakoak aldiz, erakunde autonomoa, Euskara Patronatua, alegia.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietan, Euskara Zuzendaritza da euskararen sustapenez arduratzen den atala, eta Arabakoan aldiz bi zerbitzu daude eginkizun honekin, Euskara Zerbitzua eta Euskararen Foru Zerbitzua.

Eusko Jaurlaritzako Sailen artean egoera oso desberdina da: HABE euskararen sustapena helburu duen erakunde autonomiaduna da; Kultura Sailak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak euskara zuzendaritza dute; HAEE/IVAPk zuzendaritzaordetza; 4 sailek zerbitzua dute (Euskal Herriko Polizia Ikastegiak, Eustatek, HUISek eta Lehendakaritzak; Ertzaintzak Euskara Saila/Arloa du; Ogasun eta Herri Administrazio Sailak aldiz, Departamentua; beste batzuetan euskararen inguruko lanpostuak bai (itzultzaileak nagusiki), baina atalik ez; eta azkenik, beste bitan ez dago euskararako giza baliabiderik (Emakunde eta Osalan).

46. Taula: Euskararen sustapenerako atalaren egitura hiriburu, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzako sailetan (2008)

Erakunde-mota	Erakundea	Egituraren inguruan emandako informazioa
Hiriburuak	Vitoria-Gasteizko Udala	Zerbitzua
	Bilboko Udala	Saila edo Arloa
	Donostiako Udala	Udalaren menpeko erakunde autonomoa
Foru Aldundiak	Arabako Foru Aldundia	Bi zerbitzu desberdin: 1- Euskara Zerbitzua 2- Euskararen Foru Zerbitzua
	Bizkaiko Foru Aldundia	Zuzendaritza
	Gipuzkoako Foru Aldundia	Zuzendaritza
Eusko Jaurlaritza	Kultura Saila	Zuzendaritza
	HABE	Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna
	HAAE/IVAP	Zuzendariordetza
	EMAKUNDE	Ez dago
	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	Ez dago bereziki zerbitzurik. Zerbitzu Zuzendaritza barruan gaude, eta momentu honetan itzultzaile bat eta euskara teknikari bat gaude.
	Ertzaintza	Saila edo arloa
	Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	Langileak eta Gai Orokorak ataleko lanpostua solteak.
	Euskal Herriko Polizia Ikastegia	Zerbitzua
	EUSTAT	Zerbitzua
	Herrizaingo Saila	Ez dago euskara atalik; euskararen kontuez arduratzen diren bi lanpostu baizik.
	Herrizaingo saila. Laboralak	Saila edo arloa
	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	Zerbitzua
	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila ..	Zuzendaritza
	Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila	Langileria eta Gai Orokorren Zerbitzuko lanpostu bat da.
	Lehendakaritza	Zerbitzua
	Ogasun eta Herri Administrazio Saila	Departamentua
OSALAN	Ez dago euskara atalik	
Osasun eta Kontsumo Saila	Itzulpen zerbitzua	

Iturria: Siadeco, 2009.

6.2.- AURREKONTUAK ONARTZEN DITUEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

Euskara aurrekontuak onartzen dituen administrazio-organoaz galdetuz, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udal gehien-gehien kasuan Osoko bilkurak edo Udalbatzak onartzen dituela ; zehazki 53 kasutan (%82,8). Bi kasutan Gobernu Batzordeak onartzen dituela erantzuten dute, eta beste bi kasutan Euskara Batzordeak. Alkatetzak onartzen dituela dio udal batek, eta bi dira bestelako organo bidez onartzen dituztenak.

47. Taula: Euskararen sustapenerako aurrekontuak onartzen dituen administrazio organoa
5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan (2008)

	Kop.	%
Osoko bilkura/Udalbatza	53	82,8
Gobernu Batzordea	2	3,1
Alkatetza	1	1,6
Euskara batzordea	2	3,1
Besterik	2	3,1
Erantzun gabe	4	6,3
GUZTIRA	64	100,0

Iturria: Siadeco , 2009.

Hiru hiriburuetan ere udalbatzak onartzen ditu euskararen sustapenerako aurrekontuak; eta foru aldundietan aldiz diferentziak daude. Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak onartzen ditu Arabako Foru Aldundiaren kasuan, eta Batzar Nagusiak Gipuzkoakoan. Bizkaikoaren erantzunik ez da jaso.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan diferentziak daude sail batetik bestera: kasu batzuetan Eusko Legebiltzarrak onartzen ditu aurrekontuok (HABE, Hezkuntza, Unibertsitate, eta Ikerketa Saila, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila), baina beste batzuetan Zerbitzu zuzendaritzak edo zerbitzuetako zuzendariak berak onartzen ditu (Kultura Saila, HAEE/IVAP, Herrizaingo Saila, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Lehendakaritza, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, adibidez). Badira ere euskara aurrekontu bereizirik ez dutenak: Emakunde, Garraio eta Herri Lan Saila eta Osalan, kasu.

48. Taula: Euskararen sustapenerako aurrekontuak onartzen dituen administrazio organoa hiriburuetan, foru aldundietan eta Eusko Jaurlaritzako sailetan (2008)

Erakunde-mota	Erakundea	Euskararen sustapenerako aurrekontuak onartzen dituen administrazio-organoa
Hiriburuak	Vitoria-Gasteizko Udala	Udalbatza
	Bilboko Udala.....	Udal Plenoa
	Donostiako Udala	Udalbatza
Foru Aldundiak	Arabako Foru Aldundia.....	Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza
	Bizkaiko Foru Aldundia.....	Ed/Ee
	Gipuzkoako Foru Aldundia.....	Batzar Nagusiak
Eusko Jaurlaritza	Kultura Saila	Zerbitzu zuzendaritza
	HABE.....	Eusko Legebiltzarra
	HAAE/IVAP.....	IVAPeko zuzendaria
	EMAKUNDE.....	Ez dago aurrekontu berezirik euskararako
	Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila.....	Sailak egiten ditu, baina onartu, legebiltzarrak onartzen ditu
	Ertzaintza	Kudeaketa Ekonomiko eta Kontratazio Zuzendaritza
	Garraio eta Herri lan Saila	Ez dago aurrekontu berezirik euskararako
	Euskal Herriko Polizia Ikastegia.....	Kontratazio eta Aurrekontu Atala
	EUSTAT	Zuzendaritza Nagusia
	Herrizaingo Saila.....	Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza
	Herrizaingo saila. Laboralak.....	Kudeaketa Ekonomiko eta Kontratazio zuzendaritza
	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila-Eusko Jaurlaritza-Legebiltzarra
	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.....	Zerbitzu Orokorretako zuzendaria
	Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila	Zerbitzu zuzendaritza
	Lehendakaritza.....	Zerbitzu Zuzendaritza
	Ogasun eta Herri Administrazio Saila.....	Kultura saila
OSALAN	Ez dago honelako organorik	
Osasun eta Kontsumo Saila	Ed/Ee	

Iturria: Siadeco, 2009.

6.3.- BESTE ARLOETAKO ZERBITZU EDO DEPARTAMENTUEKIKO ELKARLANA

5.000 biztanlez gorako udalerrietako 64 udaletatik 34tan (%53,1), euskara sustatzeko aurrekontu proposamena lantzen denean, udalaren barneko beste arloetako zerbitzu edo departamenturen batekin elkarlanean aritzen da euskara atala. Elkarlanean aritzen ez direnak berriz 25 dira (%39,1), eta 5ek ez dute erantzunik eman.

Zehazki zein arlo edo departamenturekin aritzen diren galdetuta, erantzunak askotarikoak dira, baina aipatuena Kultura (20 udalek aipatzen dute), eta neurri apalago batean Hezkuntza (10 udalek), Kirola, Gazteria eta Kontuhartzaitza dira (8na udalek aipatzen dute).

49. Taula: Euskara atala euskara sustatzeko aurrekontu proposamena lantzen ari denean, erakunde barneko beste arloetako zerbitzu edo departamenturekin elkarlanean aritzen al da? (2008)

5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak	Kop.	%
Bai	34	53,1
Ez	25	39,1
Ez daki/Erantzunik ez	5	7,8
GUZTIRA	64	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

Hiriburuen kasuan, Bilboko Udala da euskara aurrekontu proposamena, beste zerbitzu edo departamenturekin elkarlanean lantzen dituela erantzuten duen bakarra, eta foru aldundien kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Eusko Jaurlaritzako Sailen artean, bik besterik ez dute baietz erantzuten: Kultura Sailak eta HAEE/IVAPek.

6.4.- GIZA BALIABIDEAK LANPOSTU ETA KONTRATU MOTARI JARRAIKI

755 dira orotara Euskal Autonomi Erkidegoko herri administrazioan, euskararen sustapen eta normalizazio lanetan diharduten pertsonak. Horietatik, multzorik handienak (%59,6, 450 pertsona orotara), Eusko Jaurlaritzako Sail edo erakunderen batetan egiten du lan; 197 dira 5.000 biztanlez gorako udalerriren batean ari direnak (%26,1), 65 foru aldundiren batean (%8,6) eta 43 hiribururen batean (%5,7).

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, aipatzekoa da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak, euskara atalean lanean aritutako giza baliabidez galdetutakoan, 260 pertsona aipatzen dituela (horietatik 36 administrazio orokorreko langileak dira eta gainontzekoak programa ezberdinetan dabilten irakasleak); HABEK, bere giza baliabide guztiak aipatzen ditu (67 pertsona), HAEE/IVAPEk 45 pertsona eta Kultura Sailak 43.

Eusko Jaurlaritzako gainerako ataletan 35 dira euskararen sustatze eta normalizazio lanetan diharduten pertsonak.

5.000 biztanlez gorako udalerrietako udal guztietan badago euskara sustatze lanetan diharduen langilerik; orotara, esan bezala, 197 pertsona. Horietatik %59,4 Gipuzkoan ari dira, %37,8 Bizkaian eta %3,0 Araban.


Foru Aldundien kasuan aldiz, Bizkaikoan 26 pertsonak egiten dute lan, Gipuzkoakoan 25ek, eta Arabakoan 14k.

Hiriburuen kasuan, Donostiak eskaintzen ditu pertsona gehien (19 guztira), Bilbok nahiz Gasteizek 12na eskaintzen baitizkiote euskaren sustapen lanari.

50. Taula: Euskara sustatzeko giza baliabideak, erakunde-mota eta lurraldeari jarraiki (2008)

		Abs.	Erakunde- motarekiko %	%
Eusko Jauriaritza	Kultura Saila.....	43	9,6	5.7
	HABE.....	67	14,9	8.9
	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila ¹	260	57,8	34.4
	HAEE/IVAP	45	10,0	6.0
	Gainerako sailetan.....	35	7,8	4.6
	GUZTIRA	450	100,0	59.6
Foru Aldundietan	Arabako F.A.....	14	21,5	1.9
	Bizkaiko F.A.....	26	40,0	3.4
	Gipuzkoako F.A.	25	38,5	3.3
	GUZTIRA	65	100,0	8.6
5.000 biztanlez gorako udalerrietan	Araba (2 udalerrri)	6	3.0	0.8
	Bizkaia (32 udalerrri).....	74	37.6	9.8
	Gipuzkoa (30 udalerrri)	117	59.4	15.5
	GUZTIRA	197	100.0	26.1
	Gasteiz.....	12	27,9	1.6
Hiriburuetan	Bilbo	12	27,9	1.6
	Donostia	19	44,2	2.5
	GUZTIRA	43	100,0	5.7
	GUZTIRA	755		100,0

22. grafikoa: Euskara sustatzeko giza baliabideak, erakunde-mota eta lurraldeari jarraiki (%)




Iturria: Siadeco, 2009.

⁴ Hezkuntza Saileko 260 pertsona horiez eskuratu ahal izan den informazioa da 36 pertsona administrazio orokorrean lanean dabiltzala eta gainontzeko 224ak programa ezberdinetan lanean dabiltzan irakasleak direla. Bestelako informaziorik ez daukagunez, hemendik aurrerako taula eta grafikoetan ez ditugu aztertuko.

Lanpostu motari dagokionez, multzorik handiena euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileek osatzen dute, (160 pertsona orotara, %32,3), bigarrena itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteek (102 pertsona, %20,6) eta hirugarrena HABEko langileek (67 pertsona guztira, %13,5). Euskara arloko buru dira 60 pertsona (%12,1), eta administrazio lanetan dihardutenak, 58 (%11,7). Hizkuntza trebatzaileak 23 dira (%4,6) eta 1 kultura teknikaria (%0,2)

Kontratu motari dagokionez, langileen %55 funtzionarioak dira, eta %22,4 bitarteko funtzionarioak. Laboral finkoak dira langileen %10,3, eta aldi baterakoak, %5,5.

23. Grafikoa: Giza baliabideak, lanpostu motari jarraiki (N=495)



Iturria: Siadeco, 2009

51. Taula: Euskararen sustapenerako giza baliabideak, lanpostuari jarraiki (2008)

	Kop.	%
Euskara arloko burua(k)	60	12,1
Euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileak	160	32,3
Itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak	102	20,6
Hizkuntz trebatzaileak	23	4,6
Administrariak	37	7,5
Administrari laguntzaileak	21	4,2
Kultur teknikariak	1	0,2
HABEko pertsonala	67	13,5
Besterik	24	4,8
GUZTIRA	495	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

52. Taula: Euskararen sustapenerako giza baliabideak, kontratu-motari jarraiki (2008)


	Kop.	%
Funtzionarioak	272	54,9
Bitarteko Funtzionarioak	111	22,4
Aldi baterako langileak	27	5,5
Laboral finkoak	51	10,3
Besterik	32	6,5
Ed/Ee	2	0,4
GUZTIRA	495	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

Lanpostu mota bakoitzaren kontratu mota aztertuta, aldeak adierazgarriak dira. Honela, 45 euskara arlo buru funtzionarioak dira (%75,0), eta baita 72 itzultzaile, zuzentzaile eta interprete (%70,6) eta HABEko 52 langile (%77,6). Proporzioan nabarmen gutxiago dira funtzionarioak aldiz, euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile edo dinamizatzaileen artean (%40,0) edota trebatzaileen artean (%8,7). Azken bi lanpostu mota hauen artean bitarteko funtzionarioek pisua hartzen dute (%35 inguru dira bietan).

Administrarien artean, funtzionarioak nagusitzen dira (%67,6), eta administrari-laguntzaileen artean aldiz bitarteko funtzionarioak (%47,6).

24. grafikoa: Giza baliabideak, kontratu motari jarraiki (N=495)



Iturria: Siadeco, 2009

53. Taula: Euskararen sustapenerako giza baliabideak lanpostu eta kontratu motari jarraiki (2008)

	Funtzionarioak		Bitarteko funtzionarioak		Aldi baterako langileak		Laboral finkoak		Besterik		Ez dakit/ Erantzunik ez		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskara arloko buruak	45	16,5	8	7,2	1	3,7	4	7,8	2	6,3	-	-	60	12,1
<i>% hor</i>	75,0		13,3		1,7		6,7		3,3		-		100,0	
Euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileak	64	23,5	55	49,5	15	55,6	16	31,4	10	31,3	-	-	160	32,3
<i>% hor</i>	40,0		34,4		9,4		10,0		6,3		-		100,0	
Itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak	72	26,5	19	17,1	3	11,1	7	13,7	1	3,1	-	-	102	20,6
<i>% hor</i>	70,6		18,6		2,9		6,9		1,0		-		100,0	
Hizkuntza trebatzaileak	2	0,7	8	7,2	1	3,7	1	2,0	10	31,3	1	50,0	23	4,6
<i>% hor</i>	8,7		34,8		4,3		4,3		43,5		4,3		100,0	
Administrariak	25	9,2	10	9,0	-	-	1	2,0	1	3,1	-	-	37	7,5
<i>% hor</i>	67,6		27,0		-		2,7		2,7		-		100,0	
Administrari laguntzaileak	6	2,2	10	9,0	3	11,1	1	2,0	1	3,1	-	-	21	4,2
<i>% hor</i>	28,6		47,6		14,3		4,8		4,8		-		100,0	
Kultur teknikariak	1	0,4	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	0,2
<i>% hor</i>	100,0		-		-		-		-		-		100,0	
HABEko pertsonala	52	19,1	-	-	-	-	14	27,5	1	3,1	-	-	67	13,5
<i>% hor</i>	77,6		-		-		20,9		1,5		-		100,0	
Besterik	5	1,8	1	0,9	4	14,8	7	13,7	6	18,8	1	50,0	24	4,8
<i>% hor</i>	20,8		4,2		16,7		29,2		25,0		4,2		100,0	
GUZTIRA	272	100,0	111	100,0	27	100,0	51	100,0	32	100,0	2	100,0	495	100,0
<i>% hor</i>	54,9		22,4		5,5		10,3		6,5		0,4		100,0	

Iturria: Siadeco, 2009.

6.5.- GIZA BALIABIDEAK ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI

Aurreko atalean, euskararen sustapen eta normalizazio lanetan diharduten pertsonen zein lanpostu eta kontratu mota dagokien aztertu dugu, datu orokorren bidez. Honetan berriz, eta erakunde-mota batetik bestera egoera nahikoa desberdina dela kontuan izanik, erakunde-mota eta erakunde hori kokatutako lurraldearen arabera aztertuko ditugu, laburki.

Eusko Jaurlaritzak euskara sustapenari eskainitako giza baliabideei buruz esan, multzorik handiena HABEko langileek osatzen dutela (67 langile guztira, Eusko Jaurlaritzako langileen %35,3). Euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileak 54 dira (%28,4), eta itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak 25 (%13,2). Euskara arloko buruak guztira 16 dira (HAEE/IVAPen 8 eta Kultura Sailean 6).

190 pertsona hauetatik, eta kontratu motari dagokionez, funtzionarioak 100 dira (%52,6), bitarteko funtzionarioak 63 (%33,2) eta laboral finkoak 20 (%10,5).

Foru Aldundietan, euskararen normalizazio eta sustapenean lanean ari diren 65 pertsonetatik, 39 funtzionario dira (%60), 12 bitarteko funtzionario (%18,5) eta 13 dira bestelako kontratuak dituztenak (%20,0).

Lanpostu motari dagokionez, multzorik handiena itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteek osatzen dute (25 - %38,5). Euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileak 12 dira (%18,5), hizkuntza trebatzaileak 9 (%13,8) eta euskara arloko buruak, 8 (%12,3), Bizkaiko Foru Aldundian 5, Arabakoan 2 eta Gipuzkoakoan 1.

5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan, euskara sustatze lanetan diharduten 197 pertsonetatik, 101 funtzionarioak dira (%51,8), 31 laboral finkoak (%16,5), 29 bitarteko funtzionarioak (%14,2) eta aldi baterako langileak, 22 (%11,5).

Lanpostu motari dagokionez, talderik handiena euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileek osatzen dute (76 pertsona - %38,6); itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak 41 dira (%20,8) eta euskara arloko buruak 33 (%16,8).

Batez beste, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako Bizkaiko udaletan 2,31 dira euskara sustatze lanetan diharduten pertsonak, Arabakoetan 3 pertsona/udaleko, eta Gipuzkoakoetan aldiz, 3,90 pertsona/udaleko.

Hiriburuetan, euskararen sustapenean lanean diharduten 43 pertsonetatik, ia hiru laurden (32 pertsona) funtzionarioak dira; gainerakoak bitarteko funtzionario dira (7 pertsona), edo bestelako kontratu motaren batekin ari dira lanean (4 pertsona).

43 pertsona horietatik, 18 euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileak dira (%41,9), 11 itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak (%25,6) eta beste 11 administrari edo administrari laguntzaileak (%25,6).

54. Taula: Giza baliabideak kontratu mota eta lanpostuari jarraiki, erakunde-motaren arabera (2008)

	Eusko Jaurlaritzza		Foru Aldundiak		5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak		Hiriburuak		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Kontratu mota										
Funtzionarioak	100	52,6	39	60,0	101	51,8	32	74,4	272	54,9
Bitarteko Funtzionarioak.....	63	33,2	12	18,5	29	14,2	7	16,3	111	22,4
Aldi baterako langileak.....	4	2,1	1	1,5	22	11,5	-	-	27	5,5
Laboral finkoak.....	20	10,5	-	-	31	16,5	-	-	51	10,3
Besterik.....	1	0,5	13	20,0	14	6,0	4	9,3	32	6,5
Ed/Ee	2	1,1	-	-	-	-	-	-	2	0,4
GUZTIRA	190	100,0	65	100,0	197	100,0	43	100,0	495	100
Lanpostua										
Euskara arloko burua(k).....	16	8,4	8	12,3	33	16,8	3	7,0	60	12,1
Euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileak.....	54	28,4	12	18,5	76	38,6	18	41,9	160	32,3
Itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak	25	13,2	25	38,5	41	20,8	11	25,6	102	20,6
Hizkuntz trebatzaileak	2	1,1	9	13,8	12	6,1	0	0,0	23	4,6
Administrariak.....	5	2,6	10	15,4	14	7,1	8	18,6	37	7,5
Administrari laguntzaileak.....	9	4,7	-	-	9	4,6	3	7,0	21	4,2
Kultur teknikariak	-	0,0	-	-	1	0,5	-	-	1	0,2
HABEko langileak.....	67	35,3	-	-	-	0,0	-	-	67	13,5
Besterik.....	12	6,3	1	1,5	11	5,6	-	-	24	4,8
GUZTIRA	190	100,0	65	100,0	197	100,0	43	100,0	495	100,0
% hor	<i>38,4</i>		<i>13,1</i>		<i>39,8</i>		<i>8,7</i>		<i>100,0</i>	

Iturria: Siadeco, 2009.

55. Taula: Giza baliabideak kontratu mota eta lanpostuari jarraiki, Eusko Jaurlaritzako Sailaren (HUIS salbu) arabera (2008)

	Kultura Saila	IVAP-HAEE	HABE	Gainerako sailak	EUSKO JAURLARITZA GUZTIRA	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	%
Kontratu mota						
Funtzionarioak.....	18	14	52	16	100	52,6
Bitarteko Funtzionarioak	25	31	-	7	63	33,2
Aldi baterako langileak	-	-	-	4	4	2,1
Laboral finkoak	-	-	14	6	20	10,5
Besterik	-	-	1	-	1	0,5
Ed/Ee	-	-	-	2	2	1,1
GUZTIRA	43	45	67	35	190	100,0
Lanpostu mota						
Euskara arloko burua(k)	6	8	-	2	16	8,4
Euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileak	28	18	-	8	54	28,4
Itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak	1	13	-	11	25	13,2
Hizkuntz trebatzaileak	-	-	-	2	2	1,1
Administrariak	4	1	-	-	5	2,6
Administrari laguntzaileak	4	5	-	-	9	4,7
Kultur teknikariak	-	-	-	-	-	-
HABEko langileak	-	-	67	-	67	35,3
Besterik	-	-	-	12	12	6,3
GUZTIRA	43	45	67	35	190	100,0
% hor	22,6	23,7	35,3	18,4	100,0	

Iturria: Siadeco, 2009.

56. Taula: Giza baliabideak kontratu mota eta lanpostuari jarraiki EAEko hiru foru aldundietan (2008)

	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia	Foru Aldundiak guztira	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	%
Kontratu mota					
Funtzionarioak	6	20	13	39	60,0
Bitarteko Funtzionarioak.....	6	5	1	12	18,5
Aldi baterako langileak	-	-	1	1	1,5
Laboral finkoak.....	-	-	-	-	-
Besterik.....	2	1	10	13	20,0
Ed/Ee.....	-	-	-	-	-
GUZTIRA	14	26	25	65	100,0
Lanpostu mota					
Euskara arloko burua(k).....	2	5	1	8	12,3
Euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileak.....	3	5	4	12	18,5
Itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak.....	7	10	8	25	38,5
Hizkuntz trebatzaileak.....	-	-	9	9	13,8
Administrariak.....	2	5	3	10	15,4
Administrari laguntzaileak.....	-	-	-	-	-
Kultur teknikariak.....	-	-	-	-	-
Besterik	-	1	-	1	1,5
GUZTIRA	14	26	25	65	100,0
% hor	21,5	40,0	38,5	100,0	

Iturria: Siadeco, 2009.

57. Taula: Giza baliabideak kontratu mota eta lanpostuari jarraiki, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan, lurraldearen arabera (2008)

	Arabako Udalak	Bizkaiko udalak	Gipuzkoako Udalak	5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak guztira	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	%
Kontratu mota					
Funtzionarioak.....	3	33	65	101	51.3
Bitarteko Funtzionarioak.....	2	12	15	29	14.7
Aldi baterako langileak.....	-	15	7	22	11.2
Laboral finkoak.....	-	7	24	31	15.7
Besterik.....	1	7	6	14	7.1
Ed/Ee.....	-	-	-	-	-
GUZTIRA	6	74	117	197	100.0
Lanpostu mota					
Euskara arloko burua(k).....		10	23	33	16.8
Euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileak	2	30	44	76	38.6
Itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak.....	1	20	20	41	20.8
Hizkuntz trebatzaileak.....	-	4	8	12	6.1
Administrariak.....	1	3	10	14	7.1
Administrari laguntzaileak.....	1	5	3	9	4.6
Kultur teknikariak.....	-	1	-	1	0.5
Besterik.....	1	1	9	11	5.6
GUZTIRA	6	74	117	197	100,0
% hor	3.0	37.6	59.4	100.0	
Pertsona / udaleko ratioa.....	3.00	2.31	3.90	3.08	

Iturria: Siadeco, 2009.

58. Taula: Giza baliabideak kontratu mota eta lanpostuari jarraiki EAEko hiru hiriburuetan (2008)

	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Hiriburuak guztira	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	%
Kontratu mota					
Funtzionarioak	6	10	16	32	74,4
Bitarteko Funtzionarioak.....	2	2	3	7	16,3
Aldi baterako langileak	-	-	-	-	-
Laboral finkoak.....	-	-	-	-	-
Besterik.....	4	-	-	4	9,3
Ed/Ee.....	-	-	-	-	-
GUZTIRA	12	12	19	43	100,0
Lanpostu mota					
Euskara arloko burua(k)	1	1	1	3	7,0
Euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileak	5	3	10	18	41,9
Itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak.....	4	4	3	11	25,6
Hizkuntz trebatzaileak.....	-	-	-	-	-
Administrariak.....	1	2	5	8	18,6
Administrari laguntzaileak.....	1	2	-	3	7,0
Kultur teknikariak.....	-	-	-	-	-
Besterik	-	-	-	-	-
GUZTIRA	12	12	19	43	100,0
% hor	27,9	27,9	44,2	100,0	

Iturria: Siadeco, 2009.

6.6.- GIZA BALIABIDEEN LAN KATEGORIA

Euskararen normalizazio eta sustapen lanetara EAeko administrazio publikoan lanean diharduten 495 pertsonetatik 75 (%15,2) zein kategoriatan kokatzen diren zehaztu gabe geratu da (hauetatik 67 HABEkoak). Bestelakoan, multzorik handiena, zehazki 208 pertsona, B taldekoak, erdi mailako kidegokoak dira (%42), eta 129 A taldekoak, goi mailako kidegokoak, alegia (%26,1). C taldean kokatzen dira 50 pertsona (%10,1) eta D taldean, 24 pertsona (%4,8).

59. Taula: Euskararen sustapenerako giza baliabideak lan kategoriarri jarraiki (2008)

	Guztira	%
A taldea, goi mailako kidegoa	129	26,1
B taldea, erdi mailako kidegoa	208	42,0
C taldea, administrarien kidegoa	50	10,1
D taldea, administrari-laguntzaileen kidegoa	24	4,8
E taldea, subalternoak	-	0,0
Besterik	9	1,8
Ez dakit / Erantzunik ez	75	15,2
GUZTIRA	495	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

6.7.- GIZA BALIABIDEEN LAN KATEGORIA, ERAKUNDE MOTARI JARRAIKI

Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoetan (HUIS salbu) lan egiten dute 190 pertsonetatik, 69ren lan kategoria ez ezagutzeak datuez egin dezakegun interpretazioa baldintzatzen du, ezbairik gabe⁵. Jasotako erantzunen artean, dena den, azpimarratzekoa da A taldeko kideen presentzia. Izan ere informazioa dugun 121 lagunetatik 77 (%63,6) A taldekoak dira; 30 dira B taldekoak direnak (%24,8), 5 C taldekoak eta 9, D taldekoak.

Foru aldundi batean euskararen normalizazio lanetan dihardutenen 65 pertsonetatik, 27 (%41,5) B taldekoak dira, eta 26 A taldekoak (%40,0) B taldekoak. Guztira 11 dira C taldean kokaturikoak.

Foru aldundi batetik bestera dauden aldeak oso nabarmenak dira: Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundietan A taldeko kideak dira gehienak (%60 pasa bi kasuetan); Gipuzkoako Foru Aldundian aldiz, B taldea da, nabarmen gainera, nagusitzen dena (%84,0)

5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan euskara sustatzeko lanetan dabiltzan 197 pertsonetatik, 124 B taldeko kideak dira, erdi mailako kidegoko kideak, alegia (%62,9). Distantzia handira C taldeko, administrarien kidegoko 26 pertsonak, eta A taldeko, hots, goi mailako kidegoko 21 pertsonak datoz.

Arabako Udaletan, proportzionalki gehiago dira A taldeko kideak; Bizkaiko Udaletan zertxobait gehiago dira bai A taldekoak, baita C taldekoak ere; eta Gipuzkoako Udaletan nabarmen gailentzen dira B taldeko kideak.

Euskara sustatze lanetan hiriburuetan lan egiten duten 43 pertsonetatik, 27 B taldean kokatzen dira (%62,8). C taldean kokaturikoak datoz ondoren (8 pertsona), eta A taldekoak hirugarren (5 pertsona). Hiriburuaren arabera halere datuok nahikoa desberdinak dira: zan ere Gasteizen B taldeko kideek pisu handia dute, Bilbon A taldekoek, eta Donostian berriz B eta C taldeko kideek.

⁵ Izan ere, ez dugu HABEko 67 pertsonen inguruko informaziorik lortzerik izan.

60. Taula: Euskararen sustapenerako giza baliabideen lan kategoria, Eusko Jaurlaritzan (HUIS salbu) (2008)

	Kultura Saila (HABE barne)	HAEE/IVAP	Gainerako sailak	GUZTIRA	
				Kop.	%
A taldea, goi mailako kidegoa	35	25	17	77	40,5
B taldea, erdi mailako kidegoa	-	14	16	30	15,8
C taldea, administrarien kidegoa	4	1	-	5	2,6
D taldea, administrari-laguntzaileen kidegoa	4	5	-	9	4,7
E taldea, subalernoak	-	-	-	-	-
Besterik	-	-	-	-	-
Ez dakit / Erantzunik ez	67	-	2	69	36,3
GUZTIRA	110	45	35	190	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

Oharra: HABEko langileak dira Kulturaren Barnean kategoria zehaztu gabe duten 67 lagunak.

61. Taula: Euskararen sustapenerako giza baliabideen lan kategoria, foru aldundietan (2008)

	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia	GUZTIRA	
				Kop.	%
A taldea, goi mailako kidegoa	9	16	1	26	40,0
B taldea, erdi mailako kidegoa	3	3	21	27	41,5
C taldea, administrarien kidegoa	2	6	3	11	16,9
D taldea, administrari-laguntzaileen kidegoa	-	-	-	-	-
E taldea, subalernoak	-	-	-	-	-
Besterik	-	1	-	1	1,5
Ez dakit / Erantzunik ez	-	-	-	-	-
GUZTIRA	14	26	25	65	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.

62. Taula: Euskararen sustapenerako giza baliabideen lan kategoria, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan (2008)

	Arabako Udalak	Bizkaiko Udalak	Gipuzkoko Udalak	GUZTIRA	
				Kop.	%
A taldea, goi mailako kidegoa	2	10	9	21	10.7
B taldea, erdi mailako kidegoa	1	38	85	124	62.9
C taldea, administrarien kidegoa	1	13	12	26	13.2
D taldea, administrari-laguntzaileen kidegoa	1	4	7	12	6.1
E taldea, subalernoak	-	-	-	-	-
Besterik	1	6	1	8	4.1
Ez dakit / Erantzunik ez	-	3	3	6	3.0
GUZTIRA	6	74	117	197	100,0

Iturria: Siadeco , 2009.

63. Taula: Euskararen sustapenerako giza baliabideen lan kategoria, EAEko hiru hiriburuetan (2008)

	Gasteiz	Bilbo	Donostia	GUZTIRA	
				Kop.	%
A taldea, goi mailako kidegoa	-	4	1	5	11,6
B taldea, erdi mailako kidegoa	100	4	13	27	62,8
C taldea, administrarien kidegoa	10	2	5	8	18,6
D taldea, administrari-laguntzaileen kidegoa	10	2	-	3	7,0
E taldea, subalernoak	-	-	-	-	-
Besterik	-	-	-	-	-
Ez dakit / Erantzunik ez	-	-	-	-	-
GUZTIRA	120	12	19	43	100,0

Iturria: Siadeco , 2009.

7.

FINANTZAKETA MODUA

7.1.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO SAIL ETA ERAKUNDE ARTEKO DIRU-TRANSFERENTZIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko guztien artean euskararako 2008ko aurrekontua kalkulatzekoan (187,5 milioi euro), sail eta erakunde arteko diru-transferentziak kontuan hartu eta gastuen bikoizketa ekiditeko neurriak hartu dira (ikus sailen eta erakundeen arteko diru-transferentziak 2.2 ataleko 5. taulan).

Txostenean zehar, datuak erakunde-motaren arabera lantzen direnean, erakunde horiek likidatutako guztirako euskara aurrekontua da azaldu eta aztertzen dena. Hau da, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen euskara aurrekontua kapitulu ekonomikoen arabera, edo EBPEN eremuen arabera aztertzerakoan, adibidez, barne hartzen ditugu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, HAEE/IVAPEk nahiz Foru Aldundiek udal hauei egindako diru transferentziak (4,5 milioi euroko diru-transferentziak). Hiriburuen euskara aurrekontua aztertzerakoan ere, beraiek beste erakundeetatik jasotako ia 500 mila euroak ere barne hartzen dira. Eta foru aldundiena aztertzerakoan, beraiek udalei egindako diru-transferentzia horiek ere beraien euskara aurrekontuaren barne aztertzen dira.

Datu globalak edo orokorrak ematerakoan baina, kopuru horiek bikoiztu ez daitezten (diru-transferentzia egiten duenaren eta jasotzen duenaren diru kopurua bikoiztu ez dadin), hartzaileari nolabait ere "kendu" egiten diogu jasotako transferentziaren kopurua. Honela, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen euskara aurrekontu likidatua lantzen dugunean 33,6 milioi euroz ari gara; baina datu orokorretan "euskara aurrekontu bateratuaz" ari garenean, udal horiei dagokien euskara aurrekontua 29,1 milioi eurokoa da (beste erakundeetatik jasotzen dituzten 4,5 milioi horiek kenduta, alegia).

Eusko Jaurlaritzako sailen kasuan ere planteamendu bera egin da: sailkako azterketan, sail bakoitzaren euskara aurrekontua da aztertzen dena; baina Eusko Jaurlaritzaren azterketa orokorra egiterakoan, sailen artean dauden diru-transferentzia horiek hartzaileari kendu zaizkio bikoizketak saihesteko.

7.2.- DIRU SARRERAK ERAKUNDE MOTARI JARRAIKI

Euskararen sustapenerako aurrekontuen azterketa osatzeko, euskararen sustapen programa eta ekintzen finantziatorako 2008an izandako diru-sarrereri buruzko informazioa eskatu zaie erakunde guztiei. Atal honetan, erakunde bakoitzak aitortutako diru-sarrerak ageri dira eta udalen kasuan esaterako, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundietatik jasotako dirulaguntzez gain, baita udalek izandako berezko sarrerak ere (tasak, matrikulak, salmentak...)

Kontuan izan behar da erakunde arteko diru-transferentziak kalkulatzeko, erakunde diru-emaileak kontabilizatutako kopuruak izan ditugula kontuan, ez erakunde diru-hartzaileak adierazitakoa.

Eusko Jaurlaritzako sailei edo erakundeei dagokionez, HABEren diru-sarrera gisa agertzen da Sail desberdinek egindako diru-ekarpena (Kultura Sailetik 28.039.100; HAEEtik 9.817.857; Hezkuntzatik 1.469.149; Justiziatik 1.190.118; Osakidetzatik 510.930). Horretaz aparte, HAE/IVAP eta HABE dira matrikula-tasa eta bestelakoetan dirua jasotzen duten bakarrak, salmenta bidez (argitalpen eta ikasmaterialen salmentaz) edo bestelako diru-sarrera propioak (beste prestakuntza zerbitzuak direla eta) dituen erakunde bakarra HABE delarik.

64. Taula: Eusko Jaurlaritzako sailek ekintza eta programak finantzatzeko jasotako diru sarrerak (2008)

	Kultura Saila		Hezkuntza Saila (HUIS)		HAE/IVAP		HABE		Gainerako sailak		Eusko Jaurlaritza osoa	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Beste erakundeetatik jasotako dirulaguntzak												
Eusko Jaurlaritza.....	-	-	-	-	-	-	41.027.154	97,7	-	-	41.027.154	97,0
Foru Aldundia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Estatuko administrazio zentrala.....	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Europar Batasuneko erakundea.....	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Beste erakunderen bat	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA beste erakundeetatik jasotakoa	-	-	-	-	-	-	41.027.154	97,7	-	-	41.027.154	97,0
Diru sarrera propioak												
Matrikula-tasak eta bestelakoak.....	-	-	-	-	315.241	100	335.161	0,8	-	-	650.402	1,5
Salmenta bidezko diru-sarrerak.....	-	-	-	-	-	-	45.505	0,1	-	-	45.505	0,1
Bestelako diru-sarrera propioak	-	-	-	-	-	-	568.878	1,4	-	-	568.878	1,3
Bestelako diru-sarrera propioak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA diru sarrera propioak	-	-	-	-	315.241	100	949.544	2,3	-	-	1.264.785	3,0
GUZTIRA erakundeetatik jasotakoa eta propioa	-	-	-	-	315.241	100	41.976.698	100,0	-	-	42.291.939	100,0

Iturria: Siadeco , 2009.

HABEk: Kulturatik 28.039.100; HAEEtik 9.817.857; Hezkuntzatik 1.469.149; Justiziatik 1.190.118; Osakidetzatik 510.930;

Foru Aldundiek ez dute inongo diru-sarrerarik; ez beste erakundeetatik jasotako diru-sarrerarik, ez euskararen sustapenerako zerbitzu eta ekintzen inguruko bestelako diru-sarrera propiorik.

Azterketan parte hartu duten 5.000 biztanlez gorako udalerrietako 64 udaletatik (hiriburuak kanpo), 40 dira beste erakunderen batetik dirulaguntzak jasotzen dituztenak (%62,5): 36k Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jasotzen dutela adierazten dute (%56,3k beraz), eta 47k bere lurraldeko foru aldundiarena (%73,4). Udal batek estatuko administrazio zentralaren dirulaguntza jasotzen duela adierazten du, eta 5ek beste erakunde batekoa.

Euskararen sustapenerako zerbitzu eta ekintzen inguruan 2008an izandako diru-sarrera propioez, esan, 34k matrikula-tasa eta bestelakoak kobratu dituztela (%53,1), eta 5ek salmenta bidezko diru-sarrerak izan dituztela (%7,8k). Bestelako sarrera propioak 7 udalek dituzte (%10,9k).

65. Taula: 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalek ekintza eta programak finantzatzeko jasotako diru sarrerak (2008)

	Arabako udalak		Bizkaiko udalak		Gipuzkoako udalak		GUZTIRA		Udal kopurua
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	
Beste erakundeetatik jasotako dirulaguntzak									
Eusko Jaurlaritza.....	9.696	9,3	1.266.930	50,1	1.513.445	59,9	2.790.071	54,0	36
Foru Aldundia.....	20.438	19,5	1.136.548	44,9	288.766	11,4	1.445.752	28,0	47
Estatuko administrazio zentrala	-	-	147.542	5,8	-	-	147.542	2,9	1
Europar Batasuneko erakundea	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Beste erakunderen bat	-	-	-	-	124.549	4,9	124.549	2,4	5
GUZTIRA beste erakundeetatik jasotakoa	30.134	28,8	1.793.623	70,9	1.864.964	73,8	3.688.721	71,4	40
Diru sarrera propioak									
Matrikula-tasak eta bestelakoak	74.677	71,2	736.696	29,1	566.174	22,4	1.377.547	26,7	34
Salmenta bidezko diru-sarrerak	-	-	-	-	17.873	0,7	17.873	0,3	5
Bestelako diru-sarrera propioak.....	-	-	-	-	59.335	2,3	59.335	1,1	7
Bestelako diru-sarrera propioak.....	-	-	-	-	20.362	0,8	20.362	0,4	3
GUZTIRA diru sarrera propioak	74.677	71,2	736.696	29,1	663.744	26,2	1.475.117	28,6	37
GUZTIRA erakundeetatik jasotakoa eta diru-sarrera propioa	104.811	100,0	2.530.319	100,0	2.528.708	100,0	5.163.838	100,0	

Iturria: Siadeco, 2009.

Hiriburuei dagokionez, hirurek jasotzen dute Eusko Jaurlaritzaren (Kultura sailaren) nahiz bere lurraldeko foru aldundiaren dirulaguntza, eta horiei erantsi behar zaizkie Gasteizko udalak HAEE/IVAPetik jasotako dirulaguntza eta Bilbokoak BBKtik jasotakoa.

Diru-sarrera propioei dagokionez, Donostiak eta hein apalago batean Gasteizek kobratzen dituzte matrikula-tasak, eta Donostiak ere zehaztu ditu bestelako diru-sarrera propioak (euskara ikasteko dirulaguntzen itzulketak eta kutzako interesak).

66. Taula: EAEko hiriburuak ekintza eta programak finantzatzeko jasotako diru sarrerak (2008)

	Gasteiz		Bilbo		Donostia		Hiriburuak guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Beste erakundeetatik jasotako dirulaguntzak								
Eusko Jaurlaritzaren.....	57.540	21,9	60.000	23,7	43.255	13,3	160.795	19,1
Foru Aldundia.....	40.000	15,2	142.921	56,5	21.639	6,7	204.560	24,3
Estatuko administrazio zentrala.....	-	-	-	-	-	-	-	-
Europar Batasuneko erakundea.....	-	-	-	-	-	-	-	-
Beste erakunderen bat.....	140.073	53,2	50.000	19,8	-	-	190.073	22,6
GUZTIRA beste erakundeetatik jasotakoa	237.613	90,3	252.921	100,0	64.894	20,0	555.428	66,0
Diru sarrera propioak								
Matrikula-tasak eta bestelakoak.....	25.514	9,7	-	-	252.740	77,7	278.254	33,1
Salmenta bidezko diru-sarrerak.....	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelako diru-sarrera propioak.....	-	-	-	-	891	0,3	891	0,1
Bestelako diru-sarrera propioak.....	-	-	-	-	6.648	2,0	6.648	0,8
GUZTIRA diru sarrera propioak	25.514	9,7	-	-	260.279	80,0	285.793	34,0
GUZTIRA erakundeetatik jasotakoa eta propioa	263.127	100,0	252.921	100,0	325.173	100,0	841.221	100,0

Iturria: Siadeco, 2009.



Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak, hizkuntza normalkuntzarako eta euskararen sustapenerako kudeatzen dituen diru baliabide, dirulaguntza eta hitzarmenei, eta eginkizun honetarako erabiltzen dituen giza baliabideei buruzko ikerlana da hau. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz egin du Siadecok ikerlan hau, eta txosten honetan biltzen dira azterketa honen emaitza eta daturik nagusienak.

Laburki, azterlan honen helburu nagusiak ondorengoak izan dira:

- 1.- Hizkuntza normalkuntzaren datu ekonomikoak ezagutzea, alegia, EAEko administrazio publikoak euskararen sustapenerako urtean zenbat diru erabiltzen duen jakitea.
- 2.- 2002. urteaz geroztik, euskara aurrekontuek izan duten bilakaeraren azterketa egitea.
- 3.- Euskara sustatzeko diru baliabideak nola banatzen diren jakitea: bai kapitulu ekonomikoei jarraiki, baita gizarte eremu bakoitzean izan duten banaketari jarraiki (euskalduntze alfabetatzea, administrazioa, lan-arloa, ...).
- 4.- Euskararen sustapenean gastatutako diru kopuru honetatik, dirulaguntza eta hitzarmenetan zenbat erabiltzen den jakitea; eta zehazki zein alorretara zuzentzen diren laguntza hauek.
- 5.- Hizkuntza normalkuntza lanetan aritzeko administrazio publikoak erabiltzen dituen giza baliabide eta egitura-motei buruzko informazioa jasotzea.

Hizkuntza normalkuntza eta euskararen sustapenerako diru baliabide eta giza baliabideen ikerlanaren unibertsoa EAEko 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalek (3 hiriburuak eta bestelako 64 udal), foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak (erakunde autonomiadunak barne) osatu dute. Eusko Jaurlaritzari dagokionean, aurrean izan da berrikuntzarik, eta orain arte informazioa eskatzen zitzaizkien hiru sailei ez ezik, sail guztiei eskatu baitzaie euskararen sustapenerako erabilitako aurrekontu, eskaintako dirulaguntza eta giza baliabideen inguruko informazioa.

EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUAK: DATU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak orotara, 187,5 milioi euro erabili ditu 2008. urtean euskararen normalizaziorako, hots, "euskararen normalizazio eta sustapena helburu duten zuzeneko ekintza eta baliabideetarako". Kopuru horren ia %70 Eusko Jaurlaritzaren euskara aurrekontuari dagokio (130,4 milioi), %15,5 5.000 biztanlez gorako udalen aurrekontuari (29,1 milioi), %4,3 hiriburuen aurrekontuari (ia 8 milioi), eta %10,6 foru aldundien euskara aurrekontuari (20 milioi).

Kopuru hauek, erakunde arteko diru-transferentziak kenduta kalkulatu dira: hau da Eusko Jaurlaritzatik nahiz foru aldundietatik udaletara, euskararen normalizazioa sustatzeko transferitutako diru kopuruak kenduta. Hauxe da beraz erakunde-mota bakoitzaren euskara aurrekontu propioa, eta nolabait esatearren euskara aurrekontu neto edo garbi orokorra.

EAEko administrazio publikoaren aurrekontuen azterketaren ondorio azpimarragarrienak, berriz:

- 2008an erakunde publikoen euskara aurrekontu bateratua, esan bezala, 187,5 milioi eurokoa da; erakunde horien aurrekontu publiko osoa aldiz, 15.175,8 milioi eurokoa. Euskarari eskainitako aurrekontua, beraz, aurrekontu osoaren %1,24.
- Biztanleko beraz, EAEko administrazio publikoak, orotara 7.127 euro inguru gastatzen ditu biztanleko, eta horietatik, euskara sustatu eta normalizatzera zuzendutakoak 88 euro.
- Kopuru absolutuetan, euskara aurrekontuak gora egin du aurreko urteekiko: 2002. urtean 128,5 milioi izatetik, 187,6 milioi izatera pasa da 6 urtean.
- Erlatiboki edo ehunekoetan, aldiz, 2008ko euskara aurrekontuak aurrekontu osoekiko duen pisua (%1,24), 2006. urtean zuena baino zertxobait altuagoa izan arren, 2002 eta 2004. urteetan izan zuena baino baxuagoa da (%1,35 eta %1,44 hurrenez hurren)⁶.
- Edonola ere, kopuru absolutuetan EAE mailako euskara aurrekontuek beti egin dute gora 2002tik 2008ra eta aurreko jaisiera hori ez da euskararako baliabide gutxiago erabili delako, proportzionalki erakundearen aurrekontu osoek igoera handiagoa izan dutelako baizik.

⁶ Bi urte horietako azterketak aurrekontu onartuekin egin ziren, eta ez likidatuekin; ezin baztertu beraz erabat, aldaketa metodologiko horrek izan dezakeen eragina.

- Erakunde-motari jarraiki, eta beti ere euskara aurrekontuak erakundearen aurrekontu osoarekiko duen pisuari erreparatuta, euskarari proportzionalki baliabide gehien eskaintzen diotenak, hiriburuak ez diren 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak dira: 2008. urtean bere aurrekontu publiko osoaren %2,06 euskara normalizatu eta sustatzeko ekintzetara bideratu zuten. Eusko Jaurlaritza dator ondoren, bere aurrekontu osoaren %1,40 eskainiz, eta nabarmen beherago hiriburuak eta foru aldundiak (%0,69 eta %0,66 hurrenez hurren).
- Aurtengo datuok 2006. urtekoekin alderatuz (ezin bazter baitaiteke 2002 eta 2004ko urteekiko bilakaera aztertzean, aurrekontu onartuak izateak izan lezakeen eragina), euskara sustatzeari eskaintako diru baliabideen aurrekontu osoarekiko ehunekoek gora egin dute zertxobait: 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan, foru aldundietan nahiz Eusko Jaurlaritzan. Bere horretan mantentzen dira aldiz hiriburuen kasuan.

➤ EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUAK EUSKO JAURLARITZAN

Orotara, Eusko Jaurlaritzak 130,4 milioi eskaini ditu euskara sustatu eta normalizatzeko, bere aurrekontu osoaren %1,40: Kultura Sailak (HABE barne hartuta), ia 70 milioi euro (bere aurrekontu osoaren %28,15), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 53,5 milioi euro (bere aurrekontu osoaren %2,20), Ogasun Sailak (IVAP/HAEE barne) 14 milioi euro, (aurrekontuaren %7,02), eta aurten lehen aldiz azertu diren gainerako sailek, orotara 4,4 milioi euro. (Kopuru horiek sailek erabilitako euskara aurrekontua islatzen dute; gero orotara, Eusko Jaurlaritzak erabilitako 130,4 milioietara iristeko, sail horien arteko diru-transferentziak kendu behar ditugu).

Biztanleko beraz, Eusko Jaurlaritzak 61,25 euro likidatu ditu euskara sustatu eta normalizatzeko-

2006. urtetik 2008ra bitartean, Eusko Jaurlaritzak euskarari eskaintako aurrekontuan egin duen igoera (24,4 milioi), Hezkuntza Saileko 10 milioiko igoerari eta Kultura Saileko 8 milioikoari zor zaio nagusiki.

➤ EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUAK FORU ALDUNDIETAN

Hiru foru aldundien aurrekontua, orotara, 3.005 milioi eurokoa izan da; eta horretatik euskararen normalizatzeko eta sustapenerari eskainitakoa, ia 20 milioi euro. Euskarari beraz, aurrekontu osoaren %0,66 eskaini diote batez beste: Arabako Foru Aldundiak 2 milioi euro inguru erabili ditu euskara sustatzeko (bere aurrekontuaren %0,43), Bizkaiko Foru Aldundiak 10,8 milioi euro inguru (bere aurrekontuaren %0,62), eta Gipuzkoakoak 7,1 milioi inguru (aurrekontuaren %0,89).

Kopuru absolutuetan, orotara, %24,84ko igoera izan dute foru aldundietako euskara aurrekontuek 2006ko aurrekontuekiko, eta 3etan egin du gora euskarari eskainitako aurrekontuak. Proporzionalki, aurrekontu osoarekiko ere gora egin dute euskara aurrekontuek Arabako Foru Aldundian eta Gipuzkoakoan, eta behera zertxobait aldiz Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan.

Biztanleko 9,36 euro likidatzen dituzte foru aldundiek euskara sustatzeko: gutxiago Arabako Foru Aldundiak (6,67 euro) eta gehiago aldiz Bizkaia eta Gipuzkoakoak (9,49 eta 10,34 hurrenez hurren).

➤ EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUAK 5.000 BIZTANLEZ GORAKO UDALERRIETAKO UDALETAN

EAEko 5.000 biztanletik gorako 64 udalerrietako udalen aurrekontu osoa, orotara, 1.630,8 milioi eurokoa izan da; eta euskara normalizatu eta sustatzeko likidatutakoa, 33,6 milioi euro. Euskarari beraz, aurrekontu osoaren %2,06 eskaini diote. Arabako 2 udalek, 614 mila euro inguru erabili dituzte euskara normalizatu eta sustatzeko (aurrekontuaren %1,38), Bizkaiko 32 udalek 15,2 milioi euro (bere aurrekontu osoaren %1,63) eta Gipuzkoako 30 udalek 17,8 milioi euro (aurrekontu osoaren %2,73).

Kopuru absolutuetan, eta orokorrean, ia 6 milioi euroko igoera izan dute euskara aurrekontuek 2006-2008 bitartean, baina igoera Bizkaiko eta Gipuzkoako udalei zor zaie, Araban euskara aurrekontuak behera egin baitu bi urteotan. Aurrekontu orokorrekiko, proporzionalki, Gipuzkoako udaletan soilik egin dute gora euskara aurrekontuek.

Biztanleko, 29,43 euro likidatu dituzte udalerririk; lurraldearen arabera bada diferentziarik, eta Araba eta Bizkaiko Udalek 22 euro inguru eskaintzen dituzten bitartean, Gipuzkoakoek ia 41 euro eskaintzen dituzte batez beste.

Udalerrien tamaina eta gune soziolinguistikoari jarraiki, C ereduak dira (biztanleria euskalduna %50-%70 artean dituzten udalerririk) euskarari diru-baliabiderik gehien eskaintzen diotenak: 10.000 biztanlez gorako C ereduak 50,49 euro eskaintzen dituzte euskara sustatzera biztanleko, eta 5.000-10.000 biztanlez artekoetan 43,52 euro biztanleko.

Euskarari diru-baliabiderik gutxien eskaintzen dioten udalak, aldiz, A ereduak dira (euskaldunak biztanleriaren %15 baino gutxiago diren udalerririk, alegia): Ertaintan (5.000-10.000 biztanle artekoetan) 24,14 euro likidatu dituzte biztanleko, eta handietan (10.000 biztanlez baino gehiagokoetan) 10,0 euro baino gutxiago.

➤ EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUAK EAEko HIRIBURUETAN

EAEko hiriburuen aurrekontu osoa, orotara, 1.222,7 milioi eurokoa izan da, eta euskara normalizatu eta sustatzeari eskainitakoa aldiz, 8,5 milioi euro. Euskarari beraz, aurrekontu osoaren %0,69 eskaintzen diote hiriburuak. Gasteizko udalak, 2,9 milioi euro inguru likidatu ditu (bere aurrekontu osoaren %0,73), Bilboko Udalak 2,8 milioi euro inguru, (bere aurrekontuaren %0,52), eta Donostiakoak ia 2,7 milioi inguru, (bere aurrekontuaren %0,98).

Kopuru absolutuetan, orotara, %20,30eko igoera izan dute euskara aurrekontuek 2006ko aurrekontuekiko, eta igoera 3 hiriburuetan eman da; proportzionalki, euskara aurrekontuen pisuak gora egin du Bilbon, zertxobait ere Donostian, eta behera egin du Gasteizen.

Biztanleko 11,15 euro likidatu dituzte hiriburuak; Bilbok egiten du ekarpenik baxuena (8,12 euro biztanleko), eta altuagoa egiten dute Gasteizek (12,8 euro biztanleko) eta Donostiak (14,9 euro biztanleko).

EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUAK KAPITULUEI JARRAIKI

Euskara sustatzeko aurrekontuen kapitulukako azterketak, euskara aurrekontu bateratuan 4. kapituluak (transferentzia arruntak) eta 1. kapituluak (pertsonal gastuak) duten pisua agertzen du.

Izan ere, EAEko erakunde publikoek likidatutako aurrekontu osoaren %29,2, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketei dagokio (2. kapitulua), eta %28,4 transferentzia arruntei (4. kapituluari); eta horien nabarmen atzetik datoz pertsonal gastuak (1. kapitulua-%19,08), inbertsio errealak (6. kapitulua- %10,41) eta kapital transferentziak (7. kapitulua-%8,56).

Euskara aurrekontuaren kasuan, aldiz, %40,7 dagokio 4. kapituluari (transferentzia arruntak), eta %35,3 pertsonal gastuari (1. kapitulua). Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketei (2. kapituluari), %20,4 dagokio.

Kapitulukako banaketa erakunde-motari jarraiki aztertuta, kasu gehien-gehienetan euskara aurrekontu osoa edo ia osoa 3 kapitulutan banatzen da: 4. kapitulua (transferentzia arruntak), 1. kapitulua (pertsonal gastuak) eta 2. kapitulua (ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak). Salbuespen bakarrak, Gipuzkoako Foru Aldundia (bere euskara aurrekontuaren %18,2 kapital transferentzia da), eta Eusko Jaurlaritza dira (euskara aurrekontuaren %2,7 kapital transferentzia baita ere).

Baina aipaturiko 3 kapitulu nagusi horiek oso modu desberdinean banatzen dira erakunde batetik bestera, alde handiak daude beraien artean. Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan adibidez, euskara aurrekontuaren %64,7, transferentzia arrunta gisa kokatzen da (4. kapitulua), eta datu orokorretan baino nabarmen baxuagoa da 1. eta 2. kapituluek duten pisua. Hain altua izan gabe ere, datu orokorretan baino pisu handiagoa du ere 4. kapituluak 5.000 biztanlez gorako udalerrietako Bizkaiko udaletan (%48,2), eta Gipuzkoako Foru Aldundian (%48,1).

Pertsonal gastuek (1. kapitulua), datu orokorretan baino nabarmen pisu altuagoa dute Donostian (%44,20), eta aldea, hain handia ez bada ere, baita 5.000 biztanlez gorako udalerrietako Arabako udaletan (%39,7), Arabako Foru Aldundian (%37,9) eta Eusko Jaurlaritzan (%39,69).

Eta azkenik, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketen kapitulari dagokionez (2. kapitulua), azpimarratu %20,4ko datu orokorraren azpitik geratzen diren bakarrak Eusko Jaurlaritza (%14,95) eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiak direla (%18,2 eta %16,0 hurrenez hurren), gainerako erakunde guztiek euskara aurrekontuaren %30etik gora bideratu baitute ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak egiteko. Erakunde gehien oso gaineratik halere, 2 hiriburu; Gasteiz (%61,1) eta Bilbo (%48,8).

EUSKARA AURREKONTUAK HIZKUNTZA NORMALKUNTZAKO EREMUEI JARRAIKI

Orotara EAEko erakunde publikoek 2008. urtean euskara sustatu eta normalizatzeko likidatutako 187,5 milioi eurotatik, ia erdia (93,2 milioi zehazki), ondorengoetaratzea helburu duten eremuetara zuzendu da (49,5 milioi euskalduntze-alfabetatzera eta 42,9 milioi irakaskuntzara), laurden bat eskas (43,2 milioi euro), egitasmo edota gastu orokorrak finantzatzera (atalen zuzendaritza, koordinazioa, administrazioa, ... kudeaketa lanak egitera nagusiki), eta azken laurdena, elikadura eta erabilera helburu duten eremuak finantzatzera: 25,9 milioi elikadurara, eta 25,1 milioi erabilera.

Biztanleko, euskara sustatzeari orotara eskainitako 88,05 eurotatik, 43,80 euro ondorengoetaratzea helburu duten ekimenetara zuzenduta daude, 12,16 euro elikadura helburu dutenetara eta 11,77 erabilera helburu dutenetara. 20,31 euro biztanleko erabiltzen dira egitasmo edota gastu orokorrak finantzatzeko.

Eremuen arabera, nagusienak aipatuta daude jada (euskalduntze-alfabetatzea, irakaskuntza eta euskara atalaren zuzendaritza eta koordinazioa), eta horien atzetik, baina alde handiz, honakoak datoz: hedabideak 10,9 milioi, administrazioa 9,5 milioi, corpus plangintza eta euskararen kalitatea 7,3 milioi, aisia, kirola eta erlijioa 6,8 milioi, lan-arloa 5 milioi, kulturgintza 4,6 milioi, bestelako dirulaguntza, egitasmo eta gastu orokorrak 4,2 milioi, teknologia berriak 3,6 milioi, liburugintza 2,6 milioi, informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorretara ere 2,6 milioi, EBPnren kudeaketa 1,6 milioi, azterketa soziolinguistikoak edota ikerketa orokorrak 1,4 milioi, familia bidezko jarraipena 919 mila euro, eta azkenik publizitatea 405 mila euro.

➤ AURREKONTUAK NORMALKUNTZAKO EREMUEK ARABERA, EUSKO JAURLARITZAN

Eusko Jaurlaritzak euskararen sustapena eta normalizazioari eskainitako 130 milioi eurotatik, 78 milioi ondorengoetara zuzentzen dira (%59,9), 29,6 milioi egitasmo edota gastu orokorretara (%22,7), 11,5 milioi euro erabilerara (%8,8) eta 11,1 milioi elikadurara (%8,5).

Eusko Jaurlaritzak, 36,70 euro eskaini ditu biztanleko ondorengoetara helburu duten ekimenetarako (irakaskuntza 18,63 eta euskalduntze alfabetatzea 18,07), 13,93 egitasmo edota gastu orokorretarako, 5,41 erabilerarako eta 5,21 elikadurarako.

Eremuen arabera, irakaskuntza eta euskalduntze alfabetatzea dira nagusienak (%30,4 eta %29,5 hurrenez hurren), eta hirugarren, baina distantzia handira euskara atalaren zuzendaritza eta koordinazioa (%18,2). Ondoren, baina distantzia handira berriz ere hedabideak (%4,8), administrazioa (%4,3), eta gainerako eremuak.

Irakaskuntzaren atzean, Hezkuntza Sailak euskara sustatu eta normalizatzeko erabilitako ia 40 milioi euroak daude batik bat. Kontzeptu nagusienak; Irale (29,5 milioi euro), herri ikastetxeak (3,2 milioi euro), Ulibarri (2,2 milioi euro), EIMA (2,9 milioi euro eta EGB/EGE 1,2 milioi euro).

Eta euskalduntze-alfabetatzearen atzean, besteak beste, HABEren aurrekontu oso-oso (41,2 milioi euro).

➤ AURREKONTUAK NORMALKUNTZAKO EREMUEK ARABERA, FORU ALDUNDIETAN

Euskal Autonomi Erkidegoko 3 foru aldundien 2008ko euskara aurrekontua, orotara, 19,9 milioi eurokoa da. Hizkuntza normalkuntzarako helburuei jarraiki, ia 8 milioi elikadurara zuzentzen dira (%40,0), 7,7 milioi euro egitasmo edota gastu orokorretara (%38,6), 3,8 milioi euro erabilerara (%19,0), eta 473 mila euro ondorengoetara (%2,4).

Biztanleko, 3,74 euro erabili dituzte foru aldundiek elikadurarako, 3,61 egitasmo edota gastu orokorretarako, 1,78 erabilerarako eta 0,22 ondorengoetaratzerako.

Eremuen arabera, corpus plangintza eta euskararen kalitatea da nagusia (%16,9), eta haren atzetik datoz EBNren kudeaketa (%15,9), euskara atalaren zuzendaritza eta koordinazioa (%13,5), administrazioa (%11,7), bestelako egitasmo eta gastu orokorrak (%7,5) eta lan-arloa (%4,3).

Foru aldundiari jarraiki, aldeak adierazgarriak dira: Arabako Foru Aldundiaren kasuan, azpimarratzekoa da euskara aurrekontuaren ia %47 administrazioari eskaintzen zaiola; atzetik, baina noski distantzia oso handira datoz: bestelako egitasmo eta gastu orokorrak (%14,0), kulturgintza (%11,3) eta euskalduntze-alfabetatzea (%10,5).

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, berriz, aipatu corpus-plangintza eta euskararen kalitateari (euskara elkarreentzako dirulaguntzak eta Euskaltzaindiari dirulaguntza) eta EBNren kudeaketari eskaintako baliabideak (euskara aurrekontuen %26,7 eta %22,6 hurrenez hurren)..

Gipuzkoako Foru Aldundiak, euskara aurrekontuaren %16,0 eskaintzen die hedabideei, %15,1 kulturgintzari eta %14,6 euskara atalaren zuzendaritza eta koordinazioari. Honek, aukera ematen dio beste hainbat eremutara zuzendutako diru-baliabideak altuagoak izatera, eta hala, datu orokorretan baino pisu handiagoa dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan honakoek: liburugintzak (%6,0), lan-arloak (%4,9), teknologia berriek (%4,3), aisia, kirola eta erlijioak (%3,4), eta publizitateak (%4,1).

➤ AURREKONTUAK NORMALKUNTZAKO EREMUEK ARABERA, 5.000 BIZTANLEZ GORAKO UDALERRIETAN

5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen euskara aurrekontuan, 12,5 milioi euro ondorengoetaratzera zuzentzen dira (%37,2), 9,2 milioi erabilerara (%27,6), 5,2 milioi elikadurara (%15,6) eta 6,6 milioi egitasmo edota gastu orokorretara (%19,7).

Biztanleko, orotara eskaintako 29,54 eurotatik, ia 11 euskalduntze-alfabetatzeari eskaintakoak dira, 8,1 erabilerari eta 4,6 elikadurari. Egitasmo edo gastu orokorretan erabiltzen da gainerako 5,81 euro biztanleko.

Eremuen arabera, euskalduntze-alfabetatzea da nagusiena, alde handiz gainera (%28,4), eta atzetik datoz aisia, kirola eta erlijioa (%15,3) eta euskara atalaren zuzendaritza, koordinazioa eta kudeaketa (%14,5); hirugarren multzo batean administrazioa (%8,3), hedabideak (%7,0), irakaskuntza (%6,4) edota kulturgintza (%5,4) kokatuko genituzke.

Arabako udalen kasuan, nabarmen altuagoa da euskara atalaren zuzendaritza eta koordinazioari eskaintzen dioten portzentajea (%33,0), eta baita kulturgintzari eskaintakoa ere (%11,8). Bizkaiko udalen kasuan, azpimarratu euskalduntze-alfabetatzeak duen pisu altua (%39,7) eta hedabideak aldiz duen pisu baxua (%2,6). Gipuzkoako udalen kasuan ere euskalduntze-alfabetatzeak hartzen du pisurik gehien, baina askoz ere portzentaje baxuagoarekin (%18,9); honek, gainerako eremuetara diru-baliabide gehiago bideratzeko aukera ematen du, eta halaxe Gipuzkoako udalen kasuan aipatzekoa da aisia, kirola eta erlijioari (%17,1), hedabideei (%11,0), administrazioari (%9,7) edo irakaskuntzari (%7,8), Bizkaiko eta Arabako udalek eskaintzen dietena baino diru-baliabide gehiago eskaintzen dizkietela (bai kopuru absolutuetan, baita erlatiboetan ere).

➤ AURREKONTUAK NORMALKUNTZAKO EREMUEK ARABERA, HIRIBURUETAN

Euskal Autonomi Erkidegoko 3 hiriburu euskara aurrekontuan, 2,4 milioi euro egitasmo edota gastu orokorretara zuzentzen dira (%28,2), 2,3 milioi euro erabilerara (%27,6), 2,1 milioi ondorengoetaratzera (%25,3) eta 1,6 milioi elikadurara (%18,8).

Hiriburuek, biztanleko 3,15 euro gastatzen dituzte egitasmo edota gastu orokorretan, 3,08 euro erabileraren ildora zuzendutakoetan, 2,83 ondorengoetaratzean eta 2,10 elikaduran.

Eremuen arabera, euskara atalaren zuzendaritza eta koordinazioa, kudeaketa da nagusiena, eta alde handiz gainera (%24,8); haren atzetik datoz aisia, kirola eta erlijioa (%15,1), euskalduntze-alfabetatzea, irakaskuntza eta kulturgintza (%11-%12rekin), eta administrazioa (%8,1).

Hiriburuari jarraiki, aldeak adierazgarriak dira: Gasteizen kasuan, datu orokorretan baino nabarmen gehiago da aisia, kirola eta erlijioari eskainitakoa (%27,1), eta baita kulturgintzari eskainitakoa ere (%19,0). Bilboren kasuan, azpimarratzekoa da irakaskuntzari eskainitako proportzio altua (%20,7), eta baita, askoz ere diru-kopuru baxuagoaz ari bagara ere, lan arloari eskainitakoa (%6,2). Donostiari dagokionez, aldiz, aipatzekoa da euskara atalaren zuzendaritza eta koordinazioari eskaintzen diola euskara aurrekontuaren %39,4, honek noski, gainerako eremuetan dakarren galerarekin. Izan ere, irakaskuntzari eskaintzen dio Gipuzkoako hiriburuak diru-baliabiderik gehien, baina euskara aurrekontuaren %10,3 besterik ez; administrazioari %9,5 eta euskalduntze-alfabetatzeari %9,2.

EUSKARA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK EAEko ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

➤ DATU OROKORRAK

2008. urtean zehar orokorrean euskararen sustapenerako administrazio publikoak jarritako 187,5 milioi eurotatik, 98,5 milioi euro pasatxo dirulaguntza edota hitzarmenen bitartez banatu dira, beraz, aurrekontu osoaren erdia baino zerbait gehiago (%52,6).

Dirulaguntza eta hitzarmenatarako administrazio publikoak erabilitako aurrekontu osoaren hiru laurden baino gehixeago (%77,1) Eusko Jaurlaritzak jartzen du (hau da 76,1 milioi euro), %13,2 foru aldundiek (13 milioi), %2,1 hiriburuak (2 milioi) eta %7,6 5.000 biztanlez gorako udalerriek (7,5 milioi).

Dirulaguntza eta hitzarmenek erakunde bakoitzaren euskararen aurrekontu osoarekiko duten pisua nabarmen aldatzen da administrazio maila desberdinen artean:

- Udalerri gairik handien erakundeetan, hau da, Eusko Jaurlaritzan eta oraindik modu nabarmenagoan foru aldundietan, euskara aurrekontuen erdia baino gehiago helburu honetarako erabiltzen da: %58,4 eta %65,5 hurrenez hurren.
- Aldiz, udalerrietan pisu hori askoz txikiagoa da, (%22-%24 ingurukoa hain zuzen ere), bai hiriburuetan bai 5.000 biztanlez gorako udalerrietan.

Dirulaguntza eta hitzarmenen bitartez euskararen sustapenerako 2008. urtean administrazio publiko desberdinek bideratutako baliabideak biztanleriaren artean zatituz gero 46,3 €/biztanleko ratio orokorra ateratzen da: Zatik handiena Eusko Jaurlaritzak berak jartzen du; hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzak 35,74 €/biztanleko jartzen ditu, eta gainerako erakunde publikoak ez dira 7 €/biztanleko ratiara iristen: 6 € pasatxo foru aldundien eta 5.000 biztanlez gorako udalerrien kasuan eta 2,67€ hiriburuaren kasuan.

➤ DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI

Erakundearen arabera, dirulaguntza eta hitzarmenek oso pisu desberdina dute euskara aurrekontu osoarekiko: Kasu batzuetan, euskara aurrekontuaren zatirik handiena (erdia baino gehiago behintzat) dirulaguntza eta hitzarmenetan erabiltzen da. Adibidez: Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan %83,4, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren kasuan %60,0 inguru.

Beste batzuetan %25-%30 inguru erabiltzen da dirulaguntza eta hitzarmenatarako. Hala nola: Gipuzkoako udalak, Arabako Foru Aldundia, Bilbo eta Gasteiz.

Eta aldiz, badira bere euskara aurrekontuaren %20 edo gutxiago eskaintzen dituztenak dirulaguntza eta hitzarmenetan. Adibidez: Donostia eta Bizkaiko eta Arabako udalak.

Datuok erakunde-mota baten barnean aztertuz ere ondorioak bertsuak dira: Dirulaguntza eta hitzarmenek oso pisu desberdina dute foru aldundien euskara aurrekontuetan: Gipuzkoako Foru Aldundian %83,4 (beraz gehiengo oso nabarmena), Bizkaikoan %60,2 eta Arabakoan aldiz %31,4. €/biztanleko ratioetan ere antzeko joera antzematen da.

5.000 biztanlez gorako udalerriei dagokienean, Gipuzkoakoetan dirulaguntza eta hitzarmenek beste lurraldetako udalerrietan baino garrantzia nabarmenagoa dute, beren euskara aurrekontu osoaren %30,8 honetara bideratzen baitute. Araba eta Bizkaiko udalerrietan aldiz, proportzio hori %12 ingurukoa da. €/biztanleko ratioetan aldeak ere oso nabarmenak dira: Gipuzkoako udaletan askoz altuagoa ateratzen da (12,5€) Bizkaia eta Arabakoetan baino (ia 3€).

Udalerrien tamaina eta gune soziolinguistikoaren arabera aztertuta, C2 multzoa da (udalerrri handi nahiko euskaldunak eta gehienak Gipuzkoakoak) euskara aurrekontu osoaren proportzio adierazgarriena dirulaguntza eta hitzarmenetara bideratzen duena: herena hain zuzen ere (%33,3). Haren atzetik datoz B1, C1 eta D multzoetako udalerrriak (%22-%24 dirulaguntza eta hitzarmenetara eskaintzen dutenak), A1 eta B2 multzoetakoak (%13-%16 inguruan) eta A2 multzokoak azkenik (Nerbioi ezkerreko udalerrri handi ez euskaldunak) non dirulaguntza eta hitzarmenen pisua ez da aurrekontu osoaren %4 izatera iristen.

Hiriburuen kasuan, Bilbo da dirulaguntza eta hitzarmenei proportzionalki gehien eskaintzen diona (bere euskara aurrekontu osoaren %28,2), ondoren Gasteiz (%23,5) eta gero Donostia (%20,0). Hala ere, aurrekontu/biztanleko ratioari dagokionean aldeak ez dira hain nabarmenak eta posizioak ere aldatu egiten dira: horrela ratioirik handienak Gasteizen eta Donostian ateratzen dira (3€ inguru) eta ondoren Bilbon (2,3€).

➤ DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK EREMUARI JARRAIKI

EBPNren lan-ildo nagusiei erreparatuz, ondorengoetaratzera 50,3 milioi euro zuzendu dira, beraz aurrekontu osoaren erdia pasatxo (%51,0), euskararen elikadurara 18,6 milioi (%18,9) eta erabileraren sustapenera 13,6 milioi (%13,8).

EBPNren eremu jakin batean sailkatzeko oso zailak edo ezinezkoak diren dirulaguntza eta hitzarmenak (ildo bati baino gehiagori eragiten dielako) “dirulaguntza eta hitzarmen orokorrak” izeneko atal batean sartu dira (adidibez: toki entitateetan EBPN garatzeko laguntzak, euskararen sustapenerako elkarte eta erakundeentzako laguntzak, hizkuntza sentsibilizaziorako komunikazio ekintza orokorretarako laguntzak...). Atal honetara guztira 16 milioi euro bideratu dira (aurrekontu osoaren %16,3).

EBPNren eremuen arabera aztertuta, oso nabarmena da euskalduntze-alfabetatzearekin zerikusia duten dirulaguntza eta hitzarmenen garrantzia ekonomikoa: 42,1 milioi horretara bideratu baitira, hau da aurrekontu osoaren %42,7. HABEren bitartez euskaltegi publiko eta pribatuei emandako dirulaguntzak (29 milioi), herri administrazioetako langileen euskalduntzerako HAEE-IVAPEk finantzatzen dituen 10 milioi, euskara ikasteagatik euskara ikasleei 1,3 milioi eta gainerakoa, herri eta hiriburuetakoa udalek ipintzen dutena. (Orotara biztanleko 19,79 euro eskaini zaizkio dirulaguntza eta hitzarmenetan eremu honi, beraz).

“Bestelako dirulaguntza eta hitzarmen orokor” gisa sailkatu diren dirulaguntza eta hitzarmenen guztirakoa 16,1 milioi eurokoa da (7,55 euro/biztanleko), aurrekontu osoaren %16,3. Horietatik 9,8 milioi Kultura Sailari dagozkio Irakaskuntza eremuarekin loturarik izan dezaketen erakunde eta elkarteei emandako dirulaguntzak (3,3 milioi euro), hizkuntza sentsibilizazio eta komunikaziorako ekintza orokorretarako laguntzak (1,7 milioi euro) eta “euskara gizarte bizitzan” dirulaguntza programa ere (1,3 milioi euro). 4,6 milioi Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkio (toki entitateetan EBPN garatzeko dirulaguntzak, 2,4 milioi euro) eta euskara elkarteentzako dirulaguntzak, 2,2 milioi euro).

9,9 milioi euro hedabideen eremura zuzendu dira (aurrekontu osoaren %10,0, hots, 4,65 €/biztanleko) . Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak jarri ditu 6,2 milioi euro, (euskarazko hedabideak sustatu eta sendotzeko, euskarara bikoiztutako edota azpidatzitako ikus-entzunezkoen estreinaldiak sustatzeko), 2 milioi inguru 5.000 biztanlez gorako udalek eta hiriburuak eta 1,5 foru aldundiek (idatzizko hedabideak sustatzeko, toki telebistetarako).

Irakaskuntzaren eremura 7,5 milioi € bideratu dira (aurrekontuaren %7,6, hots 3,52 €/biztanleko), eta gehiengo oso nabarmena Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren dirulaguntzei dagokio (6,3 milioi): irakaskuntza alorreko ikasmaterialgintzarako 2,9 milioi, ikastetxe pribatuetako hizkuntza normalkuntza planetarako (Ulibarri programa) 2,2 milioi, ikastetxeetako euskal girotze saioetarako, barnetegi edo ikastetxe arteko trukeetarako 1 milioi, eta ikastetxeek antolatutako eskola-orduz kanpoko ekintzetarako 205 mila euro. Udaletatik (hiriburuak barne) ikastetxeetara zuzendu edota irakaskuntzaren eremu honetan kokatutako dirulaguntzen zenbateko osoa milioi 1 euro ingurukoa da.

Corpus plangintza eta euskararen kalitatearen eremura, guztira 4,3 milioi eta horietatik 3 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarenak (hainbat erabilera eremutako terminologia normalizatzeko dirulaguntzak, Euskaltzaindiari eskainitako dirulaguntza, Labayruri eskainitakoa, itzulpen automatikoko tresna, Euskalterm...), eta beste 1 foru aldundiena (Euskaltzaindiari dirulaguntza, Elhuyar Fundazioari dirulaguntza...)

Lan-arloan euskararen erabilera indartzeko ia 4,3 milioi euroko dirulaguntza eta hitzarmeni dagokionez, ia 3 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari dagozkio (lantoki edota entitate pribatuetan euskara planak egin eta zabaltzeko), 865 mila foru aldundienak (enpresa eta entitate pribatuetako euskara planak), 530 mila 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udal eta hiriburuak.

Administrazio publikoa euskalduntzera, guztira 4 milioi inguru zuzendu dira 2008an: deialdirik garrantzitsuenak, Kultura Saitetik toki-entitateetako erabilera planetarako zuzendutako 1,7 milioi euroak, eta IVAP-HAEEtik ALET eta euskara ikastaroetara joaten direnen ordezkapenentarako 1,5 milioiokoa.

Teknologia berrietarako 3,4 milioi euroko dirulaguntzak eskaini dira. Deialdirik garrantzitsuena Kultura Sailak, 2,7 milioi, IKT dirulaguntza eta teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzeko 2,7 milioiokoa. Horretaz gain 307 mila euro eskaintzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak eta 267 mila Bizkaiko Foru Aldundiak. 85 mila euro inguru udaletatik (hiriburuak barne).

Kulturgintzarako guztira 2,5 milioi eta liburugintzarako 1,6 milioi euro: Kultura Sailetik euskal kultura sendotu eta hedatzeko 293 mila euro eta bertsolaritza sustatu eta hedatzeko laguntzak 275 mila euro. Gipuzkoako Foru Aldunditik, zine munduan euskararen presentzia indartzeko 300 mila euro, bertsolaritzara zuzenduak 336 mila euro eta euskal kulturaren alorreko elkarteekin dituen hitzarmenatarako 500 mila euro. Udalek kulturarako emandakoa edo kultur alorreko eragileekin dituzten hitzarmenetan ipinitako 550 mila euroz gaindi dago baita ere (hiriburuak barne). Euskarazko liburugintzarako dirulaguntza deialdi nagusienak lau dira, 3 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarenak eta bat Gipuzkoako Foru Aldundiarena.

Aisia, kirola eta erlijio alorretara zabaldutako 2008ko dirulaguntzen zenbatekoa guztira 2 milioi euro inguru da: kasu honetan udalek ezartzen dutena nabarmen gehiago da (1,4 milioi euro), foru aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren artean ezartzen dena baino.

Hizkuntzaren familia bidezko jarraipenerako dirulaguntza edo transferentzia gisa kontsideratutako kopurua guztira 712 mila eurokoa da eta guztia udalerrietako udalei eta hiriburuetakoko udalei dagokie.

➤ DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENAK ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI

Eusko Jaurlaritza: zabaltzen dituen 76 milioitatik 40 euskalduntze-alfabetatzeari dagozkio, 6,3 irakaskuntzarako ipintzen ditu, 6,2 hedabideetarako, 3,2 administrazioan euskara indartzeko, 3 milioi hizkuntzaren corpusa eta kalitatea jorratzen dutenentzat, 2,8 lan-arlorako, 2,7 teknologia berrietarako, 1,5 kulturgintza eta liburugintzarako eta 140 mila aisirako. Bestelako dirulaguntza eta hitzarmen orokorren atalari dagozkio gainerako 10 milioi euroak.

Foru aldundiak: guztira 13 milioi eta horietatik 1,5 hedabideetarako (1,1 Gipuzkoako Foru Aldundiak), 1,3 kulturgintza, milioi 1 corpusa eta kalitatea, 865 mila lan arlorako (Bizkaikoak 515 mila), 625 mila administrazio alorrean (guztia Gipuzkoako Foru Aldundiarena), teknologia berrietarako 575 mila, liburugintzarako 535 mila (424 mila Gipuzkoakoak) eta gainerakoak 300 mila euroren azpitik (publizitatea, aisia, kirola eta erlijioa, euskalduntze-alfabetatzea eta irakaskuntza).

Udalak: guztira 7,5 milioi eta diru-partidarik handieneko eremuak, hedabideetarako 2 milioi (1,7 Gipuzkoako udalena), euskalduntze-alfabetatzea milioi 1, irakaskuntza 0,9 milioi, lan arlorako 500 mila inguru. Gainerako eremuetako dirulaguntzen zenbatekoen batura 500 mila euroz azpitik kokatzen da. Adierazgarria da 5.000 biztanlez gorako udalei dagozkien 7,5 milioitatik 5,5 Gipuzkoakoak direla. Lurraldeka dirulaguntza proportziorik altuena hedabide eta aisia, kirola, erlijioa eremuek dute Gipuzkoan, Bizkaian euskalduntze-alfabetatzeak eta irakaskuntzak eta Araban berriz nabarmen euskalduntze alfabetatzeak.

Hiriburuak: 2 miloi ipintzen dituzten hiruen artean dirulaguntza eta hitzarmenatarako. 700.000 € euskalduntze-alfabetatzearen eremura bideratzen dira, (euskara ikasleentzako dirulaguntza orokorretarako). 308 mila euro familia bidezko jarraipenerako da eta 234 mila euro kulturgintzarako. Hiriburuek ez dute aurrekonturik bideratu ez liburugintzarako ezta publizitaterako ere.

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EGITURA ETA ZERBITZUAK

5.000 biztanlez gorako EAEko herrietako udalen kasuan (hiriburuak kanpo), aztertutako 64 udalerrietatik, 59 dira euskara sustatzeko egitura propioa dutenak (%92,2); 5ek beraz ez dute bere egitura propioaren barnean euskararen sustapenerako atal berezirik. Hiru udalek dute Departamentua euskararen sustapenerako atal gisa, eta beste hiruk Patronatu edo udalaren menpeko erakunde autonomoa.

Hiru hiriburuek egitura-mota desberdinak dituzte, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietan, Euskara Zuzendaritza da euskararen sustapenaz arduratzen den atala, eta Arabakoan aldiz bi zerbitzu daude.

Eusko Jaurlaritzako Sailen artean egoera oso desberdina da: HABE euskararen sustapena helburu duen erakunde autonomiaduna da; Kultura Sailak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak euskara zuzendaritza dute; IVAP/HAEK zuzendaritzaordetza; 4 sailek zerbitzua dute (Euskal Herriko Polizia Ikastegiak, Eustatek, HUISek eta Lehendakaritzak; Ertzaintzak Euskara Saila/Arloa du; Ogasun eta Herri Administrazio Sailak aldiz, Departamentua; beste batzuetan euskararen inguruko lanpostuak bai (itzultzaileak nagusiki), baina atalik ez; eta azkenik, beste bitan ez dago euskararako giza baliabiderik (Emakunde eta Osalan).

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO GIZA BALIABIDEAK

➤ GIZA BALIABIDEAK: DATU OROKORRAK ETA ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI

Orotara 755 dira Euskal Autonomi Erkidegoko herri administrazioan, euskararen sustapen eta normalizazio lanetan diharduten pertsonak. Horietatik, multzorik handienak (%59,6, 450 pertsona orotara), Eusko Jaurlaritzako Sail edo erakunderen batean egiten du lan; 197 dira 5.000 biztanlez gorako udalerriren batean ari direnak (%26,1), 65 foru aldundiren batean (%8,6) eta 43 hiribururen batean (%5,7).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailean, 260 pertsona dira euskararen sustapen lanean dihardutenak, HABEn 67 pertsona (bere giza baliabide guztiak), HAEE/IVAPen 45 pertsona, eta Kultura Sailean 43 pertsona. Eusko Jaurlaritzako gainerako ataletan 35 dira euskararen sustatze eta normalizazio lanetan diharduten pertsonak.

5.000 biztanlez gorako udalerrietako udal guztietan badago euskara sustatze lanetan diharduen langilerik; orotara, esan bezala, 197 pertsona. Horietatik %59,4 Gipuzkoan ari dira, %37,8 Bizkaian eta %3,0 Araban.

Foru Aldundien kasuan aldiz, Bizkaikoan 26 pertsonak egiten dute lan, Gipuzkoakoan 25ek, eta Arabakoan 14k.

Hiriburuen kasuan, Donostiak eskaintzen ditu pertsona gehien (19 guztira), Bilbok nahiz Gasteizek 12na eskaintzen baitizkiote euskaren sustapen lanari.

➤ GIZA BALIABIDEAK LANPOSTU MOTA ETA KONTRATU MOTARI JARRAIKI

Lanpostu motari dagokionez⁷, multzorik handiena euskara teknikari, hizkuntza normalizatzaile eta dinamizatzaileek osatzen dute, (160 pertsona orotara, %32,3), bigarrena itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteek (102 pertsona, %20,6) eta hirugarrena HABEko langileek (67 pertsona guztira, %13,5). Euskara arloko buru dira 60 pertsona (%12,1), eta administrazio lanetan dihardutenak, 58 (%11,7). Hizkuntza trebatzaileak 23 dira (%4,6) eta 1 kultura teknikaria (%0,2)

Kontratu motari dagokionez, langileen %55 funtzionarioak dira, eta %22,4 bitarteko funtzionarioak. Laboral finkoak dira langileen %10,3, eta aldi baterakoak, %5,5.

